



ELKARREKIN BAT

Arizmendi, UDA eta Mondra elkartu eta
Leintz Arizmendi nesken futbol taldea sortu dute / 54

Eider Altube, Lore
Etxeandia eta
Olatz Legarda,
Arizmendiko,
UDAKo eta
Mondrako
elastikoekin.

XABI URZELAI

Jaia baliatuta borrokatuko dira

Leire Martinen aldeko jaialdi erraldoia bihar da, Bergaran, muskulu-atrofia espinalaren kontrako borrokan / 46



ARRASATEKO JAIK / 21

**Enpleguari bultzada
emateko diru gehiago
eta neurri berriak
iragarri ditu
Arrasateko Udalak** / 10

**Aramaiok seme
kuttun izendatuko du
Julian Unzueta,
1972tik 1979ra
alkate izandakoa** / 18

**Kalean da
'Merkatari', dendari
txikien eta bezeroen
arteko elkarreragina
bultzatzeko** / 2

**'Antxinako Zubillagari
begirada bat' liburua
domekan ipiniko dute
salgai Oñatiko Foruen
plazan** / 4

SINADURAK

JOXAN LARRANAGA / 6	ANDONI ELEJALDE / 16
HORAZIO ARGARATE / 12	AINHOA NEGERUELA / 51
INAXIO GARRO / 14	MIKEL IRIZAR / 48



Frankismo garaiko
ikurrak
Debagoienean

Elkarrizketa Miriam
Urkia euskaltzain
urgazleari



VW Tiguan berria

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Das Auto

'Merkatari': komertzioak eta bezeroak gertuago

Arrasaten martxan jarriko dute herriko denda txikien eta bezeroen arteko elkarreragina hobetzea helburu duen mugikorrerako erreminta berria. Doaneko aplikazioa da, eta Google Playn eta App Storen deskargatu ahal izango da

Maite Txintxurreta DEBAGOIENA

Gaur egungo bizimoduaren ondorioz, sarri, erosketak egiteko astirik barik ibiltzen da jendea. Bada, bezeroei horretarako erraztasunak ematea da, besteak beste, *Merkatari* aplikazio berriak eskaintzen duen abantailetakoa bat. Erosketak bai, baina herrian bertan; oraingoz, Arrasaten.

Hala, esaterako, lanetik atera eta denbora justuarekin dabilenak aplikazio honen bitartez bere konfiantzazko harakinari mezu bat idatzi ahal izango dio, gaueko afarirako behar dituen solomoak prest izan ditzan eskatuaz. Ez hori bakarrik; izan ere, dendek euren produktuen



Asteon Kulturaren egin diren informazio saioetako bat. MAITE TXINTXURRETA

argazkiak jar ditzakete ikusgai, eta horiek begiratzeko zein deskontu eta eskaintza berezien berri izateko ere erabili ahal izango dute herritarrek.

Hainbat motatako komertzioentzat erabilgarri izango da *Merkatari* datozen egunetan: elikagai dendak, etxetresna dendak, arropa dendak, ile-apaindegiak, eta abar. Hain zuzen ere, komertzio txikia indartzea da aplikazioaren helburua.

Aplikazioa jaitsi eta alta eman

Mugikorrerako edo tabletarako aplikazio hori Google Playn -Android gailuentzat- eta App Storen -iPhone eta iPadentzat- deskargatu ahal izango da. *Debagoienakomerkatari.eus* helbidean deskarga egiteko lotura zuzena egongo da eskuragarri.

Behin deskargatuta, zerbitzuan erabiltzaile moduan alta ematea beharrezkoa izango da. Hori, *Merkatari* darabilten komertzioetan egin daiteke. Bertako dendariak saioa hasteko baime-na bidali ahal izango dio momentuan bertan sakelakora, eta hortik aurrera posible izango da hura erabiltzea. Laster, ko-

mertzio horien kanpoaldean pegatina bat izango da ikusgai, bertan *Merkatari* darabiltela jakinarazteko.

Aplikazioaren bultzatzaileak dagoeneko hasi dira zenbait komertzioarekin lanean, besteak beste: Traskilon, Lasagabaster, Kapikua, Sikol Lentzeria, Gare, Raos, Milar Elkoro, Aldedi, Adara, Chic Estilistak, Sofa Leku, Jose Aranzabal eta Alberto Iñurieta psikologoa.

Gertutasuna helburu

Herriko merkatarientzat, garrantzitsuen gertutasuna, konfiantza eta tratua eskaintzea da. *Merkatari*-k bezeroen eta dendarien arteko elkarreragina bultzatuko du, eta, esaterako, bezeroek egin duten erosketa bat edo jasotako arreta baloratzeko aukera izango dute. Horrek merkatariei aukera emango die indartu edo hobetu beharrekoak identifikatzeko eta bezeroa hobeto ezagutzeko. Gertutasuna eta konfiantza dira herrian bertan salerostearen indargune nagusiak, eta, hain zuzen ere, horiek sustatu nahi dituzte *Merkatari*-ren bultzatzaileak.

Prestatu energiaren profesionala izateko!

Energia Eraginkortasuna eta Eguzki Energia Termikoa

Goi mailako lanbide heziketa honetan, eraikinetako klimatizazio instalazioen diseinu, muntaia eta mantentzeak egiten dira. Instalazio hauetan eguzki energia termikoko instalazioak eta beste energia berriztagarri batzuk nola integratzen diren ikasten da.

Industrian eta eraikinetan energia eraginkortasuna ebaluatzeko metodoak erabiliz, gai hauek aztertzen dira: argiztapena, hotz eta bero instalazioak, ur instalazioak, energia berriztagarriak eta ziurtagiri energetikoak.

Hori guztiori, modu praktikoan eta talde-lanean oinarritutako erronka bidezko metodologia kooperatiboak erabiliz. Baita DUAL sisteman ikasteko aukerarekin.

Ikasketa hauek bukatzean IMT, IA eta GF2 Eusko Jaurlaritzako Industria karnetak eskuratzen dira.



Mikel Urreizti,

(Mutriku, 1993) Beroa Sortzeko Instalazioak erdi mailako lanbide heziketa egin ondoren, Energia Eraginkortasuna eta Eguzki Energia Termikoa goi mailako lanbide heziketa egin du, SANTILLAN enpresan egon da DUAL egiten, eta bertan egin diote lan-kontratua.



Iñigo Agirre,

(Ondarroa, 1974) Energia Eraginkortasuna eta Eguzki Energia Termikoa goi mailako lanbide heziketa ikasi ondoren, orain, Euskal Trenbideetako Langileak Mugarik Gabe programarekin Mozambikera doa energia berriztagarrietako ezagutzak zabaltzera eta han laguntzera.



Alain Aranaz,

(Nabarniz, 1990) Energia Eraginkortasuna eta Eguzki Energia Termikoa goi mailako lanbide heziketa ikasi eta ENERTEK energia berriztagarrien enpresa sortu berri du; bertan, biomasa, geometria eta energia berriztagarrien instalazioak egiten dituzte.



Markina-Xemein
94 616 90 02

info@leartik.com
www.leartik.com

Erabiltzen hasteko laguntza

Asteon hasi dira bultzatzaileak aplikazioa aurkezten. Hala, merkatariei zein herritarrei aplikazioaren inguruko azalpenak emateko saioak egin dituzte, eta halako saio gehiago egingo dituzte datozen asteetan.

Hurrengo hitzordua ekainaren 27an izango da, martitzena, 14:30ean, Kulturaten. Hurrengo bi martitzenetan ere, uztailaren 4an eta 11n, saio bana egingo dute, leku eta ordu berean.

Informazio saio horietaz gain, baina, Goiena Komunikazio Taldeko komertzial Raul Uriartek laguntza saio pertsonalizatuak eskainiko dizkie merkatariei zein hala nahi duten herritarrei, eta sor daitezkeen zalantzei erantzuna ematen lagunduko die.

Gainera, erreminta hori nola erabili azaltzen duten bideo tutorialak ere ikusi ahal izango dituzte erabiltzaileek *Merkatari* plataforma bertan.

Proiektua Goiena Komunikazio Taldeak eta ISEA Berrikuntza Zentroak jarri dute abian, Arrasateko Udalaren laguntzarekin eta Ibai-Arte elkartearen kolaborazioarekin.

"MERKATARI" APLIKAZIOA DAGOENEO DESKARGATZEKO MODUAN DAGO"

'Merkatari'-ri buruz diotena



RAUL URIARTE
GOIENAKO KOMERTZIALA

"Komertzioak plataforma batean batuko ditu"

"Arrasateko komertzioen eta euren bezeroen arteko komunikazioa hobetzeko tresna erabilgarria da *Merkatari*. Herriko ahalik eta komertzio gehienak batuko dituen plataforma bat da; hala, aplikazio horren bitartez, herritarrek poltsikoan bertan izan dezakete euren konfiantzazko komertzioekiko komunikazio zuzenagoa ahalbidetuko duen erreminta. Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta osatuagoa izango da plataforma hori. Hasierako fase honetan sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta aplikazioaren inguruko azalpenak emateko, nirekin jar daitezke kontaktuan merkatariek zein herritarrek, ruriarte@goiena.eus helbide elektronikora idatzita edota 943 25 05 05 telefonora deituta".



MAIER URANGA
MAITIA DENDAKO MERKATARIA

"Gaur egun, jendeak asko erabiltzen du Internet"

"Merkatari aplikazioa bera ezagutzen hasi behar dugu orain, baina uste dut erabilgarria izan daitekeela herriko denda eta komertzio txikiendako. Egia esan, ni oso ohituta nago Interneteko erremintak erabiltzen, webgunea zein sare sozialak; asko saltzen dut Internetetik, eta sare sozialetan idatzi eta erantzutera ohituta nago, nire egunerokotasunaren parte da. Horregatik, niretako, gauza naturala da, eta ez du aparteko zailtasunik izango *Merkatari* erabiltzeak. Orain, ahalik eta praktikoen izan dadin, erreminta berri hau zabaltzea eta herritarrek ere erabiltzen hasi daitezen tokatzen da. Baina bueno, esan bezala, gaur egun, jendeak asko erabiltzen ditu Internet eta mugikorrekiko aplikazioak, eta nik hori igartzen dut".



JOSE RAMON OTAMENDI
HARAKINA

"Enkarguak egiteko erabilgarria izan daiteke"

"Hau hasi besterik ez da egin, oraintxe jarri baita martxan *Merkatari* aplikazioa, eta joango gara ikusten ze erabilera duen. Noski, halako tresna batek kalterik ez digu egingo; beraz, aurrera. Lagundu baldin badezake, ongietorria izango da. Hortaz, proba egiteko prest gaude gu. Egia da gure kasuan, harategi bat izanik, eta produktu freskoak saltzen dituzten gainontzeko dendetan, oro har, jende asko zer eramango duen pentsatu barik etortzen dela, eta ohitura duela dendan bertan ikusten duenaren arabera aukeratzeko erosi beharrekoa. Baina, adibidez, enkarguak egiteko erabilgarria izan daitekeela uste dut. Hala, bezeroek aplikazioaren bitartez eskaerak egin eta gero bertara jasotzera etortzeko aukera eskaintzen du".



AMAIA ARANZABAL
JOSE ARANZABAL DENDAKOA

"Bezeroekiko feedbacka erraztuko digula uste dut"

"Etzetresnekin eta sukaldeko altzariekin egiten dugu lan guk, eta aplikazio berri hau gurea bezalako komertzio txikiei laguntzeko erabilgarria izan daitekeela uste dut. Azken finean, konfiantzazko bezeroarekin komunikazio zuzenagoa izatea errazten digu guri, eta ohiko bezero horiekin lortutako feedbacka eta harremana handiagoa izatea. Egia esan, orain arte guk ez dugu halakoak erabiltzeko ohitura handirik izan, eta, horregatik, orain, poliki-poliki ikasten joatea tokatzen zaigu, eta herritarrei aplikazio honen berri eman eta hura erabiltzera animatzea. Aste honetan Kulturaten egindako informazio saioetako batean parte hartu dugu, eta gure aldetik, behintzat, animatuta gaude, proba egiteko prest".

HERDUEN HEZIKETA

BERAIEK BEZALAKO PERTSONAK PRESTATZEN DITUGU

18 urte baino gehiago badituzu, ez laga aukera pasatzen. Atera ezazu Bigarren Hezkuntzako Graduatu eta zabal itzazu formatzeko eta lana topatzeko aukerak

BERGARA: Irizar Jauregia, Barrenkale 33. Tel.: 943 76 44 52
Oñati: Larraña Institutoa. San Lorenzo auzoa Tel.: 943 78 35 77
Soraluze: Baltegietan 18 Tel: 943 75 30 17

EZAGUTU GURE ESKAINTZA

- * Bigarren Hezkuntzako titulua lortzeko aukera.
- * Goi Mailako Zikloetara sartzeko prestakuntza.
- * Ingelesa.
- * Frantsesa.
- * Informatika.
- * Euskal Artea.

LAMIN SONKO 33 urte (Gambia)

ETORRI INFORMATZERA ETA BIDERATUKO ZATUGU!

EGBko titulua ez da nahikoa Lanbide Heziketan sartzeko.

Doakoa eta ikastetxe publikoen berme guztiekin.

M^a LOURDES ALBERDI 57 urte (Bergara)

"Koordinazioa behar da seme-alabak hezteko"

JULIA RODRIGUEZ AGIPASEKO GURASOKIDETASUN PSIKOLOGOA

Agipasek, krisi egoeran dauden familiei arreta emateko Gipuzkoako elkarteak, psikologo zerbitzua eskaintzen du hileko lehen martitzenetan Aretxabaletan

Maite Txintxurreta DEBAGOIENA

Julia Rodriguez da Agipaseko psikologoa, eta nahi duenak 666 55 81 95 telefonoan eska dezake harekin hitzordua.

Zertan datza Aretxabaletan eskaintzen duzuen zerbitzua?

Gurasokidetasun programak krisi egoeran dauden familiei ematen die arreta, betiere, umeak daudela tartean. Profil guztiak hartzen ditugu barne: banaketa prozesuan daudenetatik hasi eta familia eredu berrietaraino. Bananduta ez dauden baina seme-alabekin arazoak dituzten familiak ere artatzen ditugu. Zuzenean gurasoekin soilik egiten dugu lan, baina horrek, gero, seme-alabengan izango du eragina.

Iaz otsailean jarri zenuten martxan zerbitzua. Ze erantzun izan du?

Oso ona. Gizarte langileek bideratzen dituzte hona familiak, baina ahoz ahokoak ere funtzionatu du, eta jendea bere kabuz ere etortzen da. Batez beste, zortzi ordutan sei pertsona etortzen dira; gehienak, dibortzio egoeran dauden emakumeak.

Gurasoei kosta egiten zaie umeei esatea banandu egingo direla?

Jendeak azalpen asko eman nahi izaten dizkie umei, eta ez da beharrezkoa. Esan behar zaie gurasoak banandu egingo direla eta aurrerantzean zelakoa



Julia Rodriguez, Iralabarri plazan. M.T.

izango den bizimodua, drama barik eta bata bestearen kontra jarri barik; jarrera oso garrantzitsua da. Ez dugu espero behar segituan ondo hartuko dutenik, prozesu bat izan behar da. Horik aurrera, umeak galderak egiten hasiko dira, eta horiek erantzuten joan beharko dugu.

Nola lortu gurasoen arteko desberdintasunak alde batera lagatzea?

Sarri ikusten den egoera da gurasoetako bakoitzak, banandutako bizia hastean, arau edo agindu kontraesankorrak ematen dizkiela umei. Bietako bat

oso permisiboa bada eta bestea arduratzen bada arauak jarri eta betearazteaz, gerta daiteke umea baten alde jartzea eta besteari kontra egitea. Hortaz, lan bat egin behar da umearen hezkuntza bien artean koordinatzeko eta hari bizitzarako gidalerro etikoa batzuk emateko.

Zenbat iraun dezake egoera naturalizatzeko prozesuak?

Gurasoek nahi duten beste. Bizitza osoan haserre egoteak ez dio faborerik egiten umeari. Zorionez, guraso gehienek esfortzua egiten dute, ez dute itsututa jarraitzen, seme-alaben osasun mentala baitago jokoan. Banaketa prozesu bat gaizki egiten denean, ondorioa seme-alaba diktadoreak izan ohi dira. Errespetatzen ez dutenak, indarkeria darabiltenak, kontsumitzaileak...

Familia eredu berriekin ere lan egiten duzula diozu.

Esaterako, banandu ostean bikotekide berria topatu duten gurasoekin edota bere seme-alabak dituen beste pertsona batekin elkartu direnekin. Egoera konplikatuak dira. Gertatzen da batzuetan gurasoetako baten bikotekide berria gehiegi sartzen dela amaren edo aitaren papelean. Guraso bakoitzak bere semearen edo alabaren ardura hartu behar du.

Ehun komertzio baino gehiago, merkataritza euskaraz eginez

Bergarako Idazlaguna proiektuaren txanpa berrian beste 21 saltokik parte hartuko dute; dagoeneko 120 bat dira

Amaia Txintxurreta BERGARA

Herriko merkataritzan euskarari lehentasuna emateko ahaleginean, Bergarako arropa eta oinetakoen 21 dendak euren erakusleihoetan lau bertso jarri eta aukeran ematen dituzten bertso oinak leku egokian jarri, herri-tarrei bertsoak osatzea proposatu diete, ekainaren 29ra artean.

Hori da Idazlaguna proiektuaren baitan Bergaran asteotan landuko duten ekimena. Hain justu ere, hiruzpalau hilean behin egiten diren halako edo antzerako ekimenen bitartez, herriko merkataritzan euskarari lehentasuna emateko bidean, lortu gura dute herriarrak ere jabetzea hizkuntza paisaiak duen garrantziaz.

Bonuen zozketa

Orain, bada, azken ekimen horretan parte hartzen dutenek bertsoak osatuta eta izen-abize-

nak jarrita, Jardun Euskara Elkartera helarazi beharko dituzte; bulegora bertara joanda, idezlaguna@gmail.com helbidera idatzita edo 605 71 24 69 zenbakira *whatsapp* mezua bidalita.

Hori eginda, parte-hartzaileen artean 60 euroko bonuak zozketatuko dituzte. Are gehiago, bertsoa abestuz bidaliz gero, zozketan bi aldiz sartuko dituzte. Eta horrez gainera, egunotan bertako dendetan erosketaren bat egiten dutenei ere zozketarako txartela emango diete. Zozketa hilaren 30ean egingo dute.

Idazlaguna proiektuaren eta oraingo ekimenaren antolatzailea Jardun da, Bergarako Udalen eta Bedelkarren babesarekin; hala, Udalak adierazi du apustu garbia egiten duela "herriko merkataritza indartzearen alde, eta herriko merkataritza euskaraz egitearen alde".

Goienerekin informazio bulegoa izango du asteartean

Goienerekin, Energia Berriztagarrien Sorkuntza eta Kontsumo Kooperatibak, informazio bulegoa izango du martitzenean, ekainaren 20an, Arrasaten, Ereindajane duen esparruan -Nafarroa etorbidea, 23-. 18:00etatik 20:00ak arte izango dira eskualdeko boluntarioak informazioa ematen: "Kooperatiba ezagutzera emateko infor-

mazio-gune bat izango da, argindarraren fakturaren inguruko dudak azaltzeko, merkaturatzaile aldaketak egiteko...", esplikatu dute.

Orain ez ezik, uztailean ere birritan izango da informazio-gunea: uztailearen 4an eta 18an, azaldutako ordu berean.

Gaur egun, 4.500 bazkide ditu Goieneko kooperatibak. "Bertako kide kontsumitzaileek kontsumitzen duten beste energia berri-iztagarri sortzeko helburua du", besteak beste.



UNITATE MUGATUAK
GAURSAN SOILIK

23

NISSAN
X-TRAIL
UNITATE

GEHIENEZKO

%23

KO
DESKONTUA*



EZ GALDU AUKERA ETA ERAMAN DAUZKAGUN 23 NISSAN X-TRAIL UNITATE MUGATUETAKO BAT %23RAINOKO DESKONTUAREKIN.

GAURSA Gamarrako Atea, 46 A-B 01013 - Vitoria-Gasteiz. Araba - Tel. 945 262 501

Kontsumo mistoa: 4,9 - 6,4 l/100 km. CO₂ isurpenak: 129 - 149 g/km.

*Eskaintza balioduna stock-een dauzkagun ibilgailuentzat soilik, eta indarrean egongo da 2017/06/30 arte. X-Trail-ren eskaintzaren baldintzak kontsultatu (sustapen deskontua). Eman daitekeen gehienezko deskontua ibilgailu bakoitzaren gomendaturiko FAPan Penintsulan eta Balearretan. 3D RCI Banque-ren bidez (kontratua eraberritzea) finantzatzen duten bezero partikularrentzat, enpresentzat eta autonomoentzat.

Autobus zerbitzua egokitu egingo dute

Debagoieneko hainbat udaletako ordezkariekin batzartu, eta eskualderako proposamen berria aurkeztu zien Marisol Garmendiak, Mugikortasuneko foru diputatuak; besteak beste, Eskoriatzatik autobus larregi pasatzen direla partekatu zuten

Ubane Madera DEBAGOIENA

Egunean 265 autobus pasatzen dira Eskoriatzatik, herri barrutik, saihesbidetik edo autobidetik. Eta kopuru hori handiegia dela partekatu zuten Marisol Garmendiarekin, Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako foru-diputatuarekin, astelehenean, Eskoriatzan.

Izan ere, batzarra egin zuten Garmendiak eta Iñaki Pregok –Diputazioko Mugikortasun zuzendaria– eskualdeko hainbat udaletako alkateekin eta zinegotzirekin. "Lurraldebusek Debagoienera duen eskaintza indartu nahi dugu, praktikoagoa eta erakargarriagoa izan dadin", esplikatu zuen diputatuak. "Lineak arrazionalizatzea da helburua", zehaztu zuen Unai Elkorok, Aretxabaletako alkateak eta Debagoieneko Mankomunitateko presidentek. "Badago, adibidez, linea bat pertsona bakarrak erabiltzen duena", ipini zuen adibide modura.

Autobusen abiadura

Hori abiapuntu, Diputazioko ordezkariak proposamen berria aurkeztu zieten udal ordezkariak, oraingo zerbitzuaren erabilera-datuak lagunduta. Eta bertakoek ekarpenak egin zizkieten hari. Orain, ekarpenok aztertu, haien arabera proposamena egokitu eta atzera ere aurkeztuko zaie eskualdeko ordezkariak.

Diputazioko ordezkariak helarazitako ekarpen batzuk aipatze aldera, autobusen abiaduraren gainean jardun zuten: "Kexu handiena da autobusak larregiko abiaduran ibiltzen direla askotan", esplikatu du Elkorok.

Linea zirkularra

Horrekin batera, Eskoriatza eta Zumarraga arteko linea zirkularra aldatzeko proposamena ere izan zuten berbagai.

Hain justu, linea hori Eskoriatzatik abiatu beharrean, Arra-



Prego eta Garmendia, eskualdeko ordezkariak, astelehenean. GIPUZKOAKO DIPUTAZIOA

BERTAKO ORDEZKARIEN EKARPENAK AZTERTUKO DITU ORAIN DIPUTAZIOAK

satetik abiatzea egokiagoa dela uste dute ordezkari guztiak; hortik aurrera, "Arrasatetik hastera ondo ikusten dugu, baina Oñatitik eskatu dugu zerbitzuaren maiztasuna ez txikitzea. Adibidez, zerbitzu zirkularra barik erdi-zirkularra jartzen badute, gu horrekin ados gaude, ze ordu erdian behingo maiztasuna mantendu egingo litzateke", adierazi du Irati Etxeberriak, batzarrean egon zen Oñatiko zinegotziak.

DG03 eta DG04 izenekin, gaur egun Eskoriatzatik irten eta Zumarragarako joan-etorria egiten dute bi zerbitzuok, Legazpitik eta Antzuolatik pasatuta.

Horrela beharrean, linea erdi-zirkularra jarri gero, zerbitzuak honako ibilbide hau izango lukete, Arrasatetik abiatuta, bi kasuetan: Arrasate-Elorregi-Bergara-Antzuola-Deskarga-Zumarraga eta buelta eta

Arrasate-Elorregi-Oñati-Legazpi-Zumarraga eta buelta.

Bergara-Eskoriatza, nagusi

Aukera horien alde eginez gero, Debagoieneko autobus zerbitzu nagusia indartzea da Diputazioaren proposamena; Bergara eta Eskoriatza lotzekoa, alegia.

Bestalde, orokorrean, Arrasate izango da eskualdeko autobus zerbitzuen erdigunea. "Datuek erakusten dute linea guztietako erabiltzaileen %40 inguru Arrasaten igotzen edo jaisten dela; eta ondoren eta bata bestearengandik alde gutxiarekin datoz Bergara eta Aretxabaleta", jakinarazi du Elkorok. "Datu deigarri bat ere eman ziguten: Debagoienera autobusean jende gehien ibiltzen den tarte eguerdia da; eskualde bakarra da ezaugarri hori duena", gaineratu du Debagoieneko Mankomunitateko presidentek.

Batzarrean eskualdeko sei udalerritako ordezkariak izan ziren: Arrasate, Bergara, Oñati, Antzuola, Aretxabaleta eta Eskoriatzakoak. Kasu honetan, Aramaio ez da eskualdean sartzen, eta Elgetan, besteak beste, ez zuten batzarraren berri izan.

Lau debagoiendar, EH Bilduko idazkaritzetarako hautagai

Maider Otamendi, Larraitx Ugarte, Ander Rodriguez eta Nerea Zubia dira aurkeztutako ordezkariak

U.M. DEBAGOIENA

Etxebizitza eta Oinarrizko Eskubideak izeneko idazkaritzarako hautagaia da Maider Otamendi, (Eskoriatza, 1976). Ingeniaria da hura eta gaur egun, EH Bilduko legebiltzarkidea.

Larraitx Ugarte abokatua (Oñati, 1976), berriz, Estatu Eraikuntzarako idazkaritzarako hautagaia da. EH Bilduko legebiltzarkidea, Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramailea izandakoa ere bada.

Haiekin batera, hautagai da, baita ere, Ander Rodriguez Lejarza arrasatearra (1982). Kasu horretan, Politika Sozialak idazkaritzarako. Rodriguez, besteak beste, Gipuzkoako Politika Sozialeko diputatu eta Arrasateko zinegotzi izandakoa da.

Eta azkenik, gaur egun Oñatiko zinegotzia den Nerea Zubia

Blazquez (1983) da Parte-hartzea eta Gobernantza idazkaritzarako hautagaia. Psikopedagogian lizentziaduna da hura.

Euskalduna jauregian

Gainontzeko idazkaritzetarako, Mahai Politikorako eta herrialdeetako arduradun politiko karguetarako hautagaiekin batera aurkeztuko dituzte lau debagoiendarrak bihar, zapatua, EH Bilduren prozesu eratzailearen baitan barne-kargu izan daitezkeen. Besteak beste, guztien gidari izateko Arnaldo Otegi aurkeztu dute, koordinatzaile nagusi.

Bilboko Euskalduna jauregian egingo du EH Bilduk lehenengo kongresua, eta bertan, barne karguak aukeratzeaz gainera, Eztabaidarako Dokumentua eta Estatutuak bozkatzeko dituzte, besteak beste.

Guardia Zibilaren "armagabetzea" irudikatuko dute Oñatin

Guardia Zibila "armagabetu" egingo dela iragarrita eta "Euskal Herri osoa" Oñatira joateko gonbitarekin, bihar, zapatua, iluntzera bitarteko ekitaldiak iragarri dituzte Fan Hemendik egunaren baitan. Bake artisauen azokarekin hasiko dute eguna (11:30), poteoa egingo dute ondoren Ona tabernatik abiatuta (12:00), herri bazkaria gero

(14:30), Sinners-en kontzertua txosnagunean (19:00), manifestazioa eta "armagabetzea" plazatik abiatuta ondoren (20:00) eta amaitzeko kontzertuak, 22:00etan, txosnagunean: Gadafistes Brothers, Erokomeri eta Trapu Zikinak.

"Euskal Herriak horrenbeste desira duen ekimen hau ondo egiten dela ziurtatzeko, Nazioarteko Egiaztatze Batzordeko kide Ram Mannikkalingam Oñatin egongo da", diote, besteak beste.

Arroza prestatuz, integratziorako bidean urratsak egin guran

Arroza aniztasunaren sinbolotzat hartuta, eskualde mailako *Munduko arrozak* ekimena egingo dute Arrasaten uztailaren 8an. Helburua da arroza prestatuz aniztasuna bistaratzea, elkar eza-gutzea eta integratzioa sustatzea. SOS Arrazakeria elkarteak Jokin Ruizek ekimenaren aurkezpenean azaldu zuen arroza baliatuko dela, "munduko leku ezberdinetan era-

biltzen den elikagaia delako". Parte hartzeko ekainaren 23ra arte eman daiteke izena: www. arrasate.eus; Ekin Emakumeen egoitzara deitu –943 79 83 70– edo bertara joanda. 5-10 kideko taldeek parte har dezakete, baina banaka ere eman daiteke izena, eta gero talderen baten sartu.

SOS Arrazakeriak, Ekin Emakumeek, Elkarheztizenez, Arrasateko Helduen Eskolak, IMMEK, Arrasateko Udalak, Gipuzkoako Aldundiak eta Jaurilaritzak antolatutako ekimena da.



ZABALIK

JOXAN LARRAÑAGA

Heriotza, Oñatiko gaia egun hauetan

Bolada larria izan dugu azkeneko bi hilabete hauetan. Eta, horren ondorioz, solasaldi eta komentario ugari entzun izan ditugu jendearen artean: "Denok pasatu behar dugu trantze horretatik".

Heriotzak ez dio adinari begiratzen, ezta ekonomiari, maila sozialari, azalaren koloreari, erlijioari...

Denak pasatu behar dugu hortik.

Iritzi eta sinesmen desberdinak aurkitu daitezke gure gizarte honetan:

- Hil eta kito: harrak jan eta akabo.
- Berreragitea.
- Piztea.
- Eta abar.

Bakoitzak bere iritzia aukeratzen du.

Edozelan ere, ez dakit norberak barneratuta al daukan,

FAMILIA BARRUAN ETA ESKOLAN GAIARI HELDU BEHARKO LITZAIKEELA IRUDITZEN ZAIT

etorkizuna menperatzen duten lorpen moduan hartzen dituzte" (A. Tornos).

Zientzia aldetik mundua eta natura gero eta gehiago menperatzen ari garela esaten zaigu eta mezu hori konturatu gabe sartzen da geure buruan.

Baina galdera honako hau da: menperatzen ote dugu heriotza eta bizitza?

Teknifikatuta dagoen mundu honetan eta hiri giroko munduan heriotzari zaion beldur berri hori ahalik eta gehien ezkutatzten ahalegintzen dira -zaharren egoitzak, ospitaleak, eta abar-.


Ez ote dugu gizatasuna galdu heriotzaren aurrean gizonek eta emakumeek izan duten jarrerarekin?

Ez ote zaigu zaila egiten heriotzari dagokion guztia gure izaera orokorrean integratzea, barneratzea?

Bai familia barruan, baita eskolan ere, gaiari heldu beharko litzaiokeela iruditzen zait.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Turistak

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

[HTTPS://LABUR.EUS/9IQB3](https://labur.eus/9IQB3)

Paseo labur bat eman dut Donostiako Parte Zaharrean barna. Ordu erdian zenbatu ditut bost pentsio, hamar bat *souvenir* denda [...] hamarnaka pintxo ostatu [...] eta dozenaka ingeles, frantses eta identifikatzen ez dakidan beste zenbait hizkuntzako turista.

Gero sartu naiz Interneten, kuriositatez begiratzeko auzo bereko etxeen alokairuen prezioa. Batek 1.790 euro, besteak 1.300, eta baten batek 2.500 hilean ere bai: niretzat ezin ordainduzko kopuruak.

Eta, ea ba... 1.000 eurotik beherako guztiak (gutxienak

840 euro), txikiak izateaz gain, soilik irailetik ekainera erabilgarri (eta iragarkiak espresuki ikasleei zuzenduta).

Ondoren, burura etorri zait han bizi den lagun batek kontatutakoa: txirrina jo izan diotela maiz, haren etxea sekulako milioikaden truke erosteko prest zeudela esanez, eta ea jarriko duen salgai. Eta hark ezetz. [...] Antzeko iragarkiak ikusi izan ditut egunerokoan hartzen dutan autobusaren kristalean itsatsita: *Utziguzu zeure etxea, eta zuk inolako tramiterik egin behar izan gabe jarriko dizugu alokagai*.

Notizia bat ere irakurri nuen, Gipuzkoako hiriburuan beste hamalau hotel eraikiko

dituztela dioena. Horietako bost eraikitze bidean edo eginak, eta besteen lizentziak emanak. Gogoan ditut Aste Santuan komunikabideetan aditutako esaldi loriatsuak ere: bete egin direla gela guztiak, eta horrek "aberastasuna" ekarriko duela Euskal Herrira.

Batzuk agian harrituko dira *Tourists Go Home* pintaketak irakurtzeagatik hiriko paretetan, edota etxeak eta hotelak okupatzeagatik sinbolikoki zein bizitzeko.

Baina jar zaitezte Donostialdeko [...] gazte baten azalean: lan prekario baten pean, etxetik alde egin ezinik, nik hori eta gehiago ere egingen nuke.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea
Amaia Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Ubane Madera, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna Marta Leturia.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

PROTAGONISTA

"Aitortza honen atzean, pertsona askoren lana dago"

INES AZPIAZU ARRASATE ESKUBALOIKO PRESIDENTEA

Mireia Bikuña ARRASATE

Gipuzkoako Eskubaloiko Federazioak lehen aldiz egin du denboraldiko sariak eta aipamenak banatzeko gala. Eta han banatu ditu zilarrezko bi intsignia. Horietako bat Arrasate Eskubaloiko presidente Ines Azpiazurendako izan da.

"Eskubaloiarekiko erakutsitako pasioarengatik" saritu zaituzte. Pozik zaude?

Ezustea izan da guretzat. Federazioko presidente berriak lan egiteko modu berriak ekarri ditu eta aitortza hau asko eskertzen dugu. Bereziki, Donostialdetik harago, Debagoienean, adibidez, eskubaloia alde lan handia egiten dela ezagutarazteko balio duelako. **Klubari indarra ematen dio honek?**

Bai. Aitortza orain dator eta nik jaso dut presidente moduan, baina sari honen atzean, pertsona askoren lana dago: Agustin Rodriguez, Juan Luis Isasmendi, Andoni



Arrasate Eskubaloiko presidente Ines Azpiazu. GOIENA

Arando... Eta, hasierako urteetan, Josean Aranburuzabala, Mariano Arrieta... Hortaz, saria guztiona da. Urte askoan dihardugu gogor lanean. Arrasate Eskubaloin,

aspalditik, balioak lantzen ditugu, eta erreferente izan gara, eta oraindik ere bagara. **Umiltasunez, eskubaloia zabaldu gura duzue.** Bai, eta harro gaude egiten dugun lanarekin. Futbole

edo beste kirolen batean jokatu gura ez dutenei, beste aukera bat ematen diegu. Bide hori elkarrekin egiten dugu. Elkartasuna, errespetua, lagunartea... Balio horiek lantzen ditugu. Noski, lehiakortasuna ez dugu ahazten. Balio sendoekin, lehiakor izan gura dugu.

Halako aitortzeki lanean jarraitzeko indarra ematen dute?

Bai. Denboraldi bakoitza istorio berri bat da. Diru laguntzak, jokalariek, entrenatzaileak... Klub txikia gara eta ahal dugun moduan bizirik irauten dugu. Zorionez, aurretik egiten den lan horrek fruituak ematen ditu.

Klubetik pasa diren jokalariekin eta arduradunekin dudan hartu-eman da benetako saria. Edo, egungo jokalariek animatzera joaten naizenean, euren gandik jasotzen dudana maitasuna.

Osasuntsu dago Arrasateko eskubaloia?

Bai. Oso urte onak bizi izan ditugu Lehen Nazional Mailan. Talde sendoarekin, punta-puntan ibili gara. Baina ziklo aldaketa etorri zen, eta orain, harrobiarekin lanean dihardugu. Ez dakigu haren moduko talderik izango dugun berriro, baina horrek ez gaitu itsutzen.

HAU BE BADOGU!

Atutxa, Knörr eta Bilbaori, arrazoia



Europako auzitegiak Espainia zigortu du Legebiltzarreko kideei bidezko epaiketa bat izateko eskubidea ez bermatzeagatik. Atutxa Legebiltzarreko presidente eta Bilbao eta Knörr mahaiko kide ohien kontra zabalduak auzian akusatuei euren burua defendatzeko aukerarik ez emateagatik zigortu dute Espainia, eta sare sozialetan hizpide izan da gaia.

'#Herriabizirik' traola 'trending topic'



"Gazteak postalen atzean" daudela salatzeak, "bizirik dagoen herria" aldarrikatu dute Ernaiko hainbat kidek, turista moztorra jantzita, Guggenheim museoa.

@end1ka: "Postalen atzean bagara. Turismo basatiak dakarren prekarizazioa salatu du Ernaik #HerriaBizirik".

@sagastaneku: "Inposatu nahi diguten postal prekarioaren aurrean #HerriaBizirik, bai horixe!".

Espainiako Gortetan zentsura-mozioa

Hizpide izan da asteon, sare sozialetan, batez ere, Madril, Kongresuan, Unidos Podemos koalizioak aurkeztutako zentsura-mozioa. Mozioak ez du aurrera egin, EH Bilduren eta ERCren babesa bakarrik izan duelako, baina sare sozialetan hainbat eta hainbat iruzkin utzi ditu. Euskal Herrian ere *trending topic* bilakatu zen gaia, baita Mariano Rajoyren eta Pablo Iglesiasen arteko ika-mikak.

ITURRI ONETIK

Willis Drummond Oñatin izango da

Geroago eta gertuago dago Kilometroak 2017 ospakizuna. Eta horren adierazle da jaiaren antolatzaileek dagoeneko dena lotuta daukatela; horietako batek, gainera, ikus-entzule ugari erakarriko ditu, rock musika talde entzutetsua izango da eta Kilometroak 2017ko azken kontzertua eskainiko duena: Willis Drummond talde baionarra. Haiekin batera, hori bai, taula partekatuko dute, besteak beste, Oñatiko Herstura eta Sharon Stoner eta Arrasateko Arkada Social musika taldeek.

GORA ETA BEHERA



Aste Zapatistaren pankarta kendu egin dute

Eskoriatzan Aste Zapatista dute oraingo hau. Udalerrri horretan, halako eta bestelako ekintzak –ezkontza agurrak, adibidez– iragartzeko, ohitura dute herri sarrerako zubia baliatzeko. Eta oraingo aste hasieran ere hala egin zuten Aste Zapatista dela gogora ekartzeko. Baina, kexua helarazi dute jakinarazteko egun batetik bestera, pankarta hori zubitik kendu egin duela norbaitek.



IMANOL BELOKI

Futbola, bai ala ez?

MIKEL KEREXETA KORTABARRIA

ANTZUOLA KIROL ELKARTEKO
PRESIDENTEA
ANTZUOLA

Ondorengo lerroak irakurri aurretik, badaezpada, idazlearen profila zein den kontuan hartu: futbolean oso txarra izandakoa, arauak ulertu justu eta bihotza zuri-gorria. Kuadrillan ziklistak, pilotariak, korrikalariak, "- futbol + carreras" esaldiarekin bat zetozenak eta futbolean epe motzean aritutako bakarra. Bi futbolariren aita eta Antzuola Kirol Elkarteko (AKE) presidentea. "Profil honekin presidentea, nola?", galdezka ari zara, ezta? Ni neu ere bai!

Futbol galaktikoari ematen zaion lilurak askotan itsutu egiten gaitu eta beste era bateko ereduak bistartzeko zailtasunak ditugu.

Dena zaku berean sartu eta analisirik egin gabe iritzi ematera ohituta gaude. Bai edo ez, ez dago beste ezertarako lekurik.

AKEk futbola aitzakia hartuta herrian bertan talde kirola egin eta disfrutatzeke modua eskaintzen du. Auzolanean eginko eredu propioke proiektua da. Galaktikotik ez du ezer, oso lurtarra da!

AKEren hasiera, gehienetan gertatzen den moduan, posible zela amestu zuten zoro batzuen buruan egon zen. Ofizialtasuna, geroago, 1993-94 denboraldian, Bigarren Erregional Mailan, kamiseta

gorriarekin lehiatzen hasi zen taldeak eman zion.

Urteak pasa dira, eta, aldaketa dezente egon badira ere, hor jarraitzen dute jokalariek, gurasoek, bazkideek, batzordekideek, babesleek, laguntzaileek, meza ondorengo boleto erosleek, futbolerok, kontrakoek, AKEren kudeaketarekin kritikoe... Guzti-guztion artean AKE sustraitu eta proiektu sendo eta jasangarri bihurtu dugu.

Bi gurasok denboraldi hasieran futbol eskola sortu, eta, euren burua futbolaren kontrakoa izanik, seme-alabei jarraitu beharrean aurkitu eta kexaka ziren. Guraso hauek, larunbatean, AKE festan ikusi besterik ez zegoen! Gorriz jantzita eta AKEren eredu defendatzen zera entzun nien: "Hau ez dok futbola! Hau la ostia dok!". Izan ere, Erregional Mailako jokalariek zeramaten kamisetetan irakurri zitekeen moduan, AKE futbol taldea baino askoz gehiago da!

Beraz, futbola bai edo ez, hori galdetzea merezi al du?

Segi dezagun herri proiektua den AKE garatzen eta handitzen. Lan egiteko eredu indartuz helburuen lorpena eta mugariak gainditzea ekarriko du. Hastapeneko futbol-ero haiek izan zituzten ametsak berritu eta gauzatzeke!

Besarkada goxo bana AKE sortu eta egunero jaten eman diozuen guztioi, ondoren etorriko zaretenoi, Pablitori eta bidelagun dudak Nekaneri.

Deskalkifikazioak

JOSE ANTONIO AMUNDARAIN ETA ALBERTO ETXEBERRIA OÑATI

Harrigarria, baina ez ustekabekoa, Lourdes Idoiagak eman duen azalpena komunikabideen aurrean; bi hitzekin baloratzen du Oñatiko Udalean EH Bilduk daraman lan guztia: inposizioa eta inprobisazioa.

Askotan esan izanaren poderioz sinesgarritasuna aspaldian galdu zuten hitzak dira horiek, herrian ez dago inongo arrazoirik Idoiagak planteatzen duen egoera deskribatzeko. Beste gauza bat da berari eta PNVri ez zaiela interesatzen EH Bildu egiten ari den lana. Hori dela eta, kexa eta zalaparta ateratzea komeni zaie komunikabideen oihartzuna baliatuz.

Gobernuan eta agintean dagoenak erabakiak hartu behar ditu, Lourdes Idoiagak berak lehen hartzen zituen bezala eta orain ahal balu hartuko lituzkeen bezala, baina ez dezala alkatea eta bere taldea egiten ari diren lana *agintekeria* (inposizioa) hitzarekin zikindu.

PNV asko maite duen beste hitza *inprobisazioa* da. Lourdes Idoiagak ere sarri erabiltzen du, ez dago EH Bilduren kontra egiteko bi hitz horiek baino sendabelar egokiagorik. Horren harira, gogorarazi bakarrik, herri programan oinarritutako eta lege gintzaldi hasieran aurkeztutako lau urteko plangintza jarraituz lan egiten duela Udala Gobernuak.

Nahita edo nahi gabe, Oñatin elkarbizitza okertzeko beste ariketa bat gehiago izan da PNVk eta Lourdes Idoiagak egindakoa. Titularra ematen dioten PNVren hitz horien gainetik, ordea, Oñatiko herrian eta herritarrekin batera lana sendo eta ugari egiten ari den alkate eta zinegotzi taldea dauzkagu eta haiek erantzungo diote herriari bere ekintzekin, orain arte egin duten bezala.

Garbiketa ideologikoa Bergaran

IBAI REDONDO ETA IÑIGO AKAITURRI BERGARAKO SORTU BERGARA

Hijo de puta; Se vende; Hemen ezin da pilotan eta baloiarekin jolastu; Comeme la polla; Bihar 8etatik-12etara ur mozketa egongo da Irizar kalean...

Horrelako ehunka kartel eta pintada aurkituko dituzu Bergarako kaleetako paretetan. *Gaztelu Etxera; Eraso sexistarik ez; Errekaleor bizirik; Maiatzak 1 kalera...* bezalakoak aurkitzea, berriz, zail egingo zaizu. Zergatik? Bergarako Udala erabaki duelako gai politiko edo sozialei buruzko kartel eta pankartak Bergarako kaleetatik kentzea. Bergarako jaietan, adibidez, ez dute egun bat ere iraun, Bergarako Udala Gobernuaren (PNV-PSOE) obsesio bilakatu direlako. Udala langileek adierazi digutenez, Udala Gobernuak arduradunek kartel politiko eta sozialak kentzeko agindua ematen diete behin eta berriz. Herriko

kaleak eta, bereziki, kontenedore inguruak zaborrez gainezka daudenean, Udalaren kezka nagusia kartel eta pankartak izatea lotsagarria iruditzen zaigu.

Zergatik gertatzen da hau? Oso argi daukagu, Bergarako Udala ez ditu nahi aldarrikapen politiko eta sozialak kaleetan, berauen aurka dagoelako eta herri aldarrikapenei beldur dielako. Are gehiago, Bergarako Udala herriko kaleak hutsik nahi ditu. Kartel edo aldarrikapenez gain, Bergaran gero eta zailagoa da ezer antolatzea, Udalaren hamaika oztopo gaintitu behar direlako. Bergarako Udala herritar eta eragile aktiboentzat izugarritzko oztopo bilakatu da, hori ari gara ikusten eta sufritzen kalean gauzak antolatzen saiatzen garenak: hezkuntza jaiak antolatzeke hamaika traba; taberna edo komertzioek kalean ekintzak antolatzeke oztopoak; ekitaldi politiko edo ekintza sozialak egiteke ezintasunak...

Honen guztiaren helburua da aldarrikapen politiko eta sozialak herriko kaleetatik desagertzea, baina, aldi berean, herriko giroa, kale giroa bera ere kaltetzen ari da Udala Gobernuak, Udala ez duelako ia ganorazko ezer antolatzen eta herritarrei ez dielako uzten. Gu ez gaude etsitzeko prest eta, Bergarako jaietan ikusi dugun bezala, beste asko ere ez. Udalaren oztopo eta traben gainetik Bergara alai, bizi eta aldarrikapenez betea egiten jarraituko dugu!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefona eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteke bideak: Oñalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

SANJUANAK ZUZENEAN!

MAKALAREN IGOERA, ERREMENTARI DANTZA, SAN JUAN SUA ETA DANBORRADA ZUZEN-ZUZENEAN

- PLAZAKO PANTAILA ERRALDOIAN
- STREAMING BIDEZ *GOIENA.EUS*-EN ETA *ARRASATE.EUS*-EN.
- GOIENA TELEBISTAN

EKAINAK 23, OSTIRALA

18:00ETAN MAKALAREN IGOERA

21:30EAN ERREMENTARI DANTZA, SAN JUAN SUA ETA DANBORRADA

goiena
ZU HEMEN ZAUDE





Arrasateko EH Bilduko kide gehienak, martitzenean Pablo Urangako egoitzan egindako agerraldian. XABI GOROSTIDI

"Azal garestien eta argazkien" agintaldia

Berba horiek erabili ditu EH Bilduk, EAJ eta PSE-EE koalizioak gobernuan daramatzan bi urteak definitzeko. Oihartzun mediatikoan zentratzea eta gazteria, berdintasun turismo, kultura eta ingurumen arloetan "ekimenik eza" kritikatu ditu

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Argazkien legealdia izan da lehen bi urte hauetan, promozio behar itsuarekin. Baliteke XXI. mendea irudiaren aroa izatea, baina azalak behar du mamirik. Saldu kea eta airea ere sal liteke, baina hori etorkizunerako gosea da", adierazi du Eneko Barberenak.

"Mami" falta hori, besteak beste, honako esparru hauetan igarri du EH Bilduk: gazteria, turismoa, hezkuntza, berdintasuna, kultura eta ingurumena.

Kulturari dagokionez, zera kritikatu dute Kulturola proiektuaren inguruan: "Bost edo sei milioiko eraikinak egitea planifikatu da, espazio horien erabilera hausnartu gabe. Eta hori iragartzeaz gain, zer beste ekin-tza egin du Udal Gobernuak kulturaren alorrean?"

Turismoan, aldiz, egin duten gauza bakarra "Arrasateko herriak frogatutako eta baztertutako Erdi Aroko azokak antolatzea" izan dela azaldu zuten,

eta teknologia berrien arloan Biterin wifi konexioa jartzea besterik ez dutela egin esan zuten.

"Oinordetza suntsitzen"

EH Bilduren ustez, EAJ eta PSE-EE koalizioa eurek aurretik utzitako oinordetza suntsitzen tematu zen agintaldiko lehen sei hilabeteetan. Adibide gisa jarri dituzte aurrez herritarren parte hartze prozesu bidez erabakitako bidegorria, azoka, elkarleen arteko elkarlana eta hileta zibilak egiteko leku duina bertan behera utzi izana.

Zikintasuna

Duela gutxi zabalduetako oharrean bezala, garbiketa orde-

"BALITEKE XXI. MENDEA IRUDIEN AROA IZATEA, BAINA AZALAK BEHAR DU MAMIRIK"

nantza berria onartu arren kaleek zikin jarraitzen dutela salatu dute.

"Garbitasunaren izenean egin omen dute lan, izen bereko ordenantza ponposoa sortuz, baina karteekin, pintadekin eta pegatinekin itsuturik daudenez, bitartean, herria zikin dago; jaien ostean, igandeetan, edo alde zaharreko hainbat kaletan".

Datozen bi urteetara begira

Legealdia amaitu bitartean batzordeetan, osoko bilkuretan eta aurrekontuetan lanean jarraituko dutela adierazi du Eneko Barberenak.

"Oposizioa eginez arrasatearren bizitza hobetzea izango da gure helburua, betiere, Euskal Herri libre baten iparrean. Badakigu eragile eta herritar asko ez daudela pozik gobernuaren egitekoarekin. Ezin gara etsipenean erori. Arrasatek merezi du herritar eta eragile guztion lana eta ekarpena, eta horri sustengua emango diogu".



Garai, Ezkurra, Mendieta eta Artola, jaietako egitaraua esku artean dutela. A. VITORIA

Adin guztietarako ekintzekin, ate joka datoz San Juan jaiak

Arlo gastronomikoak berebiziko garrantzia izango du eta eraso sexistarik gabeko festak izatea espero dute

X.G. ARRASATE

Askotariko ekintzaz betetako egitaraua prestatu dute udal ordezkariak eta txosna batzordeko kideek 2017ko San Juan jaietara begira.

Aurkezpen ekitaldian, egitarauari buruzko xehetasunak eman dituzte EAJko Anuska Ezkurra eta Juan Ramon Mendieta, AEDko Itxaro Artolak eta Kultura Saileko Jon Garai teknikariak.

Egitaraua prestatzeko orduan, adin guztietako arrasatearren-tzat ekintzak egiteko helburuarekin egin dute lan. "Gazteengan

duen arrakasta ikusita, *Goazen*-ekoen ikuskizuna ekarri dugu, eta Esne Beltza eta Mikel Urdangarin bezalako musikari ezagunak ere bai. Sanjuanetan ezinezkoa zenez, txikientzat Pirritx eta Porrotxen ikuskizuna programatu dugu uztailaren 2rako", adierazi du Jon Garaik.

Arlo gastronomikoari dagokionez, 23ko gazte-bazkariak, dragoi-janak eta *Zuk iñ, zuk jan* herri bazkariak pisu nabaria izango dute, eta eraso sexistarik gabeko festak izateko desioa adierazi dute aurkezpen prentsaurrekoan.



MIRARI ALTUBE

Arizmendi Ikastolako eguna

Aurreko egubakoitzean Arizmendi Ikastolaren jaiaren epizentro bilakatu zen Biteri. Askotariko ekintzak egin zituzten bertan, ikasleen parte hartze handiarekin. Ez zen ezer falta izan; ikuskizun musikalak, jolasak, puzgarriak, eta, irudian ikusten denez, baita aurpegia margotzeko tailerrak ere, eta ikasleak, gurasoak eta irakasleak primeran aritu ziren.



Enplegu Saileko teknikari Marga Garmendia eta bertako buru den Juan Karlos Garitano, alkatea erdian dutela. A. TXINTXURRETA

Enpleguari bultzada emateko lau lan-ildo

Herriko 70 langabe kontratatze laguntzak emateaz gain, Udal Gobernuak lan zuzena eman nahi die beste hogeiri. Lau neurrien barruan, bazterte egoeran daudenek jabego publikoko lurretan nekazaritza jarduerak egiteko ekimena dago

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasateko Udaleko Enplegu Sailak, agintaldiko lehenengo bi urteetan egindakoak plaza-ratzeko eta egun dituen lan-ildok azaltzeko, agerraldia egin du aste honetan.

Langabezia, hiru puntu behera

Emandako datuen artean lehena 2015etik 2017ra Arrasateko langabezia tasa %15,54 izatetik %12,18koa izatera pasa dela izan zen. 2017ko martxoko datuei erreparatuta, 1.315 langabe zeuden herrian; ia erdia (%48,84), 45 urtetik gorakoak.

Arazo horri aurre egiteko enplegua sortzera bideratutako diru-poltsa bi urtean %10 han-

ditu dutela nabarmendu zuen Maria Ubarretxenak. "2015ean 793.094 euro zen eta aurten, aldiz, 880.619 euro. Horrez gain, azken bi urteetan langabe bakoitzeko Udalak bideratzen duen dirua 489 euro izatetik 657 euro izatera pasa da".

Partida horretako ekintzen artean, Udalak herriko hoge langile zuzenean kontratatze 384.600 erabiliko dituela azpimarratu zuten.

Horrez gain, herriko enpresetan Arrasateko langabeak kontratatze diru laguntzei dago-kienez, 70 kontratu finantzatzeko laguntzeko asmoa daukatela adierazi zuten, horretarako 160.250 euro bideratuta.

Lau lan ildo berri

Asteartean egindako agerraldian, Enplegu Sailean martxan jarritako lau lan-ildoren berri eman zuen Juan Karlos Garitano, Enplegu Saileko buruak.

Horietako lehena herriko enpresa txikietara egiten ari diren bisitak dira. Egubakoitzero egiten dituzte, eta jada bederatzi egin dituzte. Bi helburu nagusi dituzte bisita horiek: alde bate-tik, Udalaren enplegu programak aurkeztea; eta bestetik, enpresen errealitateak ezagutzea.

"Euren beharrak jaso, ikusi eta Udalean martxan ditugun programak erakustea da asmoa, gure planteamenduak benetan euren beharretara egokitzen

diren edo ez ikusteko. Hala, beharrezkoak diren kasuetan gure programak moldatu ditza-kegu, eraginkorragoak eta la-gungarriagoak izateko", azaldu du Garitano.

Bigarrena udal lurretan neka-zarritza jarduerak jartzeko egi-tasmoa da, horretarako, bazter-keria egoeran edo lana aurki-tzeko zailtasunak dituzten per-tsonak kontratatuta. Horren baitan, Neikerren eskutik hasi dira aztertzen zein aktibitate ekonomiko aktibatu ahal izango liratekeen Udalak dituen lur publikoak erabiliz. Honela azal-du zuen Enplegu Saileko buru Juan Karlos Garitano zein as-mok bultzatuta jarri duten mar-txan ekimena. "Horren helburua da lehen sektoreko jarduera batekin baliatuta, *zero kilometro* eta ekonomia zirkularra ardatz duen proiektua garatzea, baz-terte egoeran daudenekin eta lan mundura salto egiteko zail-tasunak dituztenekin, horien laneratzea bultzatzeko".

Hirugarrena langileak enpre-sen beharrei erantzuteko gai izateko formazio plan bat da eta laugarrena, aldiz, enpresa be-rriak Arrasatera erakartzeko Ekai Center aholkularitza en-presarekin elkarlanean garatzen ari diren plana da.

1.306 enpresa Arrasaten

Enplegu Sailak emandako in-formazioaren arabera, Arrasaten 1.306 enpresa daude eta horie-tatik 1.214k (%93) bederatzi lan-gile edo gutxiago dituzte.

Horien artean, gehiengo zero eta bi langile artean dituzten enpresak dira: 938, hain zuzen. Hiru eta bost langile artean di-tuztenak 206 dira eta sei eta bederatzi langile dituztenak, berriz, 70 dira.

Ekaineko baserriarren azoka antzerkiarekin dator

Zapato honetan, hileko hiruga-rren zapatuetako ohiturarekin bat eginez, eskualdeko baserri-tarren produktuak erosteko au-dera izango da Seber Altubena.

Antzerki eta guzti

Nerea Lazpiur Debagoieneko Toki Garapeneko teknikariak azaldu duenez, hileroko ekintza osagarri bat egiten saiatzen dira, azokak puntu dinamikoagoa izan dezan. "Oraingo honetan, Debagoia Landa Garapenaren eta Debagoieneko Turismoaren ekimenez, kale antzerkia egingo du Bapatean taldeak".

Garai On Naturartearen loka-lean entseatzen dute eta *Base-rriko porrusalda* izeneko ikus-kizuna eskainiko dute.

Hamabost postu

Debagoieneko hamaika eta kan-potik etorritako beste lau postu jarriko dituzte. Garaiko baraz-kiak, okela ekologikoa eta egu-rrarekin landutako tresnak izango dira, besteak beste.

1965ean jaioetakoen bazkarirako izena emateko deia

Aurten 52 urte beteko dituztenek irailaren 16an egingo dute hi-rugarren kintada.

Bertara joan nahi dutenek 3035 0055 17 0551058385 kontuan 60 euroko diru sarrera egin behar-ko dute uztailaren 9a baino lehen, betiere, norberaren izena jarritz.

Antolatzaileek adinkideak ani-matu nahi dituzte, ahalik eta gehien izate aldera.

Sagardo garaia amaituta, erretegi moduan orain.

UDAKO MENUAK

Karta.
Plater konbinatuak gauean.

Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa /Aramaio
945 445 385 685 721 593
iturrietasagardotegia.blogspot.com

ISLADA BARBERIA

Tarifak

Umeak 5 urtera arte	6 €
Erretiratuak	7 €
Gizonezkoak	8 €
Bizarra moztea	5 €

ORDUTEGIA ASTELEHENETIK ZAPATURA 09:00 - 14:00 IGANDEETAN
16:00 - 20:00 ITXITA
Uribarri etorbidea 16, behea
ARRASATE 632 18 45 30

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

"Martxak enbrage gabe sartzen amaitu nuen"

XABI FERNANDEZ 'PURITO' AUTO GIDARIA

Bikain ekin zion Race Turismos denboraldiari, eta, aurreko asteburuko emaitzei esker, matematikoki irabazle da, txapelketa amaitzeko bi lasterketaren faltan

Xabi Gorostidi ARRASATE

Jaramako zirkuituan egindako sei lasterketetan erregulartasun erakustaldi itzela egin du Xabi Fernandez *Purito*-k. Denboraldi hasieran iazko emaitzak hobetzeko baldintzak zituela esan zuen, eta ez du kalerik egin.

Bi lasterketaren faltan, lehen postua poltsikoan daukazu; zorionak! Aurten, primeran atera dira lasterketak, oso maila onean aritu gara. Lehen asteburuan lidergoan jarri nintzen, eta, lasterketa guztietan podiumetik jaitsi gabe aritu naizenez, erregulartasunak eman ditu fruituak. Irailean txapelketako azken bi lasterketak jokatu dira, baina, horietan puntuatu gabe ere, lehen postuari eutsiko diogu.

Beraz, iazko amesgaiztoa ez da errepikatuko?

Iaz bi probaren faltan lehena nintzen, baina azken asteburuko lehen lasterketaren aurretik izandako arazo mekaniko batek aurreko sei lasterketetako lana pikutara bota zuen. Aurten ez dut apenas arazorik izan. Nire aurkariak bat edo beste izan dute, eta horrek eragin du, hein batean, bi lasterketaren faltan matematikoki garaile izatea.

Nola joan da azken aste bukaera?

Bero itzela egin du. Auto barruan tenperatura 65 gradukoa zen, eta autoan zerbait erretzen zebilen sentazioa neukan une askotan. Klasifikazioan bigarren denborarik onena egin nuen, eta lehenengo lasterketan bigarren geratu nintzen larrialdi handirik gabe.

Azken lasterketan arazo mekanikoekin estu ibili zinen, ezta?

Beroaren eraginez arazoak agertzen hasi ziren. Lehenik, balaztak. Ezin nuen nahi nuen lekuan frenatu eta bihurtu batzuetan luze joaten nintzen. Eta hiru itzulirentzat, enbrage gabe geratu nintzen. Azeleragailuari une konkretu batzuetan kolpeak emanez martxak sar daitezke, baina denbora luzea galtzen da. Beraz, hirugarrenarekiko nuen abantaila xahutu nuen, eta azken itzulietan tapoi lanak egin nituen bigarren geratzeko.

Sei probatan bi lehen postu, hiru bigarren eta hirugarren bat. Horri bi *pole* gehitu behar zaizkio. Ezin gehiago eskatu...

Ez nuen espero hain goiz txapeldun izatea, baina hala da. Nire ustez, bi faktore klabe dauka aurtengo errendimendu ona

baldintzatu dutenak. Lehenik eta behin, aurten ekipamendu aldetik prestatuago egon gara, babesleen ekarpenei esker, eta, bestalde, iaz baino esperientzia handiagoarekin ekion diogu txapelketari. Asko ikasi dut nire aurkariengandik, Espainia mailan goialdean aritu diren pilotuak direlako.

Arrasateko Kirol Sariak banatuko dituzte gaur

Herriko klubek kirolari-zerrenda zabal baten artean aukeratu dute euren ustez urteko onena nor izan den

X.G. ARRASATE

Arrasateko kirol talde gehienek amaitu dute jada aurtengo denboraldia, eta, momentu hori aprobetxatuz, urteko kirolari onena aukeratzeko tartetxoak ere hartu dute.


Hamasei kirolariren artean

Herriko kirol kazetariak hamasei arrasatearrez osatutako zerrenda egin dute, eta hauek dira hautagaiak: Eneko Carrascal luzera-jauziko atleta, Mondra Futbol Taldea, Dragoi Gimnasia Taldea, Xabi Fernandez *Purito*

auto gidaria, Istar Dapena pertika-jauzilaria, Arrasate Rugby Taldea, Ander Ruiz Mondrako kapitain eta atezaina, Josu Herrero eskubaloio jokalaria, Malen Ruiz de Azua pertika-jauzilaria, Iñigo Uribarren atleta, Aitor Lasagabaster karateka, Irene Murua saskibaloio jokalaria, Xubane Garai txirrindularia eta Mikel Gonzalez futbolaria.

Iazko irabazle Malen Ruiz de Azuaren lekukoa hartzeko ekitaldia 18:00etan izango da, osoko bilkura aretoan, eta kirol ibilbidearen saria ere banatuko dute.

BASERRITARREN AZOKA ETA KALE ANTZERKIA



Ekainak 17
zapatua

Arrasateko Seber Altube plazan (08:00 - 14:30)



Kale Antzerkia

"Baserriko Porrusalda" Serber Altube plaza (12:00)



Xabi Fernandez, Seat Leon autoarekin, boxean. VIVI GARCIA (AUTOHEBDO SPORT)



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON





Iazko Haur Dantzarien Egunak utzitako irudi polit bat. GOIENA

Herriko kaleak, haur dantzarien erakustoki

Domekan Euskal Herri osotik etorritako 240 gaztetxo inguru batuko dira Arrasaten, Haur Dantzarien Egunean. Goizean kalejira egingo dute herriko kaleak euren dantzekin alaituz, eta bazkalostean Herriko Plazan jarraituko dute

Xabi Gorostidi ARRASATE

Beste urte batez, Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeek Haur Dantzarien Eguna antolatu dute, domekan eskualdeko eta Euskal Herritik etorritako dantzariak Arrasatera ekartzeko.

240 haur inguru

Iazko zifraren antzera, aurren ere hamar dantza talde eta 240 haur dantzari arituko dira Arrasateko kaleetan zehar euren trebeziak erakusten.

Debagoieneko talde hauek izango dira etzi: Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz, Aretxabaletako Leizarra, Antzuolako Oinarin, Aramaioko Lagun-artean, Bergarako Moises Aspiazu eta Soraluzeko Ametsa, hain zuzen ere.

Urrunagotik etorritakoak ere izango dira, hala nola Gipuzkoatik Oiartzungo Elizalde dantza taldea, Bizkaitik Markina-Xemeingo Zerutxu dantza taldea eta Nafarroatik Iruñeko dantza

Domekarako egitaraua

- **10:00** Zaldibarren kalejiraren hasiera.
- **11:00** Hamaiketako Herriko Plazan.
- **11:30** Goizeko alardea: dantzak Arbolapetan, Seber Altuben, Herriko Plazan eta Biterin.
- **17:15** Arratsaldeko alardea Herriko Plazan.
- **18:30** Larrain dantza herrikoa.
- **19:00** Gauargi erromeria.

HAMAR DANTZA TALDE ETA 240 HAUR INGURU IBILIKO DIRA ARRASATEKO KALEETAN ZEHA

taldea. Guztiak aurretik Arrasaten izandakoak, eta errepikatzeo gogoz datoz.

Dantzak, goiz eta arratsalde

Dantzari guztiak Zaldibarren elkartuko dira eta jarraian kalejiraxoa hasiko dute. Hamaiketako egin ostean, 11:30ean goizeko alardeari ekingo diote, eta, besteak beste, Arbolapetan, Seber Altuben, Herriko Plazan eta Biterin egingo dute dantza hamar taldeetako ordezkariak.

Goiz parteko esfortzuaren ondoren, tradizioari jarraipena emanez, kanpotik etorritako dantzariak Arrasateko dantzarien etxe eta elkarte gastronomikoetan bazkalduko dute, eta 17:15ean ekingo diote arratsaldeko alardeari. Behin azken erakustaldiak eginda, larrain dantza herrikoa hasiko da, 18:30 aldera.

Amaitzeko, dantzarako gogoz geratu direnentzat, Gauargi erromeriaren emanaldia izango da, 19:00etan.



NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE

Bidean

Joan den zapatuan, Debagoieneko Caritasek *Bidean* proiekturako gune berri bat zabaldu zuen. *Bidean* izena darama, zeren, oraindik orain, gure gizarte honetan badaude gizon eta emakume asko bazterrean gelditzen direnak. Gizartearen baitan, ekonomia nagusi dela, bazterkeria indarrean dago, eta, nahi eta nahi ez, gertatzen da. Pertsona horien eta beraien dramaren berri, askotxo dakigu Caritasen jarduten garenok. Gizarte zuzenago baten alde borrokak aurrera jarraitzen duen bitartean, bazterrean aurkitzen diren pertsonak bidean sartu behar ditugu. Ez arrastotan, baizik duintasunera eta askatasunera eramango dituzten prozesuetan.

Debagoienean, bazterkeria ekonomikoari, alboratze kulturala ere gaineratu behar diogu. Egoera honek kultur aniztasuna lantzea eraman gaitu, etorkin berriekin Euskal Herri berria izango denaren *Bidean* pausoak ematen hasteko. *Utopia* hitzak grekoz *lekurik ez daukana*, *inon aurkitzen ez dena* esan nahi du. Utopiaren bultzadaz, eskuzabaltasunez eta justiziaz, eraiki dezagun anaitasuna!

Arrasate Musikalen kurtso amaierako kontzertua gaur

Urte osoan ikasitakoak jendarean erakusteko emanaldia egingo dute gaur Arrasate Musikaleko ikasleek. Hain zuzen ere, Amaia Udal Antzokian izango da, arratsaldeko sei eta erdietan.

Bertan, talde mistoek, 4 eta 6 urte bitarteko ikasleek, orkestra gazteak, hari-talde gazteak eta ballet taldeak hartuko dut parte.

Zapatuan danborradan

Tradizioari jarraiki, Arrasate Musikaleko Bandako kideek haurren danborradan hartuko dute parte, bihar, zapatua, hilak 17, arratsaldeko zazpitan hasita.

Elai abesbatzaren kantaldia parrokiako koruarekin

Zapatuan emanaldi berezia egingo dute San Juan Bataiatzailea parrokian. Bertan, Elai abesbatza hemeretzi kantuko emanaldia egingo du; horietako zazpi abesti, parrokiako koruko gizonetakoekin abestuko dituzte.

Mamma Mia musikaleko eta Ennio Morricone konpositore handiaren piezak abestuko dituzte, besteak beste.

Kulturateko Margo Taldekoen erakusketa gaur Seber Altuben

Azken bospasei urteetan bezala, Kulturateko Margo Taldeko ikasleek euren margoen erakusketa aterako dute kalera; hain zuzen, Seber Altubera.

"180 ikasleko taldea daukagu, helduen eta gazteen artean, eta haien 65 lan inguru jarriko ditugu erakusketan", azaldu du Amaia Bengoak, Margo Taldeko irakasleak.

Era guztietako lanak

"Askotariko margoak egongo dira ikusgai. Gehienak figuratiboak, baina baita abstrakturen bat edo beste ere". Koadroak erosteko aukera ere izango da. "Margoren bat gustatuz gero, egilearekin negoziatzen da".

'Clockwork Mondra' punk-rock jaialdia gaur Gaztetxean

Ostiral gauez rock-and-rolla nahi dutenek hitzordua daukate gaur Arrasateko gaztetxean.

Rotten XII, Criminal Remains eta State Alerta taldeak igoko dira agertokira, 22:00etatik aurrera. Lehenek diskoa grabatu berri dute, bigarrenek diskoa aurkeztuko dute eta abadiñarrek 2016an grabatutako doinuak ekarriko dituzte.



RENAULT
Passion for life

Oraintxe estreinatuko duzu

Renault CLIO bat edo **Renault MEGANE** bat
guk bakarrik daukagun prezio bikainean, **GIPUZKOAKO RENAULT SAREAN.**



Renault
MEGANE merkeena
14.000€*



Renault
CLIO merkeena
9.250€*

Zatoz CONNECTED DAYSetara eta eramazu R-LINKa nabigatzailearekin opari**

Clio gama: kontsumo mistoa (l/100km) 3,3 eta 5,6 bitartean; CO₂-aren isuria (g/km) 85 eta 127 bitartean. **Renault Megane TECH ROAD:** kontsumo mistoa (l/100km) 3,7 eta 6 bitartean; CO₂-aren isuria (g/km) 95 eta 134 bitartean.

*Eskaintza hau Euskadiko Renault Sareako da, partikularrentzat eta autonomoentzat, 2017ko ekainaren 1etik 30era bitartean Renault Megane TECH-ROAD Energy Tce berria 74kW (100ZP) edo Renault Clio Life 1.2 berria 16v 55Kw (75cv) Basic Pack-arekin eskatuz gero, Preference-ren bidez finantzatuta RCI Banque SA Sucursal en España-rekin, eta edozein merkataritza ibilgailu bat entregatuz, Renault berria erosteko. Barne daude zergak, garraioa, Reprise ekintzak eta RECSA eskaintako promozioak. Finantzatu beharreko gutxienezko zenbatekoa: 6.000 €. Gutxienezko epea: 24 hilabete. Ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin, trudiko modelook: Megane Zen Energy Tce berria 97kW (130 ZP) pintura metalizatuarekin, full LED argiak, Head-up display, 46 cm-ko (18") aleaziozko hagunak, Easy Park Assist pack-a eta 22,1 cm-ko (8,7") pantaila. PSP gomendatua zergak, promozioak eta Reprise ekintza barne: 19.628 €. Eta Renault Clio Zen Energy Tce Start & Stop berria 66kW (90ZP) pintura metalizatu bereziarekin eta Zen pack look-arekin. PSP gomendatua promozioak barne: 12.400 €.

**Eskaintza hau partikularrentzat eta autonomoentzat da, 2017ko ekainaren 1etik 30era bitartean Renault gamako turismo-ibilgailuak eskatuz gero, R-LINK ekipamenduduna nabigatzailearekin. Opari hori ezin truka daiteke diru, deskontu edo ekipamenduagatik.

Renaultek ELF gomendatzen du

reault.es

AUTOBERRI

San Andrés, 8. Tel. 943 71 24 72. ARRASATE - MONDRAGÓN www.autoberri.com



Aretxabaleko Udal Gobernuako kideak, eguaztenean, agintaldiaren balorazioa egin bitartean. MIRARI ALTUBE

Orain artekoarekin pozik, aurrera begira lanean

Agintaldi erdiaren balorazioa egin du Udal Gobernuak. Bi urteak oso positiboak izan direla nabarmendu dute, "bai Udalarentzat, bai pertsonalki", eta azpimarratu dituzte herritarrengana hurbiltzeko egindako ahalegina eta gardentasunari emandako bultzada

Mirari Altube ARETXABALETA

Udalbatza osatu zenetik bi urte pasatu dira, eta Udal Gobernuak agintaldi erdiaren balorazioa egin du: "Oso positiboa izan da, bai Udalarentzat, baita guretzat pertsonalki ere, esperientzia benetan aberasgarria izaten dabilelako", jakinarazi dute, eta gaineratu: "Gehienok udal kudeaketan esperientzia gabeak ginen eta azken bi urteotan dezente ikasteaz gain, lanean ari-ritu gara ilusio handiarekin".

Gertutasuna eta gardentasuna

Bi aspektu nabarmendu gura izan dituzte: batetik, Udala herritarrengana gerturatzea. "Gobernatze eredu berri bat eskaini genuen kanpainan, eta bete dugulako gaude". Eta gaineratu dute herritar mordoa gerturatu zaiela kezka, iradokizunak eta eskaerak agertzeko: "Herriaren eta herritarren behar eta kezkei erantzuteko ezinbesteko jotzen dugu jarrera ireki eta negoziatzailea". Eta horrela jokatu ezean

ezinezkoak izango liratekeela hainbat proiektu; adibidez, tanatorioa tokiz aldatzeko akordioa, "auzokideen lasaitasunerako"; Coprecirekin lortutako hitzarmena, "Aretxabaletan bertan hazi ahal izateko"; eta agustin-darrekinekin adostutako akordioa, komentua erosteko.

Nabarmendu duten bigarren aspektua gardentasuna da, "bultzada galanta" eman diotela diote: "Alderdi guztiak Gobernu Batzordean izaten direnez, ez da inongo pisuzko erabakirik hartzen guztiak jakinean izan gabe. Horrek ez du esan nahi erabaki guztietan ados gaudenik, baina ez dago ezkutuko jokorik".

Kiroldegia bideratuta

Ekintza zehatzari dagokienez, hiru azpimarratu ditu Udal Gobernuak. Bata, kultura arloan egindako "ahalegina": "Bai kultur ekitaldiak, bai aisialdi ekintzak kalera ateratzeko ahalegina egin da, ahal den heinean. Jendearengana hurbiltze hau erantzun

bikaina jasotzen dabil. Hortaz, bide horretatik jarraituko dugu".

Bestetik, Ongizate arloaren barruan abian jarriko duten kale hezitzaileen proiektua aipatu dute: "Apustu handia da, bai ekonomikoki, bai lan aldetik; baina ilusio handiarekin hasi dugu, gazteen artean eragin positiboa izango duelakoan".

Eta hirugarrenik, kiroldegia kudeaketa nabarmendu dute: "Aurreko agintaldian, denek ahotan zebilen gaia. Gaur egun, gaia bideraturik dago, erabiltzaile kopurua nabarmen igo da eta ekonomikoki erabat bideragarria da". Eta horretarako egindako lana goraipatu dute.

Balorazioa eginda, aurrera begira jarri dira, "hobetzen" jarraitzeko: "Gauza asko daukagu hobetzeko, hala nola herritarrei erantzun azkarragoa ematea, arreta ordutegi zabalagoa ematea, administrazioan eraginkortasuna hobetzea eta agintaldian gauzatu ezin diren proiektuak etorkizunerako bideratzea".

Ikasturtea agurtuko du gaur Lekaixoka bertso eskolak

Oihana eta Haizea Arana bertsolari gazteek eta Miren Amurizak ekitaldixoa eskainiko dute udaletxe zaharrean

M.A. ARETXABALETA

Gaur, egubakoitza, emango diote bukaera ikasturteari Lekaixoka bertso eskolako kideek, eta jaialdia egin gura dute horretarako. Punta-puntako bertsolarien ekitaldia izango da; batetik, eskolako kide diren Oihana eta Haizea Arana ahizpekin jardungo dute –Euskal Herriko eskolarteko finalean izan da Oihana–, eta, bestetik, Miren Amurizak; gai-jartzaile lanetan, ostera, Aitor Lizarazu ibiliko da. Ekitaldia udaletxe zaharrean izango da, 19:30ean.



Hiru bertsolariak Goiena telebistan. GOIENA

Emakumeendako defentsa pertsonal ikastaroa egingo dute

Udalak eta Arrasate Judo Taldeak antolatuta, bi saio egongo dira: bihar, zapatua, eta uztailaren 1ean

Eneko Azurmendi ARETXABALETA

Emakumeendako defentsa pertsonaleko hastapen ikastaroa eskainiko du Julio Gallegok, Arrasate Judo Taldeko kideak, bihar eta uztailaren 1ean, 10:00etan, Ibarra kiroldegian.

Esperientzia handia du Gallegok horrelako ikastaroetan –entrenatzaile nazional titulua dauka– eta adierazi du, orokorrean, funtzionatzen duela. "Defentsa pertsonalaren oinarriak erakusten ditut. Egiteko errazak eta eraginkorrak diren hainbat mugimendu ikasiko dituzte berta-

ratzen direnek. Eguneroko bizitzan izaten diren hainbat egoera aztertuko ditugu eta bakoitzean zer egin daitekeen azalduko diet parte-hartzaileei", azaldu du.

Bi orduko saioak izango dira. Gallegoren esanetan, "oso dinamikoa" izango da ikastaroa, jolasen bitartez egingo da eta.

Plaza mugatuak izango ditu ikastaroak; izan ere, gehienez, hogeit hamar pertsona izango dira. Interesa daukanak kiroldegian bertan eman ahal izango du izena, saioa hasi aurretik.

Batzar orokorra egingo du Loramendik eguaztenean

Loramendi elkartearen bazkideek batzar orokorra dute datorren ekainaren 21ean, eguaztana; lehenengo deia 18:00etan da eta bigarrena, 18:30ean. Hona hemen landuko dituzten gaiak: 2016eko jardueren aurkezpena eta diru kontuen azalpena; 2017ko plangintzaren eta diru kontuen aurkezpena; eta bukaeran, galderak egiteko aukera izango da.

San Juan jaietako ohituren gaineko hitzaldia eguenean

Juan Manuel Etxebarriak San Juan jaien gaineko hitzaldia eskainiko du ekainaren 22an (18:30), udaletxe zaharrean: *San Juanak lehen eta orain*. Loramendi elkarteak jaien gainean antolatu duen hitzaldi sortaren barruan dago. Euskal Filologian doktorea da, eta Jose Miguel Barandiaranen Etnografiako Etniker-Bizkaia taldeko kidea.

Herriko txistu doinuak Gasteiz aldean zabaltzen

Aretxabaletako txistulari taldeak kontzertua eskainiko du Santa Maria Aingeruena parrokian bihar, zapatua. Abetxukoko eta Durangoko txistulari taldeekin batera jardungo du eta Abetxukoko eta Langraizko abesbatzekin elkarlanean

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxabaletako txistulari taldeak Gasteizko Santa Maria Aingeruena parrokian du emanaldia bihar, zapatua, 20:45ean. Ez du bakarrik jardungo, beste bi txistulari talde izango ditu lagun: Abetxuko auzokoa (Gasteiz) eta Durangokoa; eta bi abesbatzarekin osatuko dute taldea, Langraizko Santorcariz eta Abetxukoko Vicente Garcia abesbatzekin, hain zuzen ere.

Lanean buru-belarri

Buru-belarri dabilta entseguetan azken asteotan; azkenekoa astelehenean egin zuten, Aretxabaletan, eta hurrengoa, entsegu nagusia, bihar izango da, kontzertu aurretik. "Oso gustura gabilta. Egia da pieza berriak gertatu beharrak lan handia daukala atzean: etxeko entseguak, Gasteiz aldera joan-etorriak elkarrekin jarduteko... Baina gustura egiten diren lanak dira", jakinarazi du Antzine Mendia txistulariak. Hain zuzen, Demetrio Iriarteren urteurrenaren harira hasi ziren halako elkarlanetan, eta ordutik dute harremana Gasteiz aldekoekin.

Talde indartsua

Azken urteotan indar handiarekin dabil lanean taldea: "Zortzi-hamar bat elkartzen gara, eta, zenbat eta gehiago izan, hobeto, elkar animatzeko. Garai batean gutxi batzuk ibili ziren, eta hor jarraitu zutenek bai dutela meritua! Egia esan, oso gustura gabilta bai txistua jotzen, bai lagun artean", dio Mendiak. Harrobia sortzea da hurrengo erronka. "Pare bat ikasle daude, eta ea jarraitzen duten".

Saltsa askotako instrumentua dela txistua gaineratu du, eta azken urteotan beste plaza batzuetan dabiltzala deskubritzen: "Abesbatzekin, metalekin... egin ditugu elkarlanak, eta oso animatuta gaude".



Txistulari taldeko hainbat kide asteleheneko entseguan. MIRARI ALTUBE

"Hainbat abesti moldatu ditut ekitaldirako"

JOSE LUIS CANTABRANA
TXISTU IRAKASLEA

Leizarra musika eskolako irakaslea da azken urteotan eta hark bultzatu du bihar Gasteizen egingo duten kontzertua.

Nolatan sortu da hainbat talderen arteko elkarlana?

Lagun batek behin eta berriz esaten zidan zergatik ez egin abesbatzen eta txistularien arteko emanaldi bat. Aurrera egitea erabaki dugu horrekin eta harremana dudan hainbat talde elkartuko gara.

Zelako kontzertua izango da?

Talde bakoitzak hamar minutu izango ditu bakarka jotzeko; hortaz, txistulariok hiru bat kantu joko ditugu: batetik, Erdi Aroko piezatxo bat, neuk moldatutakoa; eta bestetik, sarri jo izan ditugun bi kanta



M.A.

ezagun: *Mendiko soinuak* eta *Pello Joxepe*. Eta abesbatzekin batera jotzeko beste hiru pieza gertatu ditugu: *Maitia nun zira*, *Agur jaunak* berezi bat txisturako eta abesbatzarako moldatu dudana, eta, bukatzeko, Isidro Ansorenaren *Mendi aldera*.

Honezkero hainbat entsegu egingo zenituzten elkarrekin, ezta?

Bai; talde bakoitzak bere aldetik jardun du lanean eta Eskoriatzako Apotzagako elkartean ere elkartu ginen txistulari guztiok. Bihar, kontzertu aurretik, osterara, entsegu nagusia egingo dugu.

Aretxabaletarrak gonbidatuko zenituzke?

Bai horixe, ekitaldi polita izango da eta animatu!



NIRE USTEZ

INAXIO GARRO

Garbiketa garbitu guran

Ohi bezala, Aretxabaletako Udalak zerbitzu batzuk zuzenean kudeatzen ditu; beste batzuk, aldiz, azpikontratatu daude. Kale-garbitasunarekin lotutako kontratua azaroan bukatuko den neurrian, uste dut une aproposa izan daitekeela hausnarketa egiteko eta datozen urteotarako bideari ekiteko. Gutxienez, ondoko lau atal hauek dira hausnarketa-eraketak honetan kontuan hartu beharrekoak: kostua, langileak, zerbitzuaren balio erantsia eta aretxabaletarrak. Ariketa horretatik bildutako konklusio nabarmenenak dira kostua 384.000 eurotik 250.000 eurora pasatuko litzatekeela, urtean 130.000 euro aurreratuz. Eta horren eraginez, aretxabaletarrok beste zerbitzu batzuetarako diru gehiago izango genuke erabilgarri, zerbitzuaren kalitatean atzera egin gabe.

Gainera, gaur egungo enpresa lan horretan espezializatua izan arren, Udaleko teknikariak ere gai izango lirake lan horri ekiteko, ezta? Bide horretatik, lan-poltsa bat sortu eta beste 2 edo 3 langile ere kontrata litezke.

Ea gure ordezkari politikoek ere ariketa praktiko hau egiten duten. Herritarrekin batera eginez gero, askoz hobeto.



M.A.

Miren Aranzabalendako saria

Ostegun Bidaiairak ekimeneko saritua Miren Aranzabal elorriarra izan da. Enpresa ikasketen zati bat Kanadan egin duen ikasleak horren berri eman zien Express tabernan elkartutakoei. "Jende asko elkartu zen eta oso gustura egon nintzen", jakinarazi du Aranzabalek, Unai Elkoro alkatearen eskutik 100 euroko saria jasota.

Udalekuetan izango diren umeen gurasoekin bilera

Uztailaren 3an hasiko diren udaleku irekietan 325 neska-mutiko elkartuko dira 35 begiralerekin batera. Horren berri emateko bilera egingo dute gurasoekin martitzenean, hilaren 20an, udaletxe-ko osoko bilkuren aretoan (19:00). Funtzionamenduaren gainean egingo dute berba, baita hartutako neurri berriei buruz ere, eta begiraleak aurkeztuko dituzte.

Jou Díaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



Ibarraundi museoaren kanpoaldean jarri berri duten baratze-lorategia, lau gunetan banatuta. IBARRAUNDI MUSEOA

Abian da Ibarraundiko baratze-lorategia

Duela lau urte jangelako hondarrekin egindako konposta erabili dute lau gune dituen lorategi jangarria egiteko. Luis Ezeiza Herri Eskolako haurrek izango dute zaintzeko ardura, eta Jose Arana zaharren egoitzako zenbait egoiliar bidelagun izango dituzte

Imanol Beloki ESKORIATZA

Duela lau urte jarri zen martxan Ibarraundi museoeko konpost-gunea. Luis Ezeiza herri eskolako jangelako janari-hondarrak hara eraman, eta ongarria lortzen zuten. Ongarria ikasleen artean banatu izan da, bakoitzak etxean zikloa itxi zezan. Aurten, aldiz, zikloa ixteko, Ibarraundi museoaren kanpoaldean lorategi jangarri bat prestatu dute, konpostaren balioa haurrei barneratzeko.

Lorategi hori nekazaritza ekologikoaren printzipioak jarraituz landuko dute; hau da, naturaren zikloak errespetatzen dituen teknikak erabiliz eta sintesiko produktu kimikoak baztertuz. Loreen arteko konbinazioak erabiliko dituzte landareek izan ditzaketen gaixotasun edo izurritei aurre egiteko, eta beraiek sortutako konpostarekin ongarrirako dute lurra. "Zomorroek eragin ditzaketen izurriteen kontrako landare batzuk jarri ditugu, bestelako landareei ez

eragiteko", esan du Saioa Alzuak, Ibarraundiko teknikariak.

Lorategiak lau gune

Lorategi jangarriak lau gune ditu: cherry tomateak, lonbardak -azak-, landetako piperrak eta Gernikako kalabazak jarri dituzte; guztiak ere, lore usaintsuz inguratuta.

Lorategiaren ardura, berriz, eskolako haurrek izango dute, baina Jose Arana zaharren egoitzako zenbait egoiliar ere izango dituzte bidelagun lan horretan.

Produktua lehengai bihurtu

Proiektu horrekin, haurrek ekonomia zirkularraren oinarriak barneratuko dituzte; hau da,

**NEKAZARITZA
EKOLOGIKOAREN
PRINTZIPIOAK
JARRAITUZ EGIN DUTE
LANDAKETA**

beste ekonomia mota bat, non bukaerako produktua lehengai bihurtzen den berriz, eta ziklo ekonomiko etengabe eta jasangarrian bueltaka jarraitzen duen. Gune horretan, janari hondakinak eta hari lotutako arazoak gutxieneko neurrietara murriztuko lirake, zikloa ixtea lortzen baita; alegia, jangelako janari-hondarretatik lurra ongarritzen da, berririo janari gehiago lortzeko.

Elikagai asko ez dituztela azaldu du Alzuak, baina helburua haurrek ikustea eta ikastea dela gaineratu du: "Ez dute elikagai askorik aterako. Hala ere, konpostak zertarako balio duen eta janari-hondarrak lehengai nola bihurtu daitezkeen erakutsi nahi diegu egitasmo honen bitartez".

Konpost-gunea

"Egunero fin-fin joaten dira eskolako umeak jangelako hondarrekin konposta egitera, eta esan beharra dago oso konpost ona egiten dutela...".

'Txikirri-txikirri' mendi martxa ibilbide berriarekin dator aurten

Bidearen lehen zatia Kurtzebarri atzetik egingo da, Mugarriluzeraino; handik behera urterokoa izango da

I.B ESKORIATZA

Hildako mendizale eskoriatzaren oroimenez bi urtean behin antolatzen duten *Txikirri-txikirri* mendi ibilaldia domekan egingo dute. Aurten hamaikagarren edizioa izango da, eta ibilbide aldaketarekin dator, gainera.

Proba 07:30ean hasiko da, Herriko Plazan, eta izena egunean bertan eman beharko da, ordu-bete lehenago joanda. Prezioa bost euro da eta informazio gehiago nahi duenak 943 71 43 27 telefonora deitu dezake.

Martxara doazenez 24,2 kilometroko bidea egingo dute, eta aurten ibilbidea aldatzea erabaki dute antolatzaileek: "Duela bi urte egin zen azkenengoz, eta martxa berria jarri nahi genuen aurten. Hala, ibilbidearen lehen zatia aldatzea erabaki dugu", adierazi du Iñaki Agirianok, antolatzaile taldeko kideak.

Kurtzebarri ostetik, pagaditik igoko dira Degurixara, eta handik Mugarriluzera. Bertatik, Lexargaratera eta Atxorrotzeko bidea hartuz plazan amaituko da martxa.



Eskoriatzako Kirol Elkartekoak talde argazkian Al-Andalusen. ESKORIATZA KE

Kirol elkartekoek bikain eman diote amaiera denboraldiari

Elkarteko kideek eta jokalariek bazkaria egin zuten pasa den zapatuan Arrasateko Al-Andalus elkartearen

I.B ESKORIATZA

Eskoriatzako Kirol Elkarteko denboraldiari amaiera emateko festa antolatu zuen pasa den zapatarako Arrasateko Al-Andalus elkartearen. Batetik, elkarteko kide eta jokalariek egun ederra pasatzeko eta, bestetik, kirolariak egin duten lana aitortzeko.

Ezin agurrik esan

Aitziber Soriano *Txori* saskibaloio jokalaria beteranoena da Eskoriatzako taldean, hamabost urte inguru egin ditu bertan, eta saskibaloia uztea erabaki

du. Hala ere klubean jarraituko du, baina saskibaloian beharrean senior mailako areto-futbol taldearekin hasiko da datorren denboraldian.

Elkartean jarraitzeko asmoa adierazi du, eta zapatuan egin zioten omenaldia eskertu du: "Klubean oso gustura nago, eta, saskibaloia utzi arren, areto-futbola probatu nahi dut. Omenaldia, bestalde, zoragarria izan zen. Argazki zaharrez eta testigantzaz osatutako bideo bat eta taldeko kamiseta jokalaria guztien sinadurekin eman zidaten...".

Herri mugimendu soziala sustatzeko asmoz

Eskoriatzako Aste Zapatistaren hamazazpigarren edizio honetan, ekintza ugari burutu dituzte EskoZap elkarteko kideek. Herritar ororendako izan direnak, eta mota guztietakoak. Bihar, egun handia ospatuz emango diote amaiera asteari

Imanol Beloki ESKORIATZA

Hamazazpigarren edizio honetan ere, kolorez jantzi da herria Aste Zapatistako ekintzekin. Aste osoko lanaren ostean, bihar, jai nagusia izango dute, antolakuntzako kideek prestakizun lanak alde batera utzi, eta egunaz disfrutatzeko.

Beste mundu bat posible dela herritarrei helaraziz, Chiapasko kulturaren zatitxo bat gurera ekarri, eta hango herrialdeari elkartasuna adierazteko burutu diren ekintzak asko izan dira astean zehar, eta adibide garbia da astelehenean izan zen bide konferentzia.

Kontakizun gogorra

Asteari hasiera emateko, astelehenean, *Vivos se los llevaron, vivos los queremos* konferentzia izan zen kultura etxean. Ayotzinapako Epifanio Alvarez gurasoren testigantza entzuteko aukera izan zen Skipe bidez.

2014ko irailean desagertu ziren 43 ikasle normalistetako baten guraso honek 500 kilometroko bidea egin zuen, helarazi nahi duen mezua zabaltzeko. Hala, Eskoriatzan batu zirenek testigantza gogorra entzuteko aukera izan zuten. "Gobernuak ezkutatatu egiten digu gure seme-alaben kasua. Ez dute ezer egiten, eta,



Vivos se los llevaron, vivos los queremos bideo-konferentzia kultura etxean. I.B

mundu guztiak jakin behar duen gai bat denez, garrantzitsua iruditzen zaigu honen hedapena. Hala, presio internazionala eskatu nahi dugu, ea zerbait argitzen den...", azaldu zuen, besteak beste, Alvarezek.

Musika nagusi, amaitzeko

Gaur, egubakoitza, ere izango da zer ikusi Eskoriatzan. Izan ere, goizean giza barraskiloa irudikatuko dute Luis Ezeizako patioan eta arratsaldean, berriz, haurrentzako piñatak izango dira plazan, emakume palista

txapelketa frontoian eta Rosa Sanchez musikariaren emanaldia; azken hori Inkernun, 22:30ean.

Zapatua, egun handia

Bihar, zapatua, artisauen azoka izango da Fernando Eskoriatza plazan, eta, horren ostean, 14:30ean, herri bazkari mexikarra egingo dute bertan. Bazkarian, bertako zein Mexikoko jakiez gozatzeko aukera izango da, eta, egunari eta edizio honi amaiera emateko, aldiz, Aldo Mila Trio musika ikuskizuna izango da bazkalostean.

'Jai bira' ekintza bereziak antolatu dituzte Tortolisen

Eskoriatzako Tortolis ludotekak datozen opor egunetarako 8 eta 12 urte bitarteko haurrentzat hainbat ekintza prestatu ditu, oporretako lehen egunez goza dezaten. Ekintza horiek herriko haur guztiei zuzenduta daude, bazkide direnei eta ez direnei. Hala, eskaintza horrekin, ludotekak ateak ireki nahi ditu eta adin tarte horri antolatutako

ekintza bereziak eskaini jolasa sustatzeko asmoz. Ekainaren 23an, *Txorimaloaren bila* egingo dute, 18:00etan hasita, Herriko Plazan. Ekainaren 26an, berriz, Usakora irteera egingo dute, eta hitzordu hori LHtik aurrerako haurrei zuzenduta egongo da. Ekainaren 27an, aldiz, Urkulura bizikleta irteera egingo dute, 10:00etan irtenda.

Izena emateko azken eguna ekainaren 21a izango da, eta ludotekara bertara joanda egin ahaliko da.

Sendabelarrak batu eta ukenduak egingo dituzte kultura etxean

Ekainaren 20an, 18:00etan, lore eta landareak ezagutu eta hartzera joango dira sendabelarrekin ukenduak egiteko ikastaroan izena ematen dutenak. Ekainaren 21ean, berriz, minentzako, erredurentzako... ukenduak egingo dituzte kultura etxean. Izena eman nahi duenak kultura etxean bertan egin behar du, bost euro ordainduta.

LEINTZ GATZAGA | 17



Hiruerreketako zubia eraberrituta. ROBERTO OTAZU

Deba ibaia jaiotzen den lekua bisitatzeko zubia, konponduta

Hiruerreketako zubiaren egokitzapen lanak pasa den egubakoitzean amaitu zituzten, astebeteren ostean

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Hiruerreketako deritzon tokian jaio eta Deba herrian, Kantauri itsasoan, itsasoratzen da Deba ibaia. Hala, ibaiaren sorlekua bisitatu nahi duenak Leintz Gatzagako Hiruerreketara joan besterik ez du. Dominiatik edo Gure Ametsatik –Marisa– joan daiteke bertara, eta, bi kilometroko bidea eginda, bai alde batetik, bai bestetik, Deba ibaiaren sorlekura heltzen da. Iturburuan bertan zubi bat zegoen, eta nahiko arriskutsua zen bertatik pasatzea; bada, egonkortze lanak egin dituzte gatzagarrek, auzolanean, Fermin Lezetaren eta Razkinen gidaritzapean. Hala, erreka zeharkatzeko pasabidea behar bezala jarri dute. "Tantaidiko egurrekin egin dugu zubia, 130 urtetik gorako haritzetaz beteta dagoen zonan, sikatutako egur bat zegoen, eta,

Fermin Lezetak moztuta, horrekin egin dugu zubia eta baranda", adierazi du Juanito Bengoak.

Aspalditik egin nahi zen lana

Ikastetxeetako haurrak askotan joaten dira Deba ibaiaren sorlekura, eta aspalditik egoera txarrean zegoen zubia konpontzea erabaki dute, ezbeharrik ez gertatzeko. Honela adierazi du Bengoak: "Lehen zegoen zubia behar bezala jarri dugu, harria eta egurra erabiliz, eta baranda txukun bat jarri dugu. Razkinek Eugenio Otxoari aspaldi hitzeman zion konponketa lanak egingo zituela, eta harekin zein beste herritar batzuen laguntzarekin egin ditugu lanak, kostu barik. Lan hauek egiten, berriz, astebete inguru pasa dugu eta pasa den egubakoitzean amaitu genituen".


Oihal-akrobazia Dorleta santutegiko baselizako zelaian

Ekainaren 18an, oihal-akrobazia ikastaroan aritu diren ikasleek erakustaldia egingo dute Leintz Gatzagako Dorleta santutegiko zelaian.

12:30ean hasiko da erakustaldia, eta umeen taldeak zein nagusien taldeak eskainiko dute ikuskizuna. Agurtzane Telleria irakasleak herritarrei gonbidapena egin nahi izan die bertara

daitezen ikuskizunaz gozatzera: "Zirku txiki baten hasierako emanaldi baten moduko erakustaldia eskainiko dugu. Aireko akrobaziak, oihal-akrobazia, aro akrobatikoa, banako eta taldeko koreografiak... eskainiko ditugu, besteak beste".

Erakustaldi horrekin, urtean zehar ikasitakoa jendaurrean erakutsi nahi dute, hala, bide batez, ikuskizunaz gozatzeko eta, bestetik, datorren ikasturtera begira norbaitek izena eman nahi badu, eman dezan.



Julian Unzueta, etxean. ENEKO AZURMENDI

Julian Unzueta alkate ohia, seme kuttun berria

EAJko zinegotzien proposamena onartu ostean, Aramaioko Udal Gobernuak Julian Unzueta alkate ohia herriko seme kuttun izendatu du aho batez; hala, herriaren alde egindako lana aitortu nahi izan diote Unzuetari, eta hark gustura hartu du albistea

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Eguaztenean egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak Julian Unzueta herriko seme kuttun izendatzeko EAJko zinegotzien proposamena. Aho batez onartu da izendapena. "Gu ere ados gaude eta bere gaineko testua adostu genuen elkarrekin. Beti entzun izan ditut hitz onak berari buruz, eta badakit lan

asko egin duela herri ikuspegitik eta herriarendako. Beraz, aitortza bat da, zentzu horretan", dio Lierni Altuna alkateak.

Arabako Foru Aldundian egiten zuen lan Unzuetak, abeltzaintza zerbitzuan, eta 1972. urtean Aramaioko alkate izendatu zuen Aldundiko presidentek –normalean, Gobernadore Zibilak aukeratzen zituen alka-

teak garai hartan. Bere borondatearen aurkako erabakia izan zen hau eta hasieran uko egiten saiatu bazen ere, 1979ra bitartean izan zen karguan eta herri gintzan oinarritutako alkate izan zen berea. Ikastolarendako aretoa, zaborrak eta hondakinak jaso eta tratatzea helburu zuen mankomunitatearen sorrera euskararen erabi-

lerari emandako bultzada, Ibarrik Gipuzkoako mugarainoko errepidea zabaltzea auzoen arteko errepidea eraikitzea izan ziren, besteak beste, egin zituen lanak. "Politikoki, Aramaion XX. mendean izandako pertsona garrantzitsua izan da Unzueta. Nolabait, trantsizioaren sinonimoa dela idatzi izan dut. Berari esker, Aramaiok jakin izan zuen egoera politikoari buelta ematen eta bidea ireki zuen demokrasiara salto egiteko. Beraz, ondo merezitako titulua da hau, berak egindako ekarpen politikoarengatik", adierazi du Jose Mari Velez de Mendizabal historialariak. Gaineratu du, norbaitek merezi badu titulu hau, Unzueta bera dela. "Berarekin harremana izan dugunok eta ezagutzen dugunok, ondo dakigu zer nolako meritua egin dituen herriko seme kuttun izendatua izateko", azaldu du.

Alkate karguan egin zituen zazpi urteetan, garai zailak egokitu zitzaizkion Unzuetari, tartean Francoren heriotza, horrek ekarri zuen guztiarekin. "Hainbat arazo eta auzi izan zituen garai hartan", dio Velez de Mendizabalek.

Alkateen Mugimenduan

1976ko uztailaren 21ean Bergaran sortutako Hego Euskal Herriko alkateen mugimenduan egon zen Unzueta eta Arabako zenbait udalerriren ahotsa eraman zuen bertara, Velez de Mendizabalek azaldu duenez.

Mugimendu honetan Deba goieneko orduko beste zenbait alkaterekin bat egin zuen, besteak beste, Jose Luis Elkororekin –Bergara– edota Jose Antonio Altuna Txatillo-rekin –Arrasate–. Azken honek Unzueta-rekiko estimu handia azaldu du.

"Alkate on bat izateaz gain, gizon zintzoa fina da. Beti izan da zuzena bere eginkizunetan eta ez nau batere harritzen herriko seme kuttun izendatu izanak. Beraz, nire partetik, bihotz bihotzez, zorionak!".

Diputatu

1979an, Arabako diputatu izendatu zuten eta bertatik egindako lana ere oso baliotsua izan zen, historialariaren esanetan: "Foru Aldundian erakutsi ahal izan zuen lehen Aramaion egindako lanaren estiloa, eskuzabala eta besteei eskainia", azaldu du, gaineratuz Aramaioko herriak eman duen politikorik nabarmenena eta esanguratsuen izan dela.

Omendua, "gustura"

Unzuetak begi onez ikusi du izendapena eta gustura azaldu da Udal Gobernuak onartu berri duenarekin. Berak dio halako protagonismoa hartzerik ere ez duela nahi eta aitortu du herri-tar batzuen balizko kezkatatik onartu duela. "Agian gusturago esango nuke ezetz, baina badaikit askok ez luketela hori onartuko, eta horregatik eman nuen baiezkua", adierazi du Unzuetak.

Hala ere, ulertu du herriak aitortza hori egin izana eta alde horretatik, pozik dago. "Alkate garaian hainbat gauza egin nituen herriaren mesedetan, baita diputatu garaian ere. Beraz, horregatik izango dela uste dut", adierazi du, baikor.

1972AN IZENDATU ZUTEN ARAMAIOKO ALKATE ETA 1979AN, BERRIZ, UTZI ZUEN KARGUA



NIRE USTEZ

ANDONI ELEJALDE

Errepide nagusien erabilera

Guztiok ondo ezagutzen ditugu zeintzuk diren errepide nagusietako arauak eta hauen aurrean nola jokatu; hala ere, zoritxarrez, ezbeharrak gertatu egiten dira. Gure errepide nagusia Deba ibaia jarraitzen duena dela esango nuke. Astegunetan oso trafikatu dago eta erabiltzaileen portzentaje altua lanpostuetara doazen langileak eta errepidean lan egiten dutenak dira. Bestalde, bizikletan ari den jende gehiena denbora librean dago eta hauetako asko jubilatutako dira. Ez naiz sartuko bazterbidetik joatea zuzena den edo ez. Baina badakit batzuen

gozamenerako beste batzuen beharrak oztopatzen direla, eta hori errespetu falta dela iruditzen zait. Kontuan izanda zenbat inbertitu den bidegorrietan eta zenbat errepide dauden trafiko gutxiagorekin, uste dut DGTk hau bideratzeko arau berria ezarri beharko lukeela. Nire proposamena da, astegunetan, soilik entrenatzen ari den txirrindulari autorizatuak ibiltzea, gainerakoek larunbat eta igandeetan bakarrik erabil dezatela. Uste dut modu honetan istripu gutxiago egongo liratekeela eta elkarrenganako errespetua handituko litzatekeela.

Gorbeialdeko adinekoen topaketa, uztailaren 7an

Datorren uztailaren 7an Gorbeialdeko Kuadrillako adineko pertsonen topaketa egingo dute Zarautzen.

Autobusa egongo da eta Aramaiotik 09:45ean irtengo da, autobus geltokitik. Interesa daukanak 26 euroko ordainketa egin beharko du 2095 3224 21 1091573864 kontu korrontean –Kutxabank–, ekainaren 27a baino lehenago.

Ikasleek umorez beterik amaitu dute ikasturtea

Azken urteetan ohikoa den moduan, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetako ikasleek antzerkia egin dute aurtengo ikasturteari amaiera emateko; bestalde, maniki desafio dotore bat ere egin dute, eskola osoak parte hartu duena

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Bi izan dira aste honetan San Martin eskolak ikasturteari amaiera emateko antolatu dituen ekintza nagusiak: ikasleen antzerkia eta maniki desafioa *–manequin challenge–*.

Antzerkia martitzenean egin zuten, kultura etxean. Bosgarren eta seigarren mailetako ikasleek Jurgi Etxeberria antzerki irakaslearen laguntzarekin ikasturtean zehar landutakoa erakutsi zieten bertaratutakoei. Bosgarren mailakoek basoan gertatutako istorio bat antzeztu zuten eta seigarren mailakoen emanaldian, berriz, txotxongi-loak izan ziren protagonista. "Bi emanaldiak oso ondo egon dira. Benetan harro amaitu dut ikasleek egin duten lanarekin", adierazi du Etxeberriak.

Duela hiru urte hasi ziren San Martin eskolako ikasleak antzerkia lantzen, eta, Etxeberriaren esanetan, helburua da ikasleen arteko harremanak sustatzea eta komunikazioa lantzea. "Antzezlanari garrantzi gutxi ematen diot. Garrantzi gehiago ematen diot elkarren arteko konfiantzari, jendaurrean berba egiteko beldurra galtzeari edota parekidetasuna eta berdintasuna bezalako balioak lantzeari", azpimarratu du.

Bestalde, atzo, eguna, maniki desafioaren ondoren, eskola guztiak parte hartuz, maniki desafioa egin dugu", adierazi du Juncal Garaik, ikastetxe-ko ikasketa-buruak.

Ekitaldi horretarako, eskolako abestia berreskuratu dute aurtentzen, "aspaldian ahaztuta" zegoen kantua, Garairen esanetan. "Abestiaren aitakiarekin, guraso, monitore, ikasle, irakasle, eta sukaldari guztien artean egin dugu maniki desafioa", azaldu du ikasketa-buruak.

Hain zuzen ere, duela lau-pabost urte Manex Agirre bertso-



Ikasleek martitzenean egin zuten antzerkia, kultura etxean. E.A.



Atzo, eguna, maniki desafioaren ondoren, eskolako kantuarekin dantzatu zuten. E.A.

lariak sortutako abestia da berreskuratuko dena.

Eskolako buruhandiak

Abestia bakarrik ez, buruhandiak ere berreskuratu ditu San Martin eskolak, eta azken jaietan aurkeztu zituzten, duela bi aste, "arrakastaz betetako" ekintza batean. "Aspaldi egindako buruhandiak dira. Ikasleen gurasoek esaten dute beraien garai-koak direla", azaldu du Garaik.

Buruhandi horiek berreskuratze-ko, bi talde sortu zituzten ikasleek eta gurasoek: alde batetik, jostunak, jantziak egiteko; eta, bestetik, buruak egiteko taldea.

Aurrerantzean, beraz, erabilgarri izango dira buruhandi horiek. "Herriko buruhandiak izango dira eta San Martin jaiak alaitzeko erabiliko dira, baita herri mailako beste hainbat ekintzatan ere", dio Garaik.

Orioko bertsolariek Aramaio bisitatuko dute bihar, zapatua

Bertsotruk egitasmoaren baitan, bertso-poteoa egingo dute, lehenik, eta afaria Errota elkartearen, ondoren

E.A. ARAMAIO

Pasa den urtean Hernaniko eta Urretxu-Zumarragako bertsolarien bisita izan zuten aramaioarrak, Bertsotruk egitasmoaren baitan. Aurtentzen, berriz, Orioko bertso-eskolako kideak etorriko dira *–aramaioarrak urtarrilean egon ziren Orion–*.

Hala, 19:00etan bertso-poteoa-ekin hasiko dute saioa, eta, ostean, afaria egingo dute Errota elkartearen. Afarian izena eman nahi duenak 615 73 92 55 telefonora *–Manex Agirre–* deitu behar-ko du aurrez.

Bertsotruk egitasmoa 2015ean jarri zuen martxan Euskal Herriko Helduen Bertso Eskolen Batzordeak, eta helburua da helduen bertso-eskolen arteko harremanak sustatzea, horien arteko desafioak eginez. Bertso eskola parte-hartzaileak hiruko multzotan bereizi eta bertso eskola bakoitzak bere multzoko beste biak hartzen ditu etxean; era berean, beste bi bertso-eskolek antolatutako ekitaldira joango da. Kasu honetan, hiru-garrenak segurarrak dira, baina bihar ezin izango dute egon.



AGUSTIN OYANGUREN

Umeak gustura hockeyan

Pasa den zapatuan patinen gaineko hockey txapelketak egin ziren Aramaion, *Maider Unda olinpiadaren* baitan.

Herriko hainbat ume aritu ziren horren ohikoa ez den kirol hori praktikatzeko, eta, txapelketako arduradun Agustin Oyangurennek adierazi duenez, "oso gustura" aritu ziren herriko haurrak.

Markel Arriolabengoak promozioko finala jokatu du bihar

Arabako promozio txapelketako finala jokatu du bihar, zapatua, Arriolabengoak, Barron bikotekide duela, Laudioko bikote baten aurka. Gasteizko Ogeta pilotalekuan izango da partidua, 10:00etan. Bestalde, Julen Olaizolak txapela irabazi zuen Barañainen eta Jon Herriarte ezin izan zuten trinket txapelketako finala irabazi.

Baso-bideen inbentarioa egiten ari da Udala

Aramaioko beharrak jasotzeko egindako galdeketa, inbentario hori egiteko beharra sumatu zuen Udalak, eta martxan jartzea erabaki du. Kontratazioa publikatu ondoren, Sendoa enpresari esleitu zaio lanaren lehen fasea. 2017a amaitu baino lehen bukatu beharko ditu enpresak lehen faseko lanak, 7.000 euroko aurrekontuarekin.

Zein da konpostarentzat erabilera egokiena?

Udalak antolatuta, jardunaldi bereziak egin dituzte Elgetan. Luar Ingurumena enpresako Joseba Sanchezen eskutik, ateratako konpostaren kalitatea neurtzen eta konpost-guneetan sor daitezkeen arazoak identifikatzen ikasi dute konpost-egileek

Larraitz Zeberio ELGETA

Elgetan 170 bat familiak dihardute nork bere organikoa kudeatzen. Ateratako konpostaren ezaugarrien arabera, egokiagoa izango da erabilera baterako edo besterako: baratzerako, loreontziak ongartzeko, estalki moduan...

Eguaztenean egindako saioan, Luar Ingurumena enpresako Joseba Sanchezek hainbat trikimailu eman zituen ezaugarri horiek identifikatzeko. Konpost-tea zelan egin erakutsi zuen eta horrekin batera konpostaren gazitasuna, heldutasuna zein elikagai maila baloratzeko hainbat neurketa nola egin adierazi zuen. Bertaratutakoek etxean egindako konposta analizatzeko aukera ere izan zuten. "Ateratako konpostaren erabilera fin-tzeko zenbait irizpide eman ditut", esan zuen Sanchezek.

Teknikari baten jarraipena

Aurrerantzean, gehiagotan izango da Sanchez herrian; izan ere, elgetarrek pauso garrantzitsuak eman dituzte organikoaren kudeaketan, baina optimiza daiteke. "Gehien erabiltzen den konpost-guneetako batean lixibatze prozesuarekin lotutako isuriak agertu dira", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak. "Hartu ditugu neurriak: material lehorra aldatu egin dugu eta brigadako langileen bitartez maizago aireztatzen ditugu edukiontzia".

Luar Ingurumena enpresaren laguntzarekin jarraipen berezia egingo dio Elgetako Udalak prozesuari. "Konpost-guneen jarraipena egingo dugu teknikari baten laguntzarekin", adierazi du alkateak. Asmoa da sor daitezkeen arazoak lehenbailehen detektatzea eta konponbidea ematea. "Egoeraren arabera pare bat astean behin edo hilean behin etorriko da teknikaria dauden arazoak ikusi eta konponbidea emateko".



Herritar taldea, eguaztenean, konpost laginak nola aztertu ikasten. L.Z.

"Sekulako eboluzioa ikusi dut Elgetan, balarako onenatarikoa"

JOSEBA SANCHEZ LUAR INGURUMENA ENPRESAKO TEKNIKARIA

Badira hiru urte konpost egitasmoa jarraitzen duela. Aurtun ere Elgetan izan da.

Hainbat ikasgai eman dituzu oraingoan ere.

Konpostaren erabilerak ez du, normalean, arazorik ematen. Jardunaldiotan, pauso berri bat eman dugu aurrera, jakiteko baratzerako edo loreontzirako konposta dugun, oso azidoa ateratzen bazaigu zer egin, egokia den edo ez hazitegi moduan erabiltzeko...

Eta nola egin daiteke hori?

Etxean egiteko moduko analisi batzuk nola egin ikasi dugu. Azken finean, erakutsi diet proba organoleptikoak egiten. Elgetarrek ondo dihardute konposta egiten?

Orain dela hiru urte egin genuen lehenengo bisita. Berria zen kontua eta arazoak baino gehiago, beldurrak ziren nagusi. Etapa hori gaingiduta



L.Z.

dago. Arazoak, orain, puntualak dira, detaileak. Sekulako eboluzioa ikusi dut Elgetan; balarako onenatarikoa.

Gaur egun dauden arazoak zeintzuk dira?

Guneren batean desorekatu egin da kontua eta isuriak izan dira. Isuri horiek nola saihestu eta gertatzen badira nola konpondu ikusiko dugu jardunaldiotan. Material lehorra edo txirbila aldatu egin dugu. Orain, latzagoa da. Aireztatzea ere maizago egingo dugu.



Martitzeneko herri batzarrean batutako herritar taldea. ELGETAKO EH BILDU

Agintaldiaren erdian, EH Bilduk balorazio positiboa egin du

Martitzeneko herri batzarren ostean, adierazi dute herritarrekin batera helduko dietela erronka berriei

L.Z. ELGETA

2015eko ekainaren 13an hartu zuen Elgetako alkatetza EH Bilduk. Osoko bilkuren aretoan egindako ekitaldian hartu zuen alkate-makila Iraitz Lazkanok.

Martitzenean bete ziren bi urte, eta batzar irekia egin zuen Elgetako EH Bilduk. "22 lagun elkartu ginen, ordu eta erdiz, agintaldian zehar egin direnak baloratzeko eta aurrera begirako lehentasunen inguruan azalpenak eman, eztabaidatu eta ekarpenak jasotzeko", adierazi dute. "Lan itzela izan da arlo askotan orain arte egindakoa,

jaso genuen udaletxearen kudeaketa, nora eza eta egoera ekonomikoa zuzentzeko; kalte ordainak ordaintzen hasi, diru laguntzak eta hobariak hobetu eta behar gehien dutenengana bideratu...".

Batzordeetatik egindako lana nabarmendu du EH Bilduk. "Batzordez batzorde egindako urratsak ere positiboki baloratu genituen. Hobetzeko eta aldatzeko asko dago, ordea, eta erronka horiei herritarrekin batera ilusioz aurre egingo die EH Bilduko lantaldeak!", adierazi dute.

Jaki eta produktu bilketa Saharako umeen aterpetxerako

Maiatzak 20 Saharak Herriaren Lagunen Elkarrekin aterpetxe bat zabaldu gura du Tolosan, eta produktu bilketa kanpaina abiarazi du. Elgetako Udalak bat egin du ekimenarekin eta ekarpena egin gura duten herritarrek udaletxean utzi ditza-kete produktuak ekainaren 28ra bitartean. Eskatu dituzte kakao-hautsa, zerealak, marmelada, gailetak, esnea, zukuak, kakao-krema, txokolateak, tomate frijitua, irina, esparragoak, oli-bak, artoa, ilarak, piperrak latan, komuneko papera, arropa garbitzeko xaboia, harrikoa egiteko xaboia, orraziak, gomak... Mahai-jokoak ere ongietorriak izango direla adierazi dute.

OHARRAK

Ikasleen ikuskizuna

Eskolako umeek ikasturte amaierako ikuskizuna dute, gaur, 15:00etan, Espaloian.

Behoko kaleko jaiak

Gaur, 17:30etik aurrera, bizikleta lasterketa, disko festa, afaria eta mojito jaia Gauargi taldearekin.

Mendi irteera

Kantsatzekek antolatuta, Leaburu-Erroizpe-Leaburu irteera, etzi, domekan.

'Chill banana', plazan

Uda giroari ongietorria emateko hamakak eta irabiatuak domekan, 10:00etatik 14:00etara, Mendizaleen Plazan.

SANJUANAK 2017



MAKALAREN JATORRIA ETA MITOA
HIRUGARREN EGUNA ONENA ZENEOA
BERRITASUNAK HELDUEN DANBORRADAN
BERTAKOAK, BERTAKO JAIK GIROTZEN
'GO!AZEN' MONTERRONEN

AITOR AGIRIANO



☎ 943 71 48 45

Gora San Juan jaiak!

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.



Etxe-Lan

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN KONPONKETAK

MANTENTZE-LANAK / BERME-LUZAPENAK
ORDEZKO PIEZEN SALMENTA

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

📞 943 79 89 97

RED sare teknika

FAGOR

ARISTON

CANDY

Whirlpool CORPORATION

OSTALARITZA

PROIEKTUAK, EKIPAMENDUAK ETA OSTALARITZARAKO,
GARBITEGIETARAKO ETA HOTZ INDUSTRIALERAKO
MAKINEN SALMENTA.

OSTALARITZAKO PROIEKTU INTEGRALAK

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

📞 943 79 12 30

Banatzaile Ofiziala

FAGOR
FAGOR INDUSTRIAL

GURE BEZEROAK:

basque
culinary
center

AIAIA
Escuela de Hostelería - Oñate
Escuela de Hostelería - Oñate

REXEL SOCIEDAD
DE PETROL

35 urte^{tik}
gora LTZ ofizial gisa

Etxe-Lan

Tlf. 943 79 12 30
etxe-lan@etxe-lan.com
Torrebaso Industrialdea, 14
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)
www.etxe-lan.com



ALKATEAREN AGURRA

MARIA
UBARRETXENA

Guztiok ondo merezitako jaiak

Urtea ziztu bizian pasa eta konturatzerako, hemen ditugu berriro San Juan jaiak beste urte batez Arrasateko kaleak girotzeko prest. Atzean utzi ditugu neguko hotz eta egun ilunak, eta jada irrikatan gaude herriko kaleak alaitu eta festa giroan murgiltzeko. Eman diezaiegun, bada, ongietorria San Juan jaietara!

Oraingoan ere egitarau zabala dago antolatua guztiontzat, haur, gazte eta helduentzat, arrasatear zein kanpotarrentzat, aurtengo sanjuanak ere ahaztezinak izan daitezke. Programa hau ilusio eta esfortuz beteriko lanaren emaitza da eta lerro hauen bitartez nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiet jaien antolakuntzan parte hartu duten guztiei.

Arrasateko esentzia mantenduz eta gure herriko kultura eta ohiturak indartuz, atera gaitezen kalera eta har dezagun guztiok parte gure jaietan. Utzi ditzagun arazo eta ika-mikak beste une baterako, eta goza ditzagun festak elkartasunean, lagun eta familia-giroan.

Ez nioke agur honi amaiera eman nahi, Udal honek genero indarkeriarekiko duen aurkako jarrera adierazi gabe. Arrasatek ez du eraso sexistarik onartzen. Ez ezetz da!

Ondo pasa dezagun denok elkarrekin, errespetua eta berdintasuna izanik beti horretarako oinarri eta printzipio ukaezina. Eta orain bai, Arrasatek eta bereziki arrasatearrok ondo merezi dugulako, festa alai eta zoriontsuak opa dizkizuet.

JAIETAKO EGITARAUA

EKAINAK 16

17:00 Pintura ERAKUSTALDIA
Kulturateko pintura ikastaroko ikasleena.
Seber Altube plazan.

18:30 Arrasate Musikalen ikasturte bukaerako EMANALDIA
Amaia Udál Antzokian.

19:00 ESKUPILOTA PARTIDUAK
San Juan txapelketaren finalak.
Uarkapen.

EKAINAK 17

09:00 III. larunbateko baserriarren azoka
Seber Altube plazan.

19:00 HAUREN DANBORRADA
Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin. SUDCek antolatuta.
Ibilbidea: Biteri plaza,



21:00 ERREMENTARI DANTZA
Jaietako ekitaldi hunkigarrienetakoak jendetza batuko du, urtero moduan.
Zaldibar ingurutik Herriko Plazaraino, 21:00etan.

Zerkaosteta, Garibai etorbidea, Maalako Errabala, Erdiko kalea, Herriko Plaza.

20:30 KONTZERTUA
Elai abesbatza.
San Juan Bataiatzailearen parrokian.

EKAINAK 18

HAUR DANTZARIEN EGUNA

10:00 KALEJIRA
Zaldibar pilotalekuan batuko dira haur dantzarien taldeak. Ondoren, txistulariekin KALEJIRA.
Herriko kaleetan.

11:15 DANTZA ERAKUSTALDIA
Herriko kaleetan.

13:30 Talde guztiak elkartuko dira
Herriko Plazan.

16:00 20. MUS TXAPELKETA
Buenuena jatetxean.

17:00 Talde guztien JARDUNA eta AGURRA
Dantza talde guztiek jarduna egingo dute eta gero, agurra. Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeek antolatuta.
Gero, DANTZALDIA AMAIA DJ-rekin.
Herriko Plazan.

EKAINAK 22

19:00 Txorbelaren diskoaren aurkezpena
Lehengo eta oraingo euskal kantak da izenburua.
Kulturateko areto nagusian.

EKAINAK 23

SAN JUAN BEZPERA

Argazki lehiaketa SAN JUAN JAIK III. ARGAZKI LEHIAKETA
Artgazki elkarteak antolatuta eta jaietan zehar.
Ekainaren 23tik 26ra.

12:00 TXUPINA eta TRIKI-POTEOA
Txosna batzordeak antolatuta.
Txosnagunean.

14:30 Herri BAZKARIA
Uarkape pilotalekuan.

16:30 ETXAFUEGOAK
Herriko Plazatik.

Ondoren POTXIN ETA PATXIN taldearen *PIRAMIDEEN BILA* izeneko haurrentzako emanaldia.
Seber Altube plazan.

17:00 TXOPO-POTEOA
Plazaraino makalarekin eta INCANSABLES txarangaren laguntzarekin.
Plazaraino.

18:00 MAKALA jasotzea
Herriko Plazan.

19:30 SALVE SOLEMNEA
San Juan Bataiatzailearen parrokian.

21:00 ERREMENTARI DANTZA
Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek parte hartuko dute.
Zaldibar ingurutik, Herriko Plazaraino.

22:30 SAN JUAN SUA
Herriko Plazan.

23:00 NAGUSIEN DANBORRADA
SUDCek antolatuta.
Biteri plazan hasita eta herriko kaleetan zehar.

Horren ostean, Herriko Plazan, GAUBELA taldearekin DANTZALDIA.

23:30 Fan & Go taldea
Txosnagunean.



Leintz
GARRAIOAK, S.L.

Ondo pasa sanjuanetan!

Leintz Garraioak, urbano zerbitzuaz gain, txangoak, ezkontzak, sagardotegiak, e.a.

LEINTZ GARRAIOAK S.L.
Musakola, 20 (Pereda)
20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 27 07 / Faxa: 943 79 14 19
Posta-e: leintzgarraioak@leintz.com
www.leintz.com



EKAINAK 24**SAN JUAN EGUNA**

08:30 DIANA, ARRASATEKO GAITEROEKIN
Herriko kaleetan.

09:00 ENTZIERROA
Ibilbidea: Erdiko kalea, Kanpantorpea, Zerkaosteta eta Jose Maria Arizmendiarieta plaza. Gero, zaleentzat bigantxak.
Zezen-plazan.

10:00 PATXIMATXIN SKATE JAIA ARRASKAK antolatuta.
Zaldibarko frontoian. Egun osoan.

11:00 MEZA NAGUSIA
San Juan Bataiatzailearen parrokan.

11:00 Arrasateko Erraldoien eta Kilikien KONPARTSAREN KALEJIRA
Herriko kaleetan.

11:00 Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN KALEJIRA
11:30ean Seber Altube plazan elkartuko dira konpartsarekin eta gaiteroekin.
Seber Altube plazan.

12:00 Ohorezko aureskua eta San Juan zortzikoa
Herriko Plazan.

12:30 OMENALDIA 80 URTETIK GORAKO NAGUSIEI
Etxaluzen (Abaroa).

13:00 KONTZERTUA, Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN
11:30ean Monterron parkean. EGITARAUA

- *Suspiros de España*. Antonio Alvarez Alonso
 - *Maite*. Pablo Soroazabal
 - *La Gran Via*. Federico Chueca
 - *A discovery Fantasy*. Jan de Haan
 - *Waltz N2*. Dmitri Shostakóvich
 - *West Side Story*. Leonard Bernstein
 - *Happy*. Will Pharrell
- ZUZENDARIA: MIKEL MARKIEGI.

17:00 STREET BOULDER txapelketa.
Herriko kaleetan zehar.

18:00 OLINPIADAK
Txosnetan hasita.

18:30 'ZAPATOS EN EL AIRE' ikuskizuna
La Furtiva taldearena.

Seber Altube plazan.

19:30 ERREKORTADOREAK
KALEKO MAISUEN TXAPELKETA.
Herriz herri ibiltzen diren Euskadiko 12 errekortadoreen artean jokatu da txapela.
Zezen plazan.

19:30 KALEJIRA
Arrasateko gaiteroen eta Arrasate Musikaleko haize-taldearen eskutik.
Erdiko kaleetan zehar.

21:00 DRAGOI-JANA
Plazan erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera.
Herriko Plazan.

23:00 SU ARTIFIZIAL ikusgarriak
Astondoa pirotekniaren eskutik.
Santa Barbaratik.

23:15 MIKEL URDANGARIN
Abeslariaren kontzertua.
Monterron parkean.

23:15 OIHAN VEGAREKIN
DISKO-FESTA.
Herriko Plazan.

01:00 DJ TARANTISTAK
Txosnetan.



IMKANOL SORIANO

12:00 Aurten ere etorriko da Eguzkilaru domekan Makal txikiaren igoera egingo dute, besteak beste.
Biteri plazan.

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK 2017-2018 IKASTURTEA

- 3 urtetik aurrera
- Irakasle kualifikatuak eta tituludunak (jatorrizkoak zein bertakoak)
- Metodologia egokitua, ludikoa eta dinamikoa
- Azterketen prestaketa



since 1999

koma GROUP

Koma Arrasate | Iturriotz kalea 35 - behea | Tel.: 943 71 26 31

EKAINAK 25**HAURREN ETA GAZTE-
TXOEN EGUNA**

**08:30 DIANA, ARRASATEKO
GAITEROEKIN**
Herriko kaleetan.

09:00 ENTZIERROA
Aurreko eguneko ibilbidea; gero,
zaleentzat bigantxak.
Zezen-plazan.

**10:30 Haurgunea eta
Zaldibarren Gaztegunea**
14:00ak arte.
Biteri plazan.

11:00 KALEJIRA
Molins de Rei herriko
erraldoiekin eta Arrasateko
Erraldoien eta Kilikien
Konpartsarekin.
Herriko kaleetan.

12:00 EGUZKILARUri ongi etorria
eta makal txikiaren igoera
trikitilarien laguntzarekin.
Ondoren kalejira konpartsakoekin.
Biteri Plazan.

**12:00 Arrasateko trikitilarien
eskutik, kalejira**

Herriko kaleetan.

12:00 'Zeuk iñ, zeuk jan'
BAZKARIAren prestaketa.
Azokan.

12:45 ZUMBAOKEA
Biteri plazan.

13:00 HERRI KALEJIRA
Txistularien eskutik.
Herriko kaleetan.

13:30 APAR JOLASA
Bainujantziak eroan eta
igerilekura... apar artean
jolastera..
Jokin Zaitegi plazan.

14:30 'Zeuk iñ, zeuk jan'
**kuadrillen arteko HERRI
BAZKARIA** Udalaren eskutik
sagardo kupel bat egongo da
partehartzaileentzat.
Jokin Zaitegi plazan.

16:00 'Zeuk iñ, zeuk jan'
bazkalostean haurrentzako
JOLASAK
Azoka plazan.

**17:00 Profesional mailako
PILOTA PARTIDUAK**



ESNE BELTZA

23:00 Esne Beltza domekan
Esne Beltza eta CRAP taldeen kontzertua.
Txosnagunean.

ASPE enpresak antolatuta.
Uarkape pilotakekuan.

18:00 IKUSKIZUNA
Txatxilipurdik eskainita.
Biteri plazan.

**18:30 Haurren arteko
ERREKORTADOREEN
TXAPELKETA eta
ERREKORTADOREEN ESKOLA**
Bergarako Zezenak enpresak
antolatuta.
Zezen-plazan.

20:00 BERTSO JAIALDIA

AEDk antolatuta.
Partaideak: Igor Elortza,
Eneritz Artetxe, Aitor Sarriegi
eta Oihane Perea.
Gai jartzailea: Maite
Berriozabal.
Seber Altube plazan.

22:30 LISKER-ekin dantzaldia
Herriko Plazan.

23:00 ESNE BELTZA eta CRAP
Taldeen kontzertua.
Txosnagunean.

EKAINAK 26

**08:30 DIANA, ARRASATEKO
GAITEROEKIN**
Herriko kaleetan.

09:00 ENTZIERROA Aurreko
eguneko ibilbidea; gero,
zaleentzat bigantxak.
Zezen-plazan.

**11:00 ARRASATEKO
ERRALDOIEN eta KILIKIEN
Konpartsaren kalejira**
Herriko kaleetan.

**12:00 EUSKO LABELEKO
PRODUKTUAK DASTATZEA**
Goikobalu abesbatzaren
laguntzarekin. Eusko Labelen
eskutik.
Herriko Plazan.

18:30 'GOAZEN dantzatu eta
abestera' Telesailaren aktore
batzuekin.
Monterongo parkean.

19:30 Lore Gazteak taldearen
DANTZA EMANALDIA
Seber Altube plazan.

20:00 KONTZERTUA: GATILLAZO
Herriko Plazan.



www.bertako.eus | info@bertako.eus
GARAIA Goirua 1A - 20500 Arrasate
Tel.: 943 90 34 50 | 691 64 79 65
Araba: 945 71 28 22 | Bizkaia: 946 52 39 35

ONDO IBILI
SANJUANETAN!





Kondekuako berdegunea ingurua jaietako erreferentziagune izateko lan egingo dute txosna batzordekoek. ARRASATEKO TXOSNA BATZORDEA

"Herritik herriarentzat", jaietan lan egiteko prest

Arrasateko txosna batzordeak dena kontrolpean dauka Kondekua zelaia jaiaren erdigune izan dadin. Bi txosna egongo dira, eta, berritasun gisa, 25erako moztortzeko dei egin dute, konplexuak alde batera utzi eta jaiak modu lotsagabea gozatzeko

Xabi Gorostidi ARRASATE

Askotariko ekintzekin osatutako programa prestatu du txosna batzordeak 2017ko San Juan jaietara. Ekainaren 22an, 16:00etan, hasiko dituzte muntaia lanak, eta, behin hori eginda, ekainaren 23ko Gazte Eguneako txupinarekin hasiko dira lehen garagardoak zerbitzatzen.

Aurtengo txupina jaurtitzeko ohorea Pottogorriak taldeak izango du. "Herrian sortu berri den elkarte da. Oso aktibo dabilta, eta, dituzten aldarrikapenekin bat egiten dugunez, txupina jaurtitzeko talde aproposena zela iruditu zitzaigun", adierazi du txosna batzordeko kide Iker Agirrek.

Txupinak eztanda egin ondoren, gazte-bazkaria egingo dute Uarkapen, Gazte izatea jarrera kontua da lelopean. "Bazkaria antolatzeak dakarren lana ikusita, Sara jatetxean bazkaria egitearen alde geunden [aspaldi bertan egiten zen jaietako bazkaria]. Baina azken orduan, batxilergoko bigarren mailako ikasleak prest agertu ziren bazkariako zerbitzatzeko lanak egiteko, eta horri esker egingo da bazkaria Uarkapen. Ez genuen ha-

lakorik espero, eta oso sorpresa atsegina izan da gazteak hain gogotsu ikustea". Esan beharra dago, iaz bezala, 01:30ean manifestazio feminista egingo dutela aurten ere.

25ean, moztortzeko eguna

Aurten, berritasun gisa, jaietako hirugarren egunean, arrasatearrei moztortzeko proposamena egingo die txosna batzordeak. "Ez da sekulako moztortze ikusgarriarik prestatu behar. Guk nahiko genuke etxean ditugun arropa zaharrak erabiltzea eta peluka eta betaurreko batzuekin ohiko itxura ezkutatzea eta jaiak era lotsagabeagoan bizitzea. Beste herri batzuetan tradizioa da, eta, pixkanaka, herrian errotzea nahiko genuke".

Herriarekin lotura sendotzen

Txosna batzordearen iparra den *Herrixik, herrixantzat* leloa betetze aldera, jaiak prestatzeko hiruzpalau bilera egin dituzte. "Bilera gehiago eginez norbana-koak ardura gehiago hartzera animatu nahi izan ditugu". Bestetik, ekainaren 26an txosnak itxita egongo dira.

Ondo pasa San Juan jaietan!

25. URTEURRENA

Udarako presta zaitez!

Aurpegi tratamendua

Azala hidratatu eta indartu

Lehen 69€

Orain 59€

Eskaintza baliagarria 2017ko uztailaren 21era arte

Erdiko kale 54, beheka 20500 Arrasate • 943 79 09 09 • www.amagaraestetikazentroa.es • [facebook.com/amagara](https://www.facebook.com/amagara)

AMAGARA
Estetika Zentroa



Opel Insignia berria. Animatu eta zatoz ikustera!

Ondo pasa sanjuanetan!!!



OPEL
OPEL ZERBITZU OFIZIALA



San Andres Auzoa 10-D • Tel.: 943 77 30 10

Makalaren jatorria eta mitoa

Noizbait galdetu diozue zuen buruari zer dela-eta jartzen den sanjuanetan makala Herriko Plazan? Horren erantzuna San Juan jaien jatorrian dago. Jakina den legez, ekainaren 24a solstizio eguna da. Une horretan eguzkia kantzer tropikoarekin perpendikularrean lerratzen da, urteko punturik altuena hartuta. Puntu horretan urtaroak banatzen dira, ipar hemisferioan uda hasten da eta hego hemisferioan, aldiz, negua.

Puntu konkretu hori oso garrantzitsua izan da nekazaritza munduan, eta kristau garai aurreko tradizioa da. Eguzkiaren eta uraren inguruko erritualak egiten ziren garai hartan, nekazaritza bi faktore horien arteko erlazioaren emaitza gisa ulertzen zutelako.

Ostean, kristauak data konkretu hura San Juan Batailatzailearen jaia egiteko baliatu zuten. Hala ere, Euskal Herriko leku askotan, egun horretan, Herriko Plazan landare bat sartzeko ohitura dago, nekazaritza munduan lan egiten dutenentzat egun adierazgarria delako.

Horren adibide dira Nafarroan Bera eta Igantzi, Araban Agurain eta Gipuzkoan Oiartzun, Zegama eta Ataun.

Makala igotzea lortu duen bakarra
Urtero jartzen den makalak ikurrina bat izan ohi du goialdean, eta hura harrapatzen ahalegindu izan dira arrasatear asko eta asko. Baina goraino igo eta ikurrina hartzea lortu duen bakarra Jon Arantzeta da, egun Leitza bizi den arrasatearra.

"Duela 13-14 urte izango zen. San Juan jaietako gau batean, lagun batzuek esan zidaten goraino igo eta ikurrina hartuz gero, ez dakit zenbat mila pezetakako saria zegoela, eta di-da batean enborra igotzen hasi nintzen. Azkar batean lortu nuen ikurrina zegoen tokiraino heltzea, baina ezinezkoa zen ikurrina askatzea. Grapatuta zegoen eta esfortzu handia egin behar izan nuen enborretik askatzeko. Ematen nizkion tirakadekin, makalaren goialdea mugitzen hasi zen alderik alde, eta bai nik eta bai behean zeuden lagunek tentsio uneak pasa genituen. Baina, azkenean, helburua lortu nuen eta nire saria eskatzera joan nintzen jarraian".

"IKURRINA GRAPATUTA ZEGOEN, ETA HARI TIRAKA HASTEAN MAKALA ALDERIK ALDE MUGITZEN HASI ZEN"



Arrasateko gazteak makala plazara eroaten 2004 urtean. ARRASATE PRESS

Baina, Arantzetaaren atsekaberako, ez zegoen inongo saririk. "Garai hartan udaltzainen egoitza Herriko Plazan zegoen, eta zuzenean joan nintzen bertara merezitako saria eskatzera. Baina, nire harridurarako, udaltzainek esan zidaten ez zegoela inongo saririk Udalaren partetik. Mito hutsa omen zela. Hori bai, hurrengo urtean arantzadun alanbrea jarri zuten makalaren goialdean, inor igo ez zedin". Hala ere, urte hartan berriz igo zen, larrialdi batek eraginda: "Makala igotzerakoan, soka bat trabatuta geratu zen, eta ni igo nintzen hori konpontzera".



Arantzeta, Duela 13-14 urte, makalean behera. J. A.


HOTEL JATETXEA SANTA ANA ★ ★ ★

Uribarri 37 (Udala bidean)
Tel: 943 79 49 39
Arrasate
www.santaanamondragon.com

Iñaki Pildainek eta bere lantalde profesionalak sasoiko sukaldaritza, jenero bikaina, sorkuntza eta berritasuna eskaintzen dizkizute. Haragia, arraina, bertako ortuko barazkiak, postre harrigarriak eta ardoen karta bikaina.

Nahi baduzu, janaria etxera eramateko prestatzen dizugu.

12 logela paregabe eta ezberdin
Bista ikusgarriak
Balio askotariko gela



ONDO PASATU SAN JUAN JAIETAN!

Hirugarrena, egunik onena

Goizeko zortzietako dianarekin ematen zitzaion sanjuanetako hirugarren egunari hasiera. Egun berezia hura, ekainaren 26a, zeinetan sokamuturra eta erromeria gailentzen ziren. Arrasatearrak Herriko Plazan biltzen ziren jaiez disfrutatu guran

Ane Vitoria ARRASATE

Denborak aurrera egin ahala, tradizioak aldatu egiten dira. Egun, sanjuanetako egunik "esanguratsuenak" hasierakoak direla esan daiteke. Baina, duela mende erdi, jaietako hirugarren eguna, hain zuzen, ekainaren 26a, zen egunik desiratuena arrasatearrentzat. Egun oso berezia zen hura, urte osoan zehar jendeak gogoz itxaroten zuena. Arrasatearrak goizean goizetik biltzen ziren Herriko Plazan, dantzaldi eder

batez disfrutatzeko. Kapritxoak beteriko eguna ere bazen hura, urtean zehar egiten ez zirenak posible bilakatzen baitziren; esate baterako, txikiteoa luzatzea, etxetik kanpo ogitartekoren bat jatea, gauera arte dantzaldiez disfrutatzea...

Argazkilariak ere baziren

Argazkiak ateratzeko eguna ere bazen ekainaren 26a. Hainbat argazkilari izaten ziren herrian zehar bertakoei argazkiak atera guran. Baziren kan-

potik zetozenak eta hondo berezi bat ipintzen zutenak; Donostiako Kontxa hondartzaren irudia zutenak, esaterako. Hala ere, ohitura zen arrasatearrak ziren argazkilariengana jotzea. Haiek herritarrei erretratuak egiten zizkieten eta oso berezia izaten zen une hura. Azken finean, garai hartan oso zaila zen etxean argazki kamera bat izatea. Horregatik, egun hartan, herritarrek argazkiak ateratzeko egun hartaz baliatzen ziren.



Mari Nati Altuna herriko plazan gizon batekin dantzan.

Dantza egiteko eguna zen ekainaren 26a Goizeko dianaren eta sokamuturraren ostean heltzen zen erromeria, San Juan jaietan gailentzen zen dantzaldia. Horretan, Flandes musika banda militarrek erakustaldia eskaintzen zuen udalerriko Herriko Plazan, eta dantza egiteko gogoz gerturatzen ziren arrasatearrak. Horren seinale da goiko argazkia, irribarrez dagoen bikotea dantzan; benetan egun polita zen 26a herritarrentzat.



ARRASATE
Foruen Enparantza • San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47

OÑATI
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86

LEGAZPI
Patrizio Etxebarria 2
Tel.: 943 08 28 46

Biserek eta betaurrekoek ere tokia zuten festetan

1957-1958 urteko argazkiak erakusten duene alaitasunez beteriko egunak ziren udalerriko jaietakoak, eta Maalako Errabalean dagoen kuadrillak poztasun hori islatzen du. Egun bikainak dira sanjuanetakoak lagun artean ederto pasatzeko, eta, horretarako, osagarriak jartzeak ere balio zuen. Betaurrekoak eta biserak janzea ohikoa ez bazen ere, mutiko horiek pozez gainezka zeuden.



Lagun taldea Arrasateko jaietan.



Emakume taldea Herriko Plazako erromerian.

Estreinatzeko eguna

Domeketako arropa janzteko eguna ez izan arren, emakume askok jantziren bat estreinatzeko aprobetxatzen zuten sanjuanetako hirugarrena. Argazkia 1954koa da; honako hauek azaltzen dira, ezkerretik eskuinera: Maria Jesus Arlota, Mari Carmen (abizena), Esther Agirre, Ana Mari Zabala eta Angelines Madina; eta behean, Espe Lizarralde.

Jaietan alai Festetan alaitasuna gailentzen da eta, horren seinale da ondoko hau. 1973ko ekainaren 26an ateratako argazkian, beste batzuen artean, hauek ageri dira: Carmelo Palacios, Anabel Martinez, Beatriz Oyarguren, Mari Carmen Zubillaga, Marian Aspe, Lourdes Ortiz de Guzman, Jose Luis Agirregabiria, Felix Zabaleta eta Alexander Mendikute.



Kuadrilla arrasatearra ekainaren 26an Erdiko kalean.



Sokamuturra Herriko Plazan, jendez inguratuta.

Sokamuturra 1965eko argazkiak erakusten duen moduan, eta Josemari Velez de Mendizabalek bere blogean dioen moduan, "hirugarren eguneko eskaintza zabala goizean kontzentratu zen, sokamuturraren inguruan"; ezinbesteko ekitaldia zen hura. Zezenekin jolas egiteko modu hori 1982an kendu zuten. Harrezkero egiten dira oraingoan moduko entzierroak.

Villapinte 911 km Osny 912 km

Ocaña 448 km

Jaen 716 km

Murcia 780 km Sevilla 899 km Puerto 955 km

**EUSKAL PRESO
ETA IHESLARIAK**

ETXERA

**KONDENA
BETETA DUTEN
PRESOAK
ASKATU!**

**DAT • JAI ZALE
ARRASATE • ILUNTZ
OSORIK • TAUPA
EKAITZ • BASATI**



Honako ikuspegi hau izango dute zozketan irabazle irten direnek; irudian, iazko helduen danborrada. GOIENA

Ekintza kutunenei leku pribilegiatuenetik begira

Biharko umeen danborrada eta San Juan bezperako errementari dantza zein helduen danborrada udaletxeko balkoitik ikusi ahalko dituzten arrasatearrak zozketaz aukeratu ditu Udalak; irabazleei, telefonoz, SMS bidez edo posta elektronikoz jakinaraziko zaie

Jokin Bereziartua ARRASATE

Iaz hartutako erabakiarekin jarraituz, aurten ere Udalak aukera eman die zenbait arrasatearri San Juan jaietako ekintza berezienetako batzuk udaletxeko balkoitik jarraitzeko. Hiru ekitalditarako irekiko dituzte aurten ere udaletxeko ateak: biharko umeen danborradarako –19:00etan irtengo da, Biteri plazatik– eta hilaren 23ko errementari dantzarako eta helduen danborradarako. Bada, asteon jakinarazi dituzte zeintzuk izan diren zortedunak, zozketa elektronikoko bidez aukeratuak izan direnak. Irabazleak izan diren horiengana Udalak joko du, telefono dei bidez, SMS bidez edo posta elektronikoa bidalita.

Nortasun agiria aurkeztu behar

Udalaren arabera, errementari dantza izan da lehen aukera moduan eskaera gehien jaso dituen ekintza, 72 eskaerarekin. Helduen eta umeen danborradan askoz gutxiago jaso dira. Izan ere, herriarrek aukera izan zuten ekintza interes ordenaren arabera aukeratzeko. Hori bai, ekintza

batean irabazle izan denak ez du aukerarik izango ekintza batera baino gehiagotara joateko. Horrez gain, irabazleek udaletxeko sarreran agertu beharko dute, nortasun agiriarekin, honako egun eta ordu hauetan: umeen danborrada ikusteko, ekainaren 17an, 19:30ean; errementari dantza ikusteko, ekainaren 23an, 22:00etan; eta helduen danborrada ikusteko, ekainaren 23an, 23:30ean. 16 urtetik beherakoek adinez nagusia den pertsona batekin joan beharko dute.

Balkoian aldi berean 30 lagun

Ekintza bakoitzeko hamabost toki bikoitz zozketatu dira; izan ere, udaletxeko balkoian aldi berean 30 lagun egon daitezke gehienez. Ekimena iaz egin zuten lehen aldiz eta hasieratik erantzun ona izan zuen herri-tarren artean.

**HIRU EKINTZETAN
PARTE HARTZEKO 88
ESKAERA JASO DIRA
BAZ-EN ZEIN UDAL
WEBGUNEAN**



OSAGAI GUZTIAK DITUGU...

San Juan jai zoriontsuak!!

errementari dantza gaiteroak
musika banda txosnak
konpartsa
txistulariak
dragoi-jana
eguzkilaru
danborrada
entzierroak
zuk ein zuk jan

Uarkape
HORTZ KLINIKA CLINICA DENTAL

RPS: 294/13

- Odontologia orokorra
- Endodontziak
- Implantologia protesiak

*Ondo pasa
San Juan
jaixetan!*

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85

Danborren oihartzunak txikitxoenen eskutik

Urtero bezala, umeen danborradak Arrasateko kaleak danbor hotsez beteko ditu. Bihar arratsaldean izango da; Biteri plazatik irten eta Herriko Plazan amaituko da. Aurtengo haurren danborradan 230 ume inguru izango dira herria girotzen

Ane Vitoria ARRASATE

Arrasateko San Juan jaiak hel-tzeaz daude eta horren seinale da bihar arratsaldean bertan izango den haurren danborrada. Txikitxoek hilabete eta erdiz entseatu dituzte udalerrian fatmatua den danborradaren abestiak. Maiatzeko lehenengo aste-buruan hasi zituzten entseguak, eta, orain arte, larunbatero bildu dira Arizmendi Ikastolako Gaztelupe gunean. Jantziak duela astebete jasotzen hasi ziren; beraz, horiek etxean eta eginiko praktika guztiaren ostean, dagoeneko Arrasateko gaztetxoak prest daude bihar eskainiko duten emanaldirako.

Aurreko urteko ibilbide bera

Duela gutxira arte, ospitale aurrean hasten zen haurren danborradaren ibilbidea, baina joan den urtean Biteri plazan eman zitzaion hasiera. Arrazoia da zirkulazioan gerta daitezkeen zailtasunak saihestea. Aurten, beraz, ibilbide bera egingo dute: danborrada arratsaldeko zazpietan hasiko da, Biteri plazan, eta Herriko Plazara abiatuko dira umeak; tartean, Zerkaostetatik, Garibaitik, Maalatik, Portaloitik eta Erdiko kaletik pasako dira.

Zuzendaritzan berrikuntza

Zuzendaritzan dago berrikuntza; izan ere, aurten, Jon Merinok

gidatuko ditu danborradan parte hartuko duten 230 haurrak. Aurreko urteetako tradizioarekin jarraituz, bihar lau banderadun izango dira danborradan –jenerala, ikurrina, SUDC eta Arrasate ordezkatzuz–. Hain zuzen ere, zaldi gainean izango diren haurrak zozketa bidez aukeratu dituzte. Danborradan bederatzi konpainiak joko dute. Horiek guztiak, banderadunak zein danbor-joleak, elkarlanean arituko dira arrasatearrei bospasei abesti eskaintzeko. Horrela, udalerriko kaleak musikaz beteko dituzte eta aparteko giroa sortuko da 230 umetxo horiei esker.



Banderatunak: Beñat Zalama, Irati Unamuno, Maddi Petreña eta Itsaso Urgoitia. SUDC



Haurrak danborradaren entseguan joan den zapatuan. ANE VITORIA

Bidebarri

LANERATZE ENPRESA

20 urte vending zerbitzua eskaintzen

“Eskaintza bereziak bidezko merkataritzako kafe eta txokolatean enpresa txiki eta ertainentzat”



Eskatu aurrekontua inolako konpromisorik gabe:
Tel. 943 716 479 • Mug. 617 677 913 • bidebarri@terra.com

merkatu
Soziala

FAIRTRADE
INTERNATIONAL



www.bidebarri.org

"6 urte nituenetik nabil danborradan sartuta"

EVA ROMERO NAGUSIEN DANBORRADAKO ZUZENDARI NAGUSI BERRIA

Mende erdi baino gehiagoko tradizioa du danborradak Arrasaten, eta aurten lehen aldiz emakumezko zuzendari nagusia izango du, 34 danborradako esperientziarekin

Xabi Gorostidi ARRASATE

6 urte zituenetik aritu izan da Eva Romero arrasatearra danborradan parte hartzen. Esanahi handia du ekitaldi horrek harenak, eta, are handiagoa aurten, zuzendari nagusi da eta.

Nola hartu zenuen zuzendari nagusi izateko enkargua?

Ba, sorpresa izan zen, ez nuen halakorik espero. Entseguak hasi aurretik bilerak egiten ditugu konpartsa guztietako zuzendariak. Aurten haurdun egon naizenez, ezin izan nuen bilera horietan parte hartu. Orain arte zuzendari nagusi gisa aritu den Nestor Maidaganek ez jarraitzea erabaki zuenez, neu aukeratu ninduten hura ordezkatzeko, konpainia zuzendarien artean esperientzia handien zuena nintzelako. Beraz, ezustekoa izan zen, erabakia hartu zen momentuan bertan ez nenguelako. Ardua handia da, baina espero dut gauzak ondo egiteko gai izango naizela.



Eva Romero izango da zuzendari nagusi berria. XABI GOROSTIDI

Beraz, urte gehien dituen konpainia zuzendaria izanik, haren ordezkotutako zuzendariak zurela esan daiteke?

Ordezko naturala? Akaso, bai. Baina, aukeraketa egiteko orduan zeuden ordezkotutako hautagaien kopurua ikusita, ordezkotutako baka-

rra nintzela ere esan daiteke [Barre].

Maidagan zenbat urtez izan da zuzendari nagusi?

Hamar eta hamabi urte bitartean, esango nizuke, baina ez nago ziur. Ez dut harekin hitz

egiteko aukerarik izan, eta ez dakit zein arrazoik eragin dion kargua uztea. Baina, Nestor eza-gututa, lasai asko datorren urtean zuzendari nagusi izateko irrikaz egon daiteke.

Danborradan parte hartzen esperientzia zabala duzula esan dugu. Baina zenbat urtez ari gara hitz egiten?

Bada, lehen aldiz parte hartu nuenean 6 urte nituen, eta orain 40 bete ditut; beraz, atera kontuak; 34 urte.

Urte hauetan guztietan denetarik egitea tokatuko zitzaizun, ezta?

Bai, bai. Nik uste dut postu guztietan aritutakoa naizela. Danbor-jole hasi nintzen, ondoren banderadun izan nintzen, kantinera, barrilera, eskoziarra... jantzi guztiak probatu ditudala uste dut.

Beraz, postu guztiak ezagututa, non aurkituko zuten zu baino zuzendari hoberik?

Horrek asko laguntzen du zuzentzeko orduan. Nire ustez, ikuspegi musikal zabalagoa edukitzea oso garrantzitsua da, eta hor, akaso, ni ez naiz pertsonarik jantziarena, baina rol berri hau hori garatzeko aukera bat izan daiteke.

Urduri al zaude ekainaren 23an pentsatzen?

Ba, egia esan, nahiko lasai nago, ez pentsa. Eguna gerturatzeaz bat, ziur, urduritasun puntu hori agertuko zaidala; ea dena entseguetan bezain ondo aterako den... baina erronka berri

baten aurrean urduritasun puntu hori kontrolatzea ia ezinezkoa izaten da.

Nola joan dira entseguak?

Astean birritan elkartzen gara, astelehenetan eta eguaztenetan, eta ordubeteko entseguak egiten ditugu. Jendea gogotsu ikusten dut, eta, zentzu horretan, oso pozik nago. Ekainaren 23ra begira, lau entsegu geratzen zaizkigu, azkena plazan egingo dugu. Ea dena ondo ateratzen den egun handian.

Hiru hamarkada hauetan, osasun puntu ezberdinak izango zituen danborradak. Gaur egun, nola dago?

Hala da. Gogoratzen dut Nestorrek zuzendari kargua hartu zuen unean, parte hartzea gero eta txikiagoa zela, eta horri buelta ematen ahalegindu ginen. Une hartan gaztetxeko kideak sartu ziren, nahiz eta ondoren utzi, adibidez. Gogoan dut beste urte batean pakistandar lagun talde batek ere hartu zuela parte. Hauek ere ez zuten jarraipenik izan, baina egin zutenean oso gustura ikusi nituen, egia esan. Danborrada beti egongo da kolektibo berriak hartzeko prest, eta zenbat eta gehiago izan, hobeto denontzako.

"BANDERADUN, KANTINERA, BARRILERA, ESKOZIAR ... DENETARIK EGITEA TOKATU IZAN ZAIT"

JUBAR®
ATEAK, S.L.

San Juan jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu!

- Garajeko atek
- Segurtasun-pertsianak
- Automatismoak
- Konponketak
- Urrutiko agente tresna homologatuak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak



Neurri Handiko Ateak



Aluminiozko Ate Automatikoak



Ate Pertsiana Automatikoak



Pertsianak

Berritasunak danborradan

Entseguak aurrera doaz, eta danborradako antolakuntzan jo eta su aritzen direnak egun handia heltzeko zain daude, danbor hotsek Arrasateko kaleak estaltzeko.

Bi berritasun

Bi berritasun izango ditu danborradak: lehenik, zuzendari nagusi berria estreinatuko du, Eva Romero, eta lehen emakumezko zuzendaria izango da. Bigarrena, aldiz, abestien zerrendan egongo da, aurtengo ekitaldirako bi abesti berri gehitu dituztelako. Horietako lehena 1884an konposatutako *Retreta* izeneko pasodoblea izango da eta bigarrena, aldiz, Sarriegik konposatutako *Iriyarena*. Aratusteetarako konposatu zuen, 1882an, baina 1965ean Donostiako danborradak bere egin zuen.

Iazko konpainia kopuruari eutsi

Udalpe elkarteek lehen danborrada egin zutenenik, gorabehera asko izan ditu danborradako parte hartzeak.

"Gogoratzen dut 1999an edo 2000n inflexio-puntu bat izan zuela, eta urtetik urtera konpainia berriak apuntatzen hasi ziren. Parte hartzaile gehiagoren beharra ikusita, jendeak oso ondo erantzun zuen. Mondra taldekoak animatu zirela gogoratzen dut, adibidez, eta urtetik urtera plaza gero eta beteago ikustea oso pozgarria izan zen, batez ere urte batzuk generamatzanontzat. Oroitzapen atseginak ditut; ez, akaso, ediziorik jendetsuenak izateagatik, baizik beheranzko tendentzia batetik goranzkora

salto egiteagatik", azaldu du Eva Romero zuzendari berriak.

Aurten, orde, iazko konpainia kopuru bera mantentzea lortu dute: bederatzi. "Entseguak hasi genituenean, elkarreetako batek iragarri zigun ez zutela aurtengo ekitaldian parte hartuko, baina, azkenean, posible izan dute, eta konpainia kopurua mantentzea lortu dugu. Ez dakit konpainia bakoitzean gorabeherarik izan duten parte hartzaile kopuruan, baina iazko antzera ibiliko gara", azaldu du Romerok.

Konpainia hauek izango dira: Montxon, Beti-Alai, Beti-Gazte, Txalaparta, Santa Marina, Eskoziarrak, Danborrariak, Mondra eta Musakola; azken hori da jende gehien batzen duena. "Zigorrolakoak dira talderik handiena, ezbaierik gabe. Independentzia lortzen dutenean arazo bat izango dugu, baina, futbol jokalariekin gertatzen den bezala, etete-klausula bat jarriko diegu. Horrela, arrasatear izateari uzten badiote, behintzat, etekina aterako diogu".

Udaletzeko balkoitik ikusteko aukera

laz egin bezala, Arrasateko Udalak sanjuanetako hainbat ekitaldi leku pribilegiatu horretatik ikusteko aukera emango du.

"DAUDEN KONPARTSA GUZTJETATIK, MUSAKOLAKOA DA HANDIENA"

AURTEN BI ABESTI BERRI JOKO DITUZTE: 'IRIYARENA' ETA 'RETRETA'



2015eko danborrada. IMANOL SORIANO



Musakolako konpartsa da jendetsuena. JAGOBA DOMINGO

JMA[®]

**GORA ARRASATE,
GORA SAN JUAN!!**

**Belaunaldiz belaunaldi
herriko sena landuz**



IFAM



Iaz bezala, aurten ere Azoka Plazan egingo dute Zeuk iñ, zeuk jan herri bazkaria, ekainaren 25ean (14:30). GOIENA



2012an egin zen lehen aldiz, Arano eta Gartzia Maisu-maistrak kalean. GOIENA

Norberak egitea eta jatea, arrakastaren osagaiak

'Zeuk iñ, zeuk jan' herri bazkaria 2012an lehenengoz egin zenetik, urtez urte hazten joan da ekimena; aurten, iaz bezala, Azoka Plazan egingo da eta izen-ematea zabalik dago 'www.arrasate.eus' webgunean; ia 600 lagunendako lekua dago

Jokin Bereziartua ARRASATE

Zeuk iñ, zeuk jan herri bazkariaren arrakastaren goranzko joerak gailurra jo zuen iaz, ia 700 lagunekin. 2012an egin zen lehen aldiz eta hasieratik izan zuen arrakasta. Lehen lau urteetan Portaloi ondoan, Arano eta Gartzia Maisu-maistrak kalean, egin zen eta iaz Udalak

Azoka Plazara mugitu zuen, azaldu zuten, ahalik eta herriar gehienei parte hartzeko aukera emateko. Iaz 731 lagunek eman zuten izena alde aurretik eta azoka kanpoan ere jan behar izan zuten batzuek. Azkenean, baina, nahi izan zuten guztiek hartu ahal izan zuten parte. Aurten ere azokan egingo da.

Bazkaria, azkenpotetarren ahotik Herriar herriarendako irten-dako ekimena da *Zeuk iñ, zeuk jan* bazkaria, eta, beraz, hainbat kuadrilla hartu izan dute parte. Kuadrilla beterranoen artean, Azkenpote da hasiera-hasieratik parte hartu duenetako bat: "Lehen urtean ez ginen jende askorik elkartu, baina gaur egun san-

juanetako herri bazkari nagusia bera baino jendetsuagoa da. Gora eta gora doa", uste du Iñigo Zabalok. Hala ere, azkenpotetarrek ez daude ados bazkaria Azoka Plazan egitearekin: "Eurria egiten badu bai, azoka da leku aproposena. Baina euri barik, betiko lekua egokiagoa da; giro ederra sortzen zen kozinatzen ari ginenon eta herriarren artean -batez ere, adinekoak-. Kozinatze-ko trikimailuak kontatzen genizkion elkarri, gazteen eta edadetuen arteko harreman berezi eta polita sortzen zen. Azokan, hori ez da posible". Arano eta Gartzia Maisu-maistrak kalea, baina, txiki geratu zen horrenbeste jenderendako; hala ere, Zabalok uste du herriko erdigunean bertan badaudela azoka baino toki aproposagoak: "Azoka oso itxia da halako baz-

kari batendako. Biteri plaza dago, Seber Altube... Badaude lekuak". Menuari dagokionez, Azkenpote kuadrillakoei denetarik egin izan dute: "Errazena paella da, baina marmitakoa egin izan dugu, baita patatak errioxar erara ere". Aurten ere hartuko dute parte: "Kuadrillakoon artean huts egin ezin daitekeen jaietako ekintza bihurtu da *Zeuk iñ, zeuk jan* bazkaria".

Izen-ematea udal webgunean

Atzo, ekainak 15, ireki zuten *Zeuk iñ, zeuk jan* bazkarian izena emateko epea. Aurten erabaki dute Udalaren webgunean kontzentratzea izen-ematea: www.arrasate.eus. Jakinarazi dutenez, plaza mugatuak izango dira, eta, beraz, "lehenbailehen" izena ematea gomendatu dute; ia 600 lagunendako lekua egongo da.

zurekin
ARRASATE
EUSKALDUNAGO

JAIXETAN BE BAI!
Ondo ibili sanjuanetan!

Katalanak, errementari dantza ikusteko irrikan

Kataluniako Molins de Reiko konpartsako kideak Arrasatera etorriko dira sanjuanetan, bereziki, errementari dantza ikusteko. Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsako hainbat kide han izan ziren, eta orain, trukean etorriko dira hemengoak ezagutzera



Molins del Reikoak erraldoiekin talde argazkian. IÑAKI ARTSUAGA

Imanol Beloki ARRASATE

San Juan jaietan bisitari bereziak izango dira Arrasaten. Izan ere, Molins de Rei herriko kataluniarrak izango dira hemen; bereziki, errementari dantza ikustera etorriko dira.

Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsako kideak Molins de Reiko jaietan izan ziren, eta orain, haiek izango dira Arrasaten gonbidatuak. Honela azaldu du Iñaki Artsuagak, konpartsako kideak: "Molins de Rei konpartsakoek errementari dantza ikusi zuten Internet bidez, eta, gurekin harremanetan jarritz, gonbidapena egin ziguten hango jaietara joateko. Irailean

joan ginen hara, eta 30 lagun inguru izan ginen, egiten dutena ezagutzen".

Bizi izateko modu bat

Oso gazteek, oso nagusiek... adin askotarikoek parte hartzen dutela gaineratu du Artsuagak. "Beste modu batera antolatuta daude. Haientzat, bizi izateko modu bat da". Euren jaiak zaratatan eta suan oinarrituta daudela azaldu du; hemengoak, aldiz, dantzetan eta ikuskizunean. "Bisitariak gustura geratuko direlakoan gaude. Harrera atsegina egingo diegu, eta, herriko txokoak ezagutzeaz batera, gure jaiak ikusiko dituzte".

Arrasateko konpartsakoak Katalunian

Valentziako beste talde batekin batera, ohorezko gonbidatu bezala joan ziren Arrasateko konpartsakoak Molins de Reiko jaietara, irailean.

Erraldoi bilkura Katalunian

Herria ikusi zuten, udaletxean harrera egin zieten eta alkatearen hitzak jaso zituzten. Bestalde, hango herrietako konpartsekin batera, erraldoi bilkura handi batera batu ziren arrasatearrak.



Arrasateko konpartsakoak Molins de Reiko festetan. IÑAKI ARTSUAGA

ALDEDI

Ondo pasa jaiak!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

Jaiak girotzen dituzten musikariak

Arrasateko musika taldeak funtsezko bilakatu dira urteetan zehar San Juan festetan. Arrasatear guztiei aparteko giroa eskaini guran, talde horiek udalerriko kaleak musikaz betetzen dituzte

Ane Vitoria ARRASATE

Musika Arrasaten sustrai sakonak dituen artea da, eta hainbat dira kultura honekin jarraitzen dutenak. Udalerriko jaietan asko dira musika eskaintzen dutenak; horien artean, Arrasateko gaitero, txistulari eta trikitilari taldeak. Horiek dira Arrasateko San Juan festetan gailentzen diren musika taldeak; izan ere, eskaintzen dituzten kalejiren bitartez, herria musikaz betetzen da, goizean goizetik iluntzera arte.

Baina, kalejirez gain, beste hainbatetan ere parte hartzen dute talde hauek: adibidez, udalerrian famatua den errementari dantzan, dragoi-janean, triki-poteotan, dianan, salbean eta beste hainbatetan. Beraz, koordinazioa ere funtsezkoa da; izan ere, herriko kaleak girotzeaz

gain, arrasatearrak direnez, jaietz disfrutatzea ere tokatzen zaie. Horregatik, egunean egunekoa ondo antolatu behar dute San Juan jaietz behar den moduan disfrutatzeke.

Ilusioz beteriko egunak

Astebete besterik ez da falta aurtengo festei hasiera emateko. Bada, hiru musika taldeak entseguen hasi ziren duela aste batzuk. Hori horrela, ia dena prest dago Arrasateko kaleak musikaz betetzeko. Hiru musika talde horiek Arrasateko San Juan jaiak girotzen dutela ukaezina da. Baina nola bizi dituzte musika taldeko kideek udalerriko festak? Erantzuna gertuagotik ezagutzeke asmoz, Arrasateko gaitero, txistulari eta trikitilariekin izan da GOIENA.



Arrasateko gaiteroak 1984ean eta gaur egun. ARRASATEKO GAITEROEN TALDEA

"Zorte handia daukagu"

ARRASATEKO GAITEROAK

Aspaldi hasi ginen entseguen eta erreperitorio orokorra prest daukagu. (...) Udako jaiak dira eta ilusio handia egiten digu parte hartzeak. Besteak beste, goizeko dianan izaten gara, bigantxetan ere giro ona sortzen dugu, Erraldoien Konpartsan, Arrasate Musikalekin kalejiretan... Horrez gain, Arrasateko, Gasteizko eta Arrasate Musikaleko musikariek duten Gariband musika taldearekin jotzen dugu, eta, nola ez, errementari dantzan ere bai. Ez dakit nola, baina kuadrillarekin egoteko zein beste ekintzetan parte hartzeko moldatzen gara: dragoi jana, *Zuk elñ*, *zuk jan*, txosnetako kontzertuak... hala ere, goiz etxeratzen gara, hurrengo egunean musika jotzen jarraitzeko. Ederto pasatzen dugu sanjuanetan, zorte handia dugu beste musikari batzuekin jotzeko aukeragatik. Baita gauza ezberdinak egiteagatik, ohiko musika tradizionalen eskemarik irteteko, hain zuzen. Eta, nola ez, zorte handia daukagu emazteek une oro laguntzen digutelako eta ekintza horietan guztietan parte hartzen uzten digutelako! Zorte handia dugu!

Jai herrikoi,
parte hartzaile eta
parekideen alde

GOZATU
SANJUANAK!

ehbildu

"Oso egun politak dira jaietakoak"

ARRASATEKO TXISTULARIAK

Txistulariok San Juan jaietako ekimen askotan parte hartzen dugu, eta funtsezkoa da horietan eskainiko ditugun abestiak ondo prestatuta egotea. Horregatik, nahiz eta urtean zehar entseguak egin, Arrasateko jaiak hasi baino hiru aste lehenago, espresuki festetako entseguak ekiten diegu. Hainbatetan izaten gara txistulariak; esaterako, San Juan bezperan, ekainaren 23an, hain zuzen, salbea jotzen dugu eta gauean, errementari dantzan parte hartzen dugu. Horrez gainera, San Juan egunean, 24an, Arrasate Musikal bandarekin batera kontzertua eskaintzen dugu. 25a ere bada egun polita guretzat; egun horretan, *Zuk eiriñ, zuk jan* bazkaria antolatzen da eta txistulari guztiak bertan elkartzen gara. Lehen, bazkari hura antolatzen ez zenean, gure kontu biltzen ginen mahai inguruan; orain, ordea, bazkari horretaz baliatzen gara denok batera momentu polit batez disfrutatzeko. Oso egun politak dira jaietakoak guretzat, bereziak benetan.



Arrasateko txistulariak 2005. urteko Sanjuanetan eta duela bi urte. ARRASATEKO TXISTULARIAK



Trikitilariak 2007ko Sanjuanetan eta joan den urtean. ARRASATEKO TRIKITIXA ESKOLA



"Arrasateko kaleak girotzen ditugu"

ARRASATEKO TRIKITIXA ESKOLA

Egia esan, ikasturte amaierako eta herriko jaiak elkartzen zaizkigu, eta, beraz, horregatik, bi ekimenetarako entseguak bateratzen ditugu; eta dagoeneko hasi gara. Sanjuanak Arrasateko jaiak dira, eta gu bertako parte sentitzen gara, jaietako gure hazia jartzen diegulako; batetik, ikasturte amaierako kontzertuarekin jaietako hasiera emanaz, eta, bestetik, errementari dantzan zein dragoi-janean ere parte hartuz. Eskolako kide guztiak ekainaren 25an irteten gara kalejiran, modu honetan Arrasateko kaleak girotuz. Eta, nahiz eta guretzako San Juan festetako egunak lanegunak izan, urte osoan zehar ikasitako eta landutakoa kaleratzeko aukera bikaina da; horretarako, egun oso aproposak dira. Egia da trikitiak jaietako lotura duela, eta eskola barrutik kalera ateratzeko aukera bikaina izaten da. Trikitixa Eskolako txiki, gazte zein helduek disfrutatzen dute sanjuanetako egunetan, eta, guretzako, oso pozgarria da gure herriko jaietan parte hartzea.

SAN JUAN

Igaz ere Sain Juan, Sain Juan zantetan
aurten ere Sain Juan Bautista.
Jesukristoren lehengusua zan
Sain Juan, Sain Juan Bautista.

Hau da egia da Nagusia
kontsolatutzeko mundu guztia.

Ibai guztiak agortu dira
arraiñ gaixoak egarri
datorren urtean mutikotxuak
nun egingo dute igari

Hau da egia da Nagusia
kontsolatutzeko mundu guztia.



EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4,
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

*zure
zerbitzura*

San Juan egunean, Euskadiko txapelketa

Aurtengo San Juan jaietan zezen-plaza izango da, urtero legez, eta bigantxekin hainbat ekintza izango dira; entzierroa, kaleko maisuen Euskadiko hamabi errektadoreen arteko txapelketa, haurren errektadore txapelketa eta eskola

Imanol Beloki ARRASATE

Arrasateko San Juan jaietan, esnatzeko, gaiteroak irtengo dira kalera, 08:30ean, eta, horrekin batera, herritar askorentzat huts egin ezin den hitzordua izango da, 09:00etan: entzierroa, hain zuzen ere.

Portaloitik zezen-plazarako bidea zitzu bizian egiten dute bigantxek, eta herritar asko animatzen dira haien aurretik korrika egiten. Hori izan ohi da eta izango da entzierroak izango duen ibilbidea: Erdiko kalea-Kanpantorpea-Zearkaosteta eta J.M Arizmendiarrjeta plaza. Ondoren, dibertsioa izaten da nagusi zezen-plazan, eta harmailak beteta



laz, gazte bat bigantxari errektorea egiten. GOIENA

egoten dira. Txarangaren doinuekin gaupasa egin duten asko eta txintxo-txintxo goizean jaiki berri diren zaleak bigantxei errektoreak egitera animatzen dira. Iñigo Almortzak azaldu duenez, ikusmina handia da eta egunero plaza bete-beteta egoten da: "Entzierrorako bigantxa batzuk erabiltzen ditugu, handiagoak direnak; plazarako, berriz, txikiagoak. Hala, txiki eta biziagoekin jendea plaza barrura animatzen da errektoreak egitera..."

Kontrolatutako ekitaldia

Entzierrorako edo zezen-plaza barruan, beti izaten dira kolpeak; hala ere, segurtasun neurriak hartzen dituztela azaldu du Almortzak: "Ez dago arriskurik. Segurtasun neurriak hartzen ditugu; adarrak moztuta dituzte bigantxek, anbulantzia izaten da... Hala ere, beti izaten dira kolpe txarrak eta kontuz ibili beharra dago".

Errektadore txapelketa

Ekainaren 24an, 19:30ean, kaleko maisuen txapelketa izango da zezen-plazan. Herriz herri ibiltzen diren Euskadiko hamabi

errektadoreen arteko txapelketa jokatu da. Jauzi, errektore, eta abarrez gozatzeak aukera izango da, eta balentria handia erakutsiko dute zezenaren aurrean jartzen direnek.

"Sokamuturrean aritzen diren onenak izango dira. Lau talde egingo ditugu, hiru pertsonakoak, eta talde bakoitzeko bat finalera helduko da. Hala ere, eguraldiak asko baldintzatzen du, eta eguraldi ona izatea espero dugu".

Haurren txapelketa eta eskola

Ekainaren 25ean, berriz, 18:30ean, Bergarako Zezenak elkartekoek antolatuta, haurren errektadore txapelketa eta errektadoreen eskola izango da zezen-plazan; aurtun biak egun berean egingo dira.

Txapelketan 10-14 urte bitarteko gazteek hartuko dute parte, eta ondoren, errektadore eskolan, poneyak eta zezentxoak izango dira. "Errektadore eskola mundu osoari zuzendutakoa izango da. Txapelketan parte hartzeko, berriz, izena eman nahi duena gurekin harremanetan jar dadila", azaldu du Almortzak.

SANJUANAK 2017 ARRASATE

ITZALA • MONTE • OKORETEGI RUMBA • TXOKO II

**ONDO PASA
JAIXETAN!**





Makal txikia Biteri plazara heldu berri, iaz, Eguzkilaruren presentziarekin. GOIENA

Nobedadeak umeendako 'parranda egun' handian

Ekainaren 25ean hiru gun nagusi izango dira ume zein gaztetxoendako eskaintzan: Biteri, Zaldibar eta Jokin Zaitegi plaza; berrikuntzen artean, aurtan Zumbaokea, Kataluniako erraldoiak eta Txatxilipurdik antolatutako ikuskizuna dira protagonista

Jokin Bereziartua ARRASATE

Gozamen ederra hartuko dute herriko umeek zein gaztetxoek, bereziki, ekainaren 25ean, egun horretan biziko dute-eta *parranda egun* handia. Hiru gun nagusi hartuko dituzte egun horretan herriko txikiak: Biteri plaza, Zaldibar frontoia eta Jokin Zaitegi plaza. Biteriko umeendako gunean ur-jolasak, ludoteka, tirolina, puzgarriak eta aurpegi margotzea izango dira, besteak beste; Zaldibarren, berriz, gaztetxoei zuzendutako eskaintza egongo da. Denetariko jolasak egingo dituzte, ura protagonista dela. Amaitzeko, Jokin Zaitegi plazan apar festa izango dute, 13:30etik aurrera. Aurtan nobedadeak daude, gainera: Zumbaokea (12:45) izenarekin bataiatu duten ekintza, esaterako. "Dantzatu eta abestu egingo dugu aldi berean, zumba eta karaokea uztartuz. Lehen aldiz antolatu dugu, ea nola irteten den", adierazi du Txatxilipurdik.

Makal txikia, erraldoiekin

Duela urte gutxi atera zuten lehen aldiz makal txikia eta ordutik

hona, urtero, gogo handiz hartu izan dute gaztetxoek makala igotzearen ardura. Eguzkilaruri ongietorri beroa egin ostean (12:00) igoko dute makal txikia. Izan ere, umeek ez dituzte sanjuanak ulertzen Eguzkilaruren presentzia barik.

Ondoren, nobedade moduan ere, erraldoien konpartsakoen bisita izango dute Biterin: "Umeek parte-hartze saioan adierazi zuten erraldoiak gura zituztela. Arrasateko konpartsakoez gain, Kataluniako erraldoiak ere etorriko dira". Arrasatekoak Katalunian izan ziren eta orain Kataluniakoak etorriko dira bertakoek gonbidatuta.

Txatxilipurdikoen ikuskizuna

Aurtengo beste nobedade bat da Txatxilipurdik antolatutako ikuskizun batez goatzeko aukera izango dutela txikiak sanjuanetan, lehen aldiz: "Naturarekin zerikusia duen ikuskizuna izango da, Txatxilipurdiko bi lagun eskutik eskainia. Ume zein gurasoendako oso parte-hartzailea eta dinamikoa izango da; dantzatzeko, jolasteko... Osagai guztiak izango ditu".



aurretik doan unibertsitatea

Berrikuntza eta ikerketa oinarri dituen unibertsitatea gara. Enpresa eta erakundeekin zuzeneko eta etengabeko hartu emanean gaude, gizartearen beharrei erantzuteko prest. Harreman estu horri esker gure ikasketek praktikotasuna dute oinarri eta horren adibide garbiena gure ikasketen eredu duala da. Ikasleek unibertsitatean ez ezik enpresan edo erakundeetan bertan ikasten dutelarik.

www.mondragon.edu

bertako
kulturan
sustraiturik,
etorkizuna
eraikiz



Karta jokoan aritzeko hitzordua domekan

San Juan jaietako 21. mus txapelketa jokatu dute ekainaren 18an Jokin Zaitegi plazako Buenuena jatetxean. Izen emateetatik jasotako diruaren %95a banatu dute saritan, eta, horrez gain, elikadura produktuez osatutako otarrak ere bai

Maite Txintxurreta ARRASATE

Festetan dena ez da dantza eta musika, eta mahaiaren bueltan karta jokoan ere sanjuanak eduki ospatu daitezkeela frogatu dute azken 20 urteetan San Juanetako mus txapelketan aritzen direnak. Gero eta jende gehiago animatzen da parte hartzera, eta iaz inoiz baino bikote gehiago batu ziren.

Domekan da txapelketa, hilaren 18an, Buenuena jatetxean (943797936), 16:00etan hasita. Bikoteko 40 euro ordaindu behar da izen ematea. Zortzi erregetara jokatu dituzte partidak.

Lehen partidaren kanporatutako bikoteek ere jokatzen jarraitze-



Musean jokatzen, iazko sanjuanetako txapelketan. ROMAN LOPEZ

ko aukera dute, beste txapelketa paralelo bat ere jokatu baitute, eta bertako irabazleek ere sariak izango dituzte. Izen ematea: 20 euro. "Lehenago, goiz kaleratutakoek bertan jarraitzen zuten partidak ikusten eta euren kontura jokatzen; orduan, pentsatu nuen euren dute beste txapelketatxo bat antolatu behar-ko litzatekeela", azaldu du Roman Lopez antolatzaileak.

Sariei dagokionean, izen emateetatik batutako diruaren %95a emango dute dirutan; esaterako, bikote txapeldunak 1000 euroko saria izango du 50 bikotek izena ematen badute. Hala, bikote txapeldunordeak 500 euro jaa-soko luke; hirugarrenek 300 euro, eta laugarrenek, berriz, 100 euro. Diruaz gain, baina, jateko zein edateko produktuez osatutako sariak ere banatu dituzte lehen sailkatu horien artean. Sariok Mertxe dendan ikusgai daude.

21 urte txapelketa antolatzen

Txapelketa horren atzean Roman Lopez arrasatearra dago. 21 urte daramatza lan horretan, eta nola hasi zen galdetuta, honakoa azaldu du: "Beti izan dut musareki-

ko afizioa, eta lehenago 103 emakumeri mus eskolak ematen nizkien, eta San Viatoreko umeei ere bai. Eta ikusten nuen beste herri batzuetan bazeudela txapelketak eta Arrasaten ez; beraz, antolatzea erabaki nuen".

Pozik dago Lopez txapelketaren bilakaerarekin; izan ere, iaz parte hartzaile kopuruari dagokionean errekorra egin zuten, 36 bikoterekin. Arrasatearrez gain, inguruko herrietako jendea ere animatzen da parte hartzera. "Iaz sariak handitu genituen, eta gainera, goiz kanporatutakoek jokatzen jarraitzeko aukera ere jarri genuen. Orduan, jende asko animatu zen".

Ze jende parte hartzen duen galdetuta, adinari dagokionean "denetarik" dagoela dio Roman Lopezek: "Gazteenek 20 urte inguru izaten dute, eta 65 urtera arteko parte hartzaileak izaten ditugu, baita nagusiagoak ere". "Hasieran emakumei zuzenduta zegoen, baina gero gizonen ere zabaldu genien. Orain, parte hartzen duten ia denak gizonak dira", azaldu du. Hala ere, emakumeak ere parte hartzera animatu nahi izan ditu.

SAN JUAN JAIK 2017

GOIENA TELEBISTA, 'HEMEN DEBAGOIENA'
JAIK: SAN JUAN JAIK 2017

EKAINAK 26, ASTELEHENA, 18:00, 20:00, 22:00

GOIENA TELEBISTA, 'JAIK: SAN JUAN JAIK 2017'

EKAINAK 28, EGUAZTENA, 21:00



goiena
ZU HEMEN ZAUDE

"Gu ezagutzeaz gain, primeran pasatuko dute"

LOREA IRIBAR AKTOREA ETA ABESLARIA

'Go!azen' telesaileko protagonistek antzezlan musikatu eskainiko dute ekainaren 26an, Monterron parkean, 18:30ean; emandiko protagonistetako bat da Lorea Iribar

Eneko Azurmendi ARRASATE

Iribarrek parte hartzera gonbidatu ditu jarraitzaileak.

Zer eskainiko duzue emandian?

Alde, batetik, karaokea dauka, eta jendearen parte-hartzea eskatzen dugu momentuan bertan –gehienbat, umeak izaten dira–. Bestalde, dantza eta antzerkia ere baditu ikuskizunak. Hiru gauza horien nahasketa dela esan daiteke. Esan behar da interakzioa handia dela, beti ikusleekin harremanak izaten saiatzen gara.

Ze abesti mota izaten dira?

Go!azen telesailean atera diren abestiak. Askotariko kantuak izaten ditugu, baladak eta kan-

tu mugituagoak ere bai, guztiak ere euskarazkoak.

Badu ezer nabarmentzekorik edo berezitasunik ikuskizunak?

Nik uste dut garrantzitsuena dela umeek eta jarraitzaileek aukera izaten dutela gu gertutik ezagutzeko, gurekin hitz egiteko eta gurekin parte hartzeko. Gu ere inplikatzeko gara eta nik uste dut hurrekin horrekin pasatzen dutela ondoen.

Anekdotak kuriosorik?

Oraindik bost funtzio egin ditugu eta ez dugu esperientzia handirik. Baina kurioa iruditzen zait umeek, hain txikiak izanda, nola dakizkiten *Go!azen*-eko abesti guztien letrak.

Gogoratzen naiz bi neskatxo igo genituela oholtza gainera, mikrofona hartu zuten eta abestia goitik behera zekiten.

Eurendako ere poz handia izango da zuekin egon ahal izatea, ezta?

Desberdintasunak egoten dira zaleen artean. Batzuk lotsatia goak dira eta gehiago kostatzen zaie guregana hurbiltzea. Baina beste batzuk zuzenean etortzen zaizkizu, korrika, besarkada bat ematera, eta hori oso polita da guretzat.

Arrakasta handia izaten ari zarete bira honetan. Joaten zareten leku guztietan sarrerak agortzen dira.

Denbora guztian musika presente dago gure ikuskizunean



Lorea Iribarrek Nora pertsonaia da Go!azen telesailean. GOIAZEN

eta umei asko gustatzen zaie abestea eta dantzatzea. Musikal formatua izateak eragiten du arrakasta hori, nire ustez. Lehenengo funtzioa Donostian egin genuen eta 700 pertsona izan genituen, sarrera guztiak agortu ziren.

Telesaileko denboraldi berria prestatzen hasi zarete dagoeneko?

Udan grabatzen hasiko da. Denok ez gaude. Izan ere, erdiak

jarraitzen dute grabaketetan eta beste erdia ikuskizun hau egiten gaude. *Go!azen* fenomeno arlo askotara zabaldu nahi izan dute, ez telebistatik bakarrik. Horregatik ari gara bira hau egiten.

Zer esango zenieke zuek ikustera gerturatuko diren arrasatearrei?

Gu ezagutzeaz gain, primeran pasatuko dute, bai umeek, baita gurasoek ere. Beraz, animatu, parte hartu eta disfrutatu.

in SUMMER time



Udalekuak



mondragonLingua





Ikastaroak atzerrian



Ingeles, aleman eta frantses ikastaro trinkoak

Informa zaitez zure MondragonLingua zentroetan



Hizkuntza-eskakizunak First certificate

ARRASATE
Araba etorbidea 4.
Tel.: 943 71 20 55

OÑATI
Motxon kalea.
Tel.: 943 71 60 00



Sanjuanetako magazineko aurkezle Karmele Zuazubiskar –ezkerrean– eta Tomas Axpe –eskuinean–, bi gonbidaturekin. ARRASATE PRESS

Jaiak kaletik zuzenean, Internetik ez zegoenean

1990eko hamarkadan saio bereziak ekoizten zituen ATBk sanjuanetan, Seber Altubetik zuzenean; orduko teknikarien arduradun Jon Aldanondok "nekea" gogoratzen du: "Lau eguneko maratoiak ziren, baina ondo egindako lanaren sentsazioarekin amaitzen genuen"

Jokin Bereziartua ARRASATE

Ekitaldi garrantzitsuak streaming bidez zuzenean ikus daitezke gaur egun, belaunaldi gazteak ohituta daude halako erraztasunak izatera. Eta sanjuanak, ezin ukatu, egun garrantzitsuak dira oraindik ere Arrasaten. Bada, duela 20 urte baino gehiago, Internet eta, beraz, streaming barik, arrasatearrek izan zuten aukera sanjuanak etxeko telebistatik zuzenean bizitzeko. Izan ere, 1990eko hamarkadan jaietako egitarauan jasota etortzen ziren Arrasate Telebistak (ATB) Seber Altube plazan egiten zituen zuzeneko saio bereziak. "Bote prontoan oroitzen jarrita, nekea gogoratzen dut. Lau eguneko maratoiak ziren zuzeneko saio haiek. Leher eginda amaitzen genuen. Lan itzela egiten zen, bai jaiak hasi aurretik eta baita jaiak irauten zuten lau egunetan ere", gogoratzen du garai hartan ATBko teknikari arduraduna zen Jon Aldanondok. Goizean zein arratsaldean grabatzen zuten, gutxi gorabehera, 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik

18:00etara. Muntai handia eskatzen zuenez –ezin da ahaztu material guztia kalera atera behar izaten zutela–, goizean goiz lanean hasi eta gauera arte luzatzen zen jarduna. Eta bost ordu inguruko saio bat ekoizteko lan handia egin behar zen aurretik. "Erreportajeak egin, egunean bertan editatu... Goizean jaietako ekintzen inguruko bideoak muntatzen genituen eta arratsaldean txikien txanda izaten zen, bereziki. Umeekin, AEDko Eguzkilaru [Eguzkilaru bera ere jaioberria zen orduan] eta guzti, lehiaketak egiten genituen", gogoratzen du Aldanondok. Eta hori guztia gutxi balitz, Seber Altube plaza jaietako hainbat ekitalditarako ere erabiltzen zenez, libre utzi behar izaten zuten: "Egunero-egunero, goiz eta arratsalde, guztia muntatu

**ARRAKASTAREN
ADIERAZLE, JAIETAKO
EGITARAUAN ERE
IRAGARTZEN ZIREN
SAIO BEREZI HAIK**



OLGETA

GOZATU - HEZI - MAITATU

JOLAS ETA JOSTAILUEN AHOLKULARITZA,
MAILEGUTZA ETA SALMENTA ZERBITZUA

*Ondo ibili
sanjuanetan!*

Zerkaosteta 4 behea • Tel.: 628 67 35 50 • www.olgeta.eus • olgeta@olgeta.eus

ARETXARGI

aretxargi@aretxargi.com

BELORRIETA, 15 BEHEA 20550 ARETXABAETA - GIPUZKOA

☎ 943 532 628 ☎ 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK



Gora
sanjuanak!



eta desmuntatu egiten genuen. Zorarena zen".

Kableak Kulturateko teيلاتutik

Ezin da ahaztu, gainera, garai hartako baliabideak eta gaur egungoak oso ezberdinak zirela. "Orduan ez zegoen internetik, gaur egun dena aldatu da. Edizio guztia fisikoa zen, zintekin egiten genuen lan. Kable guztiak fisikoki botatzen genituen egotzako teيلاتutik [ospitale zaharrean zegoen ATB, gaur egungo Kulturaten], kamera astunak eta argiztapen propioa behar zutenak... Eta horri euria gehitzen badiozu, ba, pentsa...".

Oztopoak oztopo, merezi izaten zuen halako lana hartzea, Aldanondoren arabera: "Amaieran oso gustura eta pozik bukatzen genuen, ondo egindako lanaren sentsazioarekin".

EGUNERO MUNTATU ETA DESMUNTATU BEHAR IZATEN ZUTEN, JAIETAKO EKINTZAK ERE EGOTEN ZIRELAKO

ATBko 'tripak' erakustea

Aldanondoren ustez, ATBk "bete-bete" asmatu zuen San Juan jaietako Seber Altubeko zuzeneko saioekin: "Telebistak presentzia zuen kalean, herri-tarrekiko gertutasun handia. Telebista kalera ateratzen genuen eta arrasatearrek aukera izaten zuten ikus-entzunezkoak nola egiten ziren bertatik bertara ikusteko. Oso esperientzia polita izan zen. Polita bezain nekagarria eta gogorra".

Izan ere, hainbat eta hainbat arrasatear gerturatzen ziren Seber Altubera eta herritar askok orduan ezagutu zituzten telebistaren *tripak* bertatik bertara: "Kamerak eta kameralariak, nahasketa-mahaia, dekoratu ezberdinak... Gu lanean buru-belarri aritzen ginen eta momentuan bertan ez ginen askorik enteratzen, baina uste dut jendeak estimatzen zituela saio haiek. Jende asko ibiltzen zen bueltaka, galdetzen ea tramankulu hori zer zen, zertarako erabiltzen zen... Jendeak *Arrasate Press* etxean jasotzen zuen eta oso ezaguna zitzaion, baina telebista ez zen horren



Ume eta gaztetxoak betetzen zen Seber Altube plaza zuzeneko saioetan. ARRASATE PRESS

ezaguna. Ez, behintzat, atzetik zegoen lana eta material guztia".

Arratsaldeak umeendako

Goizean zehar jaietako edukiekin osatzen zuten saioa eta arratsaldean herriko umeak izaten ziren protagonista. "Gogoratzen dut Unai Iparragirre aurkezle aritzen zela. Unairekin batera lantalde ederra zegoen, artista hutsak ziren gidoiak-eta prestatzen. Umeendako lehiaketak

antolatu, sariak lortu... Lan handia egiten zen lehiaketa horiek aurrera ateratzeko eta arrakasta handia izaten zuten". ATBren saio horien arrakasta horren adierazle da, esandako moduan, urteetan San Juan jaietako egitarau ofizialean jasota agertzen zirela. Aldanondok ez du gogoratzen zenbat urtetan zehar grabatu zituzten: "Baina ni sei edo zazpi urtetan aritu nintzen, gutxienez".

Aurten ere, pantaila Herriko Plazan

San Juan bezperan aurten ere pantaila erraldoia jarriko du Arrasateko Udalak, Goienaren eskutik, Herriko Plazan –Iturriotz kalearen aldean–. Makalaren igoera, errementari dantza, alkatearen agurra eta danborrada zuzenean ikusi ahalko dira plazan bertan eta streaming bidez, *goiena.eus* eta *arrasate.eus* webguneetan. Goiena telebistan ere zuzenean ikusi ahalko da. Iaz oso harrera ona izan zuen ekimenak; hainbat herritar batzen dira San Juan bezperan Herriko Plazan eta pantaila erraldoiari esker lehen lerroan ez zeudenek aukera izan zuten plazan gertatzen ari zena zuzenean ikusteko –bost metro luzeran eta hiru zabaleran–.



Ondo ibili
sanjuanetan!

FENIX MATERIALA



Argia oso gutxi islatzen da



Arrastoen aurkako digitala



Bakterioen aurkako eraginkorragoa



Garbitzeko erraza



Hidrofugoa



Ukitzean leuna da



Urragorria

carrascaladapt
sukaldeak bainuak armairuak

ZEURE NEURRIRA, ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate

Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com

**san
juan
jaiak**

**Jai zoriontsuak
guztiori**

Sanjuanetako eskaintza

%10eko deskontua

gorputz tratamenduetan

LIRAIN
Estetika Zentroa



RS: 48/14
Ez da osasun
zentroa

Bixente Ferrer, 1 20500 Arrasate Tel.: 943 79 52 17

Asteburuan ur-jolas parkea zabalik

Hainbat hobekuntza eta txukuntze lan egin dituzte azken asteetan Sagasti auzoan dagoen ur-jolas parkean. Tartean, komunak jarri dituzte, erabiltzaileen erosotasunerako, eta zenbait irisgarritasun lan egin dituzte

Maidar Arregi ANTZUOLA

Bainu denboraldia abian da De-bagoiengan. Hala, Antzuolan ere, iaztik hona, herriko gazte-txoendako freskatzeko dagoen ur-jolas parkea zabalik izango da asteburuan. Sagasti auzoko parkeari gaur bertan azken ukituak emango dizkiote ondoren zabaltzeko. "Ahal bada, gaur bertan zabalduko dugu. Dena prest dago, baina osasun-inspektzioa pasatu beharko du parkeak. Urtero denboraldia hasi aurretik pasatu beharreko inspektzioa. Espero dugu gaur bertan etortzea eta zabaltzea", esan du Beñardo Kortabarria alkateak.

Irisgarritasun lanak

Bestalde, hobekuntza ugari egin dituztela azaldu du alkateak: "Komuna jarri dugu parkeko belardian. Sarrera egokitu dugu gurpil aulkientzat irisgarri egin, eta parke inguruko magaltxoak zementuarekin batu dugu belardian dagoen lokatza uretara joan ez dadin. Eta iaztik hona, ur-parke osoa hesituta dago, gainera, txakurrik sar ez dadin".

Komunak ere prest

Aurrefabrikatutako komunak jarri berri ditu Udalak. "Bertan konketa bat eta komunontzi bat



Ur-jolas parke guztia hesitua dago, txakurrik sar ez daitezten. MAIDER ARREGI

TXUKUNTZE ETA IRISGARRITASUN LANAK EGIN DITU ANTZUOLAKO UDALAK UR-JOLAS PARKEAN

dago soilik. Horrek esan nahi du erabilera mistoa izango duela komunak. Gainera, neurri nahikoa dauka eta irisgarritasun eskakizunak betetzen ditu. Eskakizun horiek betetzeko asmoz, hormigoizko espaloia

egin dugu komuneko ateraino", argitu du Antzuolako Udaleko Hirigintza teknikari Valen Moñuxek. "Egindako lan garrantzitsuenen artean, adibidez, ur-jolasen ingurua hormigoiarekin estali da; horrela, lurra ez da parkera eroriko eta garbi mantenduko da. Bizikletak garbitzeko gunea babestu egin dugu, jolas parkean urik ez sartzeko. Izan ere, gune honetan ere lokatz pixka bat sortzen zen. Behin zirkuitu guztia garbituta, prest egongo da zabaltzeko", argitu du Moñuxek.

Komun irisgarria martxan

Ur-jolas parkeak urtebete egingo du. Aisialdi gunea, baina, itxura berrituta dator, eta, erosoagoa izateaz gain, irisgarriagoa ere bada; komunak hormigoizko espaloia dauka, eta irisgarritasun neurri eta eskakizun guztiak betetzen ditu.

Mistoa

Erabilera mistodun komunontzi bakarra dago.



Komuna jarri dute aurtengo bainu denboraldirako. MAIDER ARREGI



Eguen arratsaldean egindako ekitaldia, Zurrategin. ANTZUOLAKO EH BILDUK

Pertsonei eman nahi die garrantzia EH Bilduk

Eguenean, Antzuolako EH Bilduk etorkizunerako jardunbideez berba egin zuen herritarren aurrean

Maidar Arregi ANTZUOLA

Beñardo Kortabarriaren eta Juan Karlos Izagirreraren eskutik, Antzuolako EH Bilduren etorkizunaren gaineko gogoetaz jardun zuten. "Kurtso berriari begira, oinarri eta balore sendoak ezarri ditugu: aniztasuna eta parte-hartzea oinarri, herri eraikuntzan sakonduko dugu. Antzuolari begirako agenda propio eta publikoa ere definitu dugu", azaldu zuten EH Bilduko ordezkariak. Era berean, Juan Karlos Izagirrek azpimarratu zuen pertsonek direla alderdiaren ardatza: "Fase berri honetan, alderdiari baino

gehiago, pertsonei eman gura diegu garrantzia; EH Bildu jaio zen leku irekia izateko. Estruktura propioak izango ditu arazoak antzematen direnean erantzunak berehala emateko".

"Nola jardun eta antolatuta behar dugun erabakita daukagu: udazkenetik aurrera ongizatearen gaineko lanketa egingo dugu; parte-hartze prozesua martxan jarriko dugu eta denon artean erabakitzea izango da helburua. Herria herritarrek nahi dutena izan dadin gura dugu, eta parte hartzea denei zabaltzea", azaldu zuen Beñardo Kortabarriak.



IMANOL SORIANO

'Gorritz' jantzi da AKE eguna

Helburuak ondo baino hobeto beteta, denboraldi bukaerako festa borobila egin zuen zapatuan AKEk. 300 lagun batu ziren pilotalekuan, bazkaritarako. Goizean, futbol eskolako neska-mutikoen partiduak ikustera herritar ugari joan zen eskolako patiora.

Leire Martin Pineda *selfie* bat egiten, lagun batekin.

Martín Gurasoak alabaren argazki zaharrak ikusten.



IGAMeko kide Aitor eta Jon Ander Garitano eta Txus Iglesias.



Ikaskideek argi dute: "Begiratu harago!". ARGAZKIAK: GOIENA

Leire Martinekin, harago begiratzeko jaialdia bihar

IGAMek antolatuta eta herri osoaren inplikazioarekin, bihar egingo da Leire Martinen aldeko jaialdi erraldoia; Martinen familiarekin, lagunekin eta antolakuntzarekin egon da Goiena telebista asteon, eta ikaskideek argi eta ozen adierazi dute: "Begiratu harago!"

Jokin Bereziartua BERGARA

Bihar da egun handia, bihar egingo da muskulu-atrofia espinala duen Leire Martin Pineda bergararraren aldeko jaialdi erraldoia. Bergarako herri osoa inplikatu da egunaren bueltan; egitaraua ikustea besterik ez dago hori ziurtatzeko. "Horrenbeste jende eta eragile inplikatu dira, denak zerren-

datzen hasiz gero baten bat ahaztuko zaigu. Eskerrik asko zapatuko [biharko] jaialdia posible egin duzuen guzti-guztiori", adierazi du IGAMeko kide Jon Ander Garitanok. Eta honako hau gaineratu du: "Ea dena ondo irteten den, halaxe espero dugu. Ospatzeko eguna izango da". Ospatzeko eguna bai, baina, Garitanok gogoratu duenez,

bereziki Martinendako eta Martinek pairatzen duen gaixotasunaren aurka borrokatzen den FundAME elkartearendako ahalik eta diru gehien lortzea izango da helburua.



Goiena telebistako erreportajea ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

Leire Martinen aldeko IGAM jaiaren egitaraua

Goizean

- **11:00-14:00** Puzgarriak eta Jardunekin jolasak.
- **12:30-13:30** Candem Town dantza akademia eta Moises Azpiazu taldearen ikuskizuna.

Arratsaldean

- **17:00** IGAM taldeari harrera Boluan; kalejira handik frontoira, erraldoiekin, soinu-joleekin eta Udal Txistulari Bandarekin.

- **18:00-19:30** Kontzertua frontoian: Alai Taldea, Aritzeta, Jardun, Musika Eskola, Bergarako Orfeoia, Bergarako Orkestra Sinfonikoa, Bergarako Banda, San Joxepe eta Udal Txistulari Banda.
- **19:30** Le Bart magoa San Martin plazan.
- **19:30** Musika-poteoa herriko kaleetan.

- **21:30** Herri afaria San Martin plazan. Euria bada, Aranzadiko gimnasioan.
- **22:30** Zozketa plazan.
- **23:00** Kontzertuak San Martin plazan: Moittuui, Azkaiter Pelox, Asea, Diabolus & Blucifer, Fly Shit eta Francis Diez (Doctor Deseo).
- **02:30** Gaztetxean jarraituko du festak.

Gobernuak alokairu sozialarekiko "interes falta" duela dio Irabazik

Alokairurako laguntzetara bideratutako 30.000 euroko partida "makillaje hutsa" dela uste du koalizioak

J.B. BERGARA

Irabaziren ustez, etxebizitzaren arazoa konpontzeko "ezinbestekoa" da Udal Gobernuak onartzea herritarrek duten etxebizitzarako eskubide subjektiboa: "Azken bi hamarkadetan etxebizitza gehiegi eraiki dira Bergaran eta oso gutxi bideratu dira alokairu sozialera. Alokairua garesti dago egun, eta, ondorioz, herritarrendako irtenbide bakarra etxe bat erostea da. Egoera horrek herritarrek entitate finantzariekin urte askotarako lotzen ditu, herriko ekonomia mantsotuz". Hala,

uste dute Gobernuak laguntzetara bideratutako 30.000 euroko partida "makillaje hutsa" dela, eta diote Gobernuak ez duela alokairu sozialarekiko interesik: "Bi urte daramatzagu alokairu sozialerako etxebizitzaren parke publiko handi bat izateko urratsak egiteko eskatzen, beti ezetza jasoz. Ezinbestekoa da, epe ertainera, etxebizitzaren portzentaje handi bat jabetza publikokoa izatea", gaineratu dute. Amaitzeko, Irabaziren ustez, Jaurlaritzaren Bizigune programa ez da konponbidea.

Orfeoi gaztearen kontzertua Mariaren Lagundiko elizan

13 eta 16 urte arteko gazte osatutako Bergarako orfeoi gazteak kontzertua emango du gaur Mariaren Lagundiko elizan, 20:00etan. Abesbatzan 21 gaztek hartzen dute parte gaur egun, Nagore Sanz zuzendariarekin; piano laguntzaile lanetan Anabel Henao aritzen da. Bergarako Stoltz-Freres organoaren aldeko kontzertua izango da.

Ikasturte amaierako erakustaldia egingo du Ariznoa klubak

Urteroko ohiturari eutsiz, Ariznoa gimnasia erritmiko taldeak ikasturte amaierako erakustaldia egingo du bihar, zapatua, Labegaraian (18:30). Ariznoa klub osoko gimnastek hartuko dute parte erakustaldian, eta, antolatzaileek aditza eman dutenez, abian duten zozketaren zerbaki irabazleak ere aterako dituzte biharko erakustaldian.



SAN MARTIN AGIRRE

'Eskola jasangarria' ziurtagiria

Goiena komunitatea / San Martin Agirre Herri Eskola / BERGARA

Gure eskolak 2011-12 ikasturtean lortutako *Eskola jasangarria* ziurtagiria jaso du. Ikastetxeko zuzendari Begoña Otsoa-Aizpuruari eman dio diploma lñigo Urkullu lehendakariak. Urkulluk ziurtatu duenez, klima-aldaketari buruzko Parisko Akordioetan sinatutako konpromisoak beteko ditu Euskadik.

Bi urtez "koherentziaz" gobernatzearekin pozik

Agintaldi erdiaren balorazioa egiterakoan, Gobernuak dio Udala erakunde "arduratsua, eraginkorra eta entzulea" izatea lortu dutela eta gaineratu dute herritarren partaidetza "garrantzitsua eta ezinbestekoa" izan dela proiektu ezberdinak garatzeko orduan

Jokin Bereziartua BERGARA

2015eko ekainean Udala Gobernura heldu zirenetik, EAJko eta PSE-EEko zinegotziek bi urteko agintaldiaren balorazioa egin dute asteon. "Koherentziaz" gobernatu dutela diote eta euren kudeaketarekin Udala erakunde "arduratsua, eraginkorra eta entzulea" dela adierazi dute: "Gobernua egiteko erak oposizioan geundenean egindako lanean dauka oinarria, garai hartan esandakoa izan zen gure abiapuntua duela bi urte. Hori posible da lehen eta baita orain Bergararen eta bergararren alde lan egiten genuelako eta dugulako, eta egingo dugulako".



Udal Gobernua osatzen duten zinegotziak, asteon, udaletxe barruan. JOKIN BEREZIARTUA

Partaidetza, "ezinbestekoa"

Azaldu dutenez, herritarren iritzia "garrantzitsua eta ezinbestekoa" izan da azken bi urteotan. "Horregatik, ia zozerra-maileen mahaia sortu genuen lehen aldiz, foro bat non lau alderdiak ordezkatzuta dauden. Horrez gain, 2016an zehar auzo guztiekin bilerak egin genituen, euren beharrak ezagutzeko eta martxan jarri dugu lan esparru berria. Landa eremuko auzoak ere gure lehentasunen barruan aurkitzen direlako".

Herritarren partaidetza da gobernuaren beste "zutabe" bat. Adibidez, Boluko frontoiaren proiektua zehazteko bilera egingo dute datorren astean eta Espoloko kioskoaren gaineko bilera irailean egingo dute auzotarrekin. Baina, diotenez, izan dira beste adibide batzuk: "Hondakinak biltzeko egoeraren aurrean ere egin genuen, Ipinzako harmailak gure programan zeuden baina elkarrekin landu genuen, Labegarailetako gunea, Zubietako bizilagunak, Seminarioko aretoa... Partaidetzaren bitartez egin ditugu". Seminarioko erabilera anitzeko aretorako lanak urte amaierarako bukatuko direla espero dute.

"Obra zaila izaten ari da, hainbat lan txiki dituen".

Hiru irizpidetan oinarrituta

Bestalde, Udala "eraginkorra" izatearen adibidetzat jarri dute udal webgunea berri izana eta herrian wifia jartzea. "Gabonetarako izango dugu", diote. Bestelako lanen artean aipatu dute eserlekuak margotu dituztela, bidegorri-sarea osatzen ari direla, Mugertzako etxea eraitsi dutela edota Mekolaldeko zubia egin dutela, diotenez, bizilagunei kalterik sortu gabe. Gobernuak

Udaletik erakunde "entzulea" egin duela ere uste dute. Diote diru laguntza deialdia herriko eragileen beharrei egokitu eta eguneratu dutela. Eta erakunde "arduratsua" izatearen adibidetzat irigarritasunaren arloa azpimarratu dute: "Bidegorri sarea mol-datzen eta osatzen ari gara, Eskuaire proiektua [zeinu hizkuntza itzultzaile-zerbitzua] abiatu dugu lehen aldiz, arrapalak jarri dira eskailerak kenduta eta ate automatikoak ezarri dira; herri argitsuagoa dugu eta kostu ekonomikoa murriztuko dugu".

Bolua: emergentzia egoera amaituta

Boluko lur-jausiaren ondorioz euren etxeetara itzultzerik izan ez duten herritarrak bueltatzeko bi baldintzak gainditu direla eta emergentzia egoera amaitu dela dio Udalak: "Sarea jartzea eta arriskuen jarraipen eta segurtasun plana izatea. Mendi maldari eusteko sarea dagoeneko ezarrita dago eta plana aspalditik dugu", adierazi zuen atzoko agerraldian Elena Lete alkateak. Agerraldi berean adierazi zuten bizilagun kaltetuek, bost hilabeteren ondoren, euren etxera itzuli ahalko direla. Horretarako, baina, bizilagun batzuek zenbait konponketa lan-kalteak ezberdinak dira-egin beharko dituzte, etxe barruan zein atarian. Bestalde, itxita zegoen bidegorriaren zatia ere irekitzea erabaki du Udalak.



NIRE USTEZ

PEDRO GARITANO

Betiko antzera

Mundua aldatu egin da, baina ez pentsatzen dugun bezain beste. Horren adibide, kristau mundua. Baina ez naiz sartuko alderdi espiritual edo teologikoan... Aurrekoan, gazte batek bota zuen doministikuaren aurrean, lagun batzuek errieta egin zioten: "Aizak, hi, siku hago, kajia izorratuta daukaki!". Barregura sartu zitzaidan, eta *doministiku* berba etorri zitzaidan -*Dominus Tecum*-, kristau mundura eramaten gaituena, VI. mendeko izurriteak harrapatu zuela erakusten zuen, eta entzuten zion lehen auzokoak "Jesus" erantzuten zion, eta ziur asko izurritea izango zuenak erantzuten zion, etor lekiokkeen etorkizun eskasa aurreratuz: "Eskerririk asko". Gaur egun sarritan ikusten da gure belaunaldiko jendearen artean nola animatzen zaion "Jesus" batekin katarroa duenari. Kristau aroa duela 21 mendekoa da, eta, adibidez, Bergarako Aritzetako San Migel bazegoen duela gutxienez hamaika mende. Ez zen izango orduan orain bezain ederra, edertasun horren zati handi bat Margaritari zor diogulako, benetako lorategi botanikoa dauka-eta, Igokunde egunean ikusi ahal izan genuena. Gora igo...



IMANOL SORIANO

Puleva Koparen lehena Bergaran

Ekainaren 10ean lehen aldiz jokatu zuten saskibaloiko Puleva Kopa ezaguna Bergaran; EAEko alebin eta benjamin mailetakoko neska onenak Labegarailetan elkartu ziren. BKEko saskibaloitako taldekoak oso pozik zeuden ekimenak eman zuenarekin: "Labegarailetako beteta egon da, aparteko giroa sortu da eta partidua benetan politak ikusi ditugu". Bi mailetan, Easoko neskek izan ziren nagusi.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



El Desvan del Macho taldea osatzen duen hirukotea promoziorako argazki baten. CANTABRICOMUSICAL.COM

Ganbaratik kartzela zaharra astintzeko gertu

Kartzela zaharreko 17. urteurreneko egitarauaren barruan kontzertua berezia eskainiko dute gaur (22:30) El Desvan del Macho arrasatearrek eta Norman eibartarrek; hilaren 21ean, berriz, 'Laura esaten zioten' liburuaren aurkezpena izango da, 19:00etan hasita

Jokin Bereziartua BERGARA

Kartzela zaharraren 17. urteurrenaren harira antolatu den egitarau zabalaren barruan kontzertu berezia izango da gaur 22:30ean hasita: El Desvan del Macho eta Norman. Kontzertu berezia izango da, izan ere, bi talde horiek agertoki gainean ikusteko aukera handirik ez da

izaten. El Desvan del Macho talde arrasatearra ondo ezagutzeko atzera egin beharra dago denboran, 1980ko hamarkadaren amaieran sortutako taldea delako.

'El Desvan'-en berezitasuna

Taldearen ibilbidea ondo eza gutzen duen Iker Barandiaran musikazale arrasatearrak ho-

nela azaldu du taldearen sorrera: "Punkaren gerizpean –eta askotan erasopean– existitu zen eszena aberats baina gutxietsitakoaren errautsetatik sortu zen taldea. Siniestroak, post-punkak ziren *El Desvan*-en aurrekari Matrona Impudica eta Jugos de Otros-en gisako taldeak eta Stranglers zein The Cure

jarraitzeko gai baziren ere, 1990eko hamarkadan Sonic Youth-en eskaintzarekin txunditzeko eta berau gurtzeko azkartasuna izan zuten. Beste batzuek baino lehenago artaldeetik kanpo egin zuten, bide propioa hartuta arriskatu eta guztia kontra bazuten ere, aurrera egin zuten beti ideiak garbi izanda eta egiten zutena maitatuz". JG Izcue da taldearen sortzailea eta gidaria; aurretik beste proiektu batzuetan parte hartu izan du, baina 1989tik El Desvan del Macho hirukotearekin dabil buru-belarri.

Hori bai, 28 urteotan ez dituzte kontzertu larregi eman; apirilean kaleratutako *Funeral económico* izeneko bosgarren diskoarekin etorriko dira gaztetxera. "*Funeral económico* apaldu da gordintasunean, ez ordea hitzetan –taldearen marka dena– eta berezko erritmo aldaketa jolas, dotorezia, kabalkada eta baxu sarkorrari gehitu dizkio Primus-en kadentziak (*La castidad del omóplato*), Mike Watt-en aberastasuna (*Balido felpudo*), post-rockaren esentzia (*Ustel edo la vaca*) zein patroï rockeroa (*Petrogrado*), besteak beste", zehaztu du Barandiaranek.

Norman ere, sailkatzen zaila

Arrasateko *El Desvan*-ekin batera, 2007an Eibarren sortutako Norman taldeak ere joko du gaur. Danbaka musika lehiaketako finalistak izandakoak, Norman

ere musikalki sailkatzea oso zaila den taldea da. Rock korapilatsua eta bihurria egiten dute, post-hardcorearen ukitu nabarmenekin. Erritmo aldaketa asko, iluntasuna... Eta jarrera.

Dorleak izeneko hirugarren diskoa atera berri dutela –bandcamp plataforma digitalean dago entzungai–, kontzertu batzuk ematen ari dira; hala ere, *El Desvan*-en antzera, ez dira aukera larregi izaten talde eibartarra zuzenean ikusteko.

Ekitaldiz jositako urteurrena

Zapatu gauean Leire Martinen aldeko jaialdiaren amaiera biziko dute gaztetxean eta domekan, hilak 18, Txiki Festa izango dute Haur eta Guraso Asanbladak antolatuta.

Ekainaren 21ean, berriz, Angiolillo liburutegiak eta Martxantere antolatuta, *Laura esaten zioten* liburuaren aurkezpena egingo dute (19:00). El Salvadorgo Nazio Askapenerako Farabundo Marti frontean ibilitako Miren Odriozolaren istorioa kontatzen du liburuak. Odriozolak berak eta Leire Ibarguenek hartuko dute parte liburuaren aurkezpenean.

KONTZERTUA GAUR, LEIRE MARTINEN FESTAREN AMAIERA BIHAR ETA FAMILIA PLANA DOMEKARAKO



MAIDER ARREGI

Herriko sortzaileak protagonista Koldo Eleizalden

Joan den zapatuan banatu zituzten 32. Koldo Eleizalde lehiaketako sariak. Udal Pilotalekua gainezka zegoela, senitartekoez zein lagunek txalo artean hartu zituzten saridunak. Lau kategorietan –ipuin idatzia, interpretazioa edo kontaketa, bertsoa eta komikia–

hainbat lan jaso ziren; 36 sari banatu zituzten. Euskara zinegotzi Izaskun Labaienek 32. edizioaren gaineko balorazio positiboa egin zuen: "Harribitxi politik izaten dira; jendea euskaraz idaztera bultzatu gura dugu, bakoitzak barruan daukan hori idatziz ateratzera".

Omenaldia Migel Okinari etzi, Beart Egunaren barruan

Migel Okina margolari bergararrari omenaldia egingo zaio domekan, hilak 18, udaletxeko osoko bilkuren aretoan (12:30). Beart elkartearen egunaren barruan egingo diote omenaldia. Simon Arrietaren ikasle moduan hasi zen Okina, eta bere zaletasuna eta pasioa ofizio bihurtzea lortu zuen. Udalak eta Beart-ek elkarlanean antolatu dute omenaldia. Urtero moduan, Beart-eko kideen artelanak ikusi ahaliko dira San Martin plazan; aurtun 25 ikasleren lanak ikusi ahaliko dira.

Era berean, gogora ekarri behar da Beart elkarteak 40 koadro eman dituela Leire Martinentzat eta FundAME elkartearentzat dirua lortzeko asmoz.

Musikoterapia hizpide hilaren 20an Irizarren, Aitor Agirrerren eskutik

Bergarako Musika Eskolak musikoterapiaren inguruko hitzaldia antolatu du ekainaren 20rako, Irizar jauregian, 19:00etan hasita. Musika Eskolan irakasle den Aitor Agirre musikari eta musikoterapeutak gidatuko du saioa; Betagarri taldean gitarra-jole moduan urte askoan aritu ostean, Agirrek eskarmentu handia dauka musikoterapian. Gasteizko zaharren hainbat egoitzatan eta ospitaletan erabili izan du musika terapia moduan.

Bestalde, Musika Eskolan sortu diren bost musika taldek kontzertua eskaini zuten atzo Irala kalean. Gitarra, baxua, bateria, saxofoia eta ahotsa izan ziren protagonista kontzertuan.

Txondorraren goi mailako ikatzak iragarri ditu jaiak

Eguaztenean hasi ziren Elosuko txondorgileak ikatza ateratzen eta espero dute 1.600 kilotik gora irtetea; biharko bertso afarirako, gaur eman behar da izena, beranduenez, eta domekan Donato Larretxeak txondorrerako egurra eman duen "pagotzarra" moztuko du

Jokin Bereziartua BERGARA

"Esperientzia oso aberasgarria izan da. Kalitate oso altuko ikatza atera dugu, baina ederrena izan da jende asko eta asko pasatu dela Elosutik. Ikaragarria izan da azken egunotan gerturatu den jendetza; txondorra ikustera, argazkiak ateratzera... Txondorgintzan aritu izan den jendea ere hurbildu da eta euren bizipenak kontatu dizkigute. Ederra izan da". Elosuko auzo alkate Iñigo Zubeldiaren hitzak dira, azken asteotan egun eta gau lanpetuta izan duen txondorraren gainean berbetan. Eguaztenean hasi ziren hogeit bat egunez pixkanaka sortzen joan den



Elosuko txondorgileak ikatza ateratzen, eguazten eguerdian. IÑIGO ZUBELDIA

ikatza ateratzen; 1.600 kilotik gora aterako dute. "Hasierako helburuak erabat bete ditugu. Auzo guztiaren inplikazioarekin, gainera. Bihar [gaur] afari bat egingo dugu txondorraren bueltan bizitakoa ospatzeko", gaineratu du auzo alkateak.

Jaietako egitarauari erreparaturaz, biharko bertso-afaria-izena emateko azken eguna da gaur, 688 92 00 86 telefono zenbakira deituta-, Donato Larretxeak txondorrerako egurra eman duen "pagotzarra" moztuko duela, erretiratuaren artean arrakasta handia izan ohi duen idi-dema eta asteleheneko bazkaria nabarmendu ditu Zubeldiak.

Udalaren diru laguntzaz kexu

Hori bai, auzo alkatea kexu agertu da Udalak jaietarako eman dien diru laguntzaren inguruan: "900 euroko laguntza jaso dugu eta auzoetako jaietako diru laguntzen irizpideetan agertzen da landa eremuko auzoa bada eta bi eguneko festak badira, jaso beharreko diru laguntza 1.545 eurokoa izan behar dela. Hala ere, saiaturako gara jaiak behar den moduan ospatzen".

Ekintza nagusiak

Ekainak 17, zapatua

- **16:30** Mus txapelketa.
- **20:30** Bertso afaria Julio Sotorekin eta Iban Urdangarinekin.

Ekainak 18, domeka

- **12:00** Meza nagusia.
- **13:00** Pilota partidua.
- **14:30** Erretiratuaren bazkaria Elurmendin.
- **18:00** Idi-dema. Bitartean, Donato Larretxeak txondorrerako egurra eman duen pagoa moztuko du.

Ekainak 19, astelehena

- **12:00** Auzoko hildakoen omenezko meza.
- **15:00** Auzo bazkaria.
- **17:30** Ume zahar eta gazteendako jolasak.
- **19:00** Triki-poteoa.
- **21:00** Auzo afaria eta erromeria.
- **00:00** Jaien amaiera.



OSATU BERTSOA* eta eraman saria!

Herriko merkatariei esker

Kaleak daude

Euskararen presentzia bultzatuz

Karteletan zein.....

Boluntario eta merkataria

Eskerrik asko

Zenbat eskertzen dugun euskara

Izatea begi bistan

Bertsoa osatzeko hitzak:
egitan argitan mihitan

*Bertso hau erabil dezakezu parte hartzeko.

Gure dendak EUSKARAZ jantzi nahi ditugu

Ekainaren 12tik 29ra bitartean jantzi eta oinetako dendetan

PARTE HARTZEKO MODUA

- Kanpainan parte hartzen duten dendetan -zerrendan beltzez markatuta daude- era honetako lau bertso daude
- Osatu bertsoa eta bidali idatziz edo abestuta **Jardunera, Whatsappez (605 71 24 69) edo idazlaguna@gmail.com**-era, izen-abizenak eta telefonoa jarrita.
- Bertsoa abestuta bidaltzen baduzu, saria irabazteko aukera bikoitza izango duzu.
- 60 euroko bonua zozkatuko da kanpainan parte hartzen duten dendetan gastatzeko.
- Zozketa ekainaren 30ean egingo da.

Saria jasotzeko, Jardunera joan beharko da uztailaren 21a baino lehen

Jarraian azaltzen diren herriko komertzio hauek Idazlaguna proiektuan parte hartu eta euren hizkuntza paisaia euskarari lehentasuna emateko konpromisoa hartu dute.

Arrandegiak: Joxan Kabutzia Lamitxoa Kresala	Taberna eta jatetxeak: Aldoka Maldoka Ariznoa Bule Café Bergara Depor Dixula Egon Etxagi Euxebio II Mujika Intxorta Kayak Kortazar Pauberri Pol-Pol Usoa	Gallastegi Junbiji Leize Mujika sastreria Ninfa Subijai Urkiola Xuxu La Barata Arian	Sugoi. Oinetakoak: Lazkano Lonbide Konponketak: Eladio Hor Konpon Kirolak: Biciprecision Igartua Xamartin Barne diseinua/ dekorazioa: Eli Alberdi Kanela Zangitu Urbietia Keros Radio Bergara Altzariak: Arregi Edertu Ugarte Loradendak: Gorosti Ninika	Tindategiak: Onena Renterri Burdindegiak: Gaztelu Gisasola Mujika Liburu-dendak: Ikasbi Ikasle Informatika: Hurbil Infordelta Estankiak: Josefina San Pedro Urriategi Zangitu Besteak: Nekane Lazkano argazkilaria Agoitz tapiz denda Akort publikitatea Ikuz ikuztegia Narbaiza pentsuak Peñalba loteriak MZ3D
---	---	---	--	---





Liburuaren bultzatzaile batzuk: Mikel Angel Kortabarria, Eli Igarzabal, Carlos de los Santos, Axun Villar eta Mikel Alberdi. M.A

Zubillagak ere badu liburua


Auzoaren nondik norakoak jaso dituzte Eli Igarzabalek, Axun Villarrek, Mikel Alberdik eta Xabier Ugartek liburuan. Artixa taldekoen laguntza izan dute hura osatzerakoan. Gaur aterako da inprentatik eta domekan ipiniko dute salgai, herriko plazan

Miren Arregi OÑATI

Antxinako Zubillagari begirada bat izena du gaur, egubakoitza, argitaratuko den Zubillaga auzoaren gaineko liburuak. 244 orrialdetan, argazki zaharrak, auzotarren esanak, antzinako baserri eta ofizioen gainekoak, eguneroko bizimoduarekin lotutakoak eta gehiago jaso dituzte egileek. "Guk umetan ezagutu genuen Zubillaga hori nolakoa zen jaso gura izan dugu, gaurkoek eta ondorengoek jakin dezaten zenbat eta nola aldatu diren gauzak. Uste dut lortu dugula", dio Zubillagako Arretxe baserriko liburuaren egile Axun Villarrek.

Hasierako atalak halako begirada historiko bat proposatzen du. Jerardo Elortzak egin du zati hori, eta, XV. mendean hasita, antzinako Zubillagako ofizioekin lotutako baserri-izenak eta gehia-

go ere jaso ditu: "Auzoari buruzkoak jaso ditu Elortzak. Garai bateko zubiak, errotak, ermitak... Ofizioekin lotutako baserri izenak ere aipatzen ditu; besteak beste, Arotzena, Urtzailekua,



Liburuaren portada.

Txipitzaile...", dio liburuaren egile Eli Igarzabalek.

Auzotarrek eguneroko bizimoduari lotuta kontatu dituztenak datoz jasota liburuaren bigarren atalean. "Historia goxoa deitzen diot nik horri", dio Artixako Mikel Alberdik. "Jendearen bi- zipenak; eskola dela, jaiak direla, baserriko bizimodua dela, sineskerak direla...", erantsi du. Atal hau osatzeko auzotarrek egindako ekarpena azpimarratu du Axun Villarrek. "Argazkiak utzi dizkigute, garai bateko istorioak kontatu dituzte... Auzotarren ekarpenak berebiziko garrantzia du liburuan".

Zubillaga, industrialia

Zubillaga industriaren pisuarengatik eraldaketa handia jasan duen auzoa da. Azken mendeko industriak erabat eraldatu du auzoko paisaia, baina Zubillagak



Auzoko emakumeen merienda.



1963ko futbol taldea.



San Pedro eguneko prozesioa.



Zubillagako bi amona zahar.

industriarekin duen lotura askoz ere zaharragoa da. "V. mendeko industria asko zegoen auzoan. Hemen sortu dira gero herrian indar handia izan duten enpresak: fanderia edo forjak, esaterako", dio Artixa taldeko Carlos de los Santosek. Industriaren gaineko kapitulua, Jose Antonio Azpiazu historialariak egin du.

Beste gauza asko esan daitezke liburuaren gainean; esaterako, Zubillagan jaiotako pertsona esanguratsuak ere jasota daudela, hala nola Ramon Irizar, Aita Madina, Pedro Altune *Pa-lalto* eta gehiago. Kirolari, pilotari, txirrindulari eta futbolari ezagunak ere azaltzen dira eta jasota daude baita ere Zubillagako bi ermandaderi buruzkoak, eta 1805eko plano bat, non azaltzen diren kondeak garai hartan Zubillagan zituen lurrak -baso eta txarak-.

Auzoen gaineko bigarren

Duela hamalau bat hilabete hasi ziren liburuari forma ematen Eli Igarzabal eta Axun Villar. Eurek bazerabilten ideia buruan eta Artixa taldekoei jakinarazi zietenean, berehala ipini ziren guztiak martxan. Mikel Alberdi aritu da prozesu honetan guztian Igarzabal eta Villarrek batera lanean eta bereziki gogoan izan dute Xabier Ugarte, "taldeko *alma mater*-a" eta une honetan osasun arazo batengatik proiektutik aldentuta dagoena.

Domekan, salgai

Aurreratu dugun moduan, gaur argitaratuko da liburu eta domekan -Corpus egunean- salgai ipiniko dute hori. 12:00 aldera ipiniko dira goizean plazan eta arratsaldean 18:30etik aurrera ere egongo dira. 700 ale argitaratu dituzte.



Hainbat herritar kale zaharrean, atzo, eguena. MIREN ARREGI

Tabernek eragindako zarata neurtuko dute

AAC Acustica+ Luminica enpresak egingo du 2012ko dekretura egokituko den zarata-mapa. Batetik, industrialdeak aztertuko dira; bestetik, errepideak; eta azkenik, gaueko aisialdiak sortzen dituen zaratak eta trabak. 2017an bukatuko da azterketa

Miren Arregi OÑATI

2012ko urriaren 16ko dekretuak ezartzen du 10.000 biztanletik gorako udal guztiek egin behar dituztela zarata-mapak. "Aurretik badago zarata-mapa bat egin da, baina dekretu horrek eskatzen du baldintza berrietara egokitzea", dio Irati Etxeberriak, Hirigintza zinegotziak. Dekre-

tuaren arabera, zarata-mapak aztertu behar ditu, batetik, errepideak sortzen duten hots-kutsadura eta, bestetik, industrialdeetan sortzen dena. Oñatiko Udalak, baina, Kale Zaharrean gaueko aisialdiari lotuta dagoen arazoa kontuan hartuta, horren gaineko azterketa egitea erabaki du. "Aspaldiko arazoa da ta-

bernek sortzen duten zaratarena eta eskatu duguna da aisialdi horrek sortzen duen zarataren gaineko azterketa zehatza egitea", dio Etxeberriak.

Zarata-mapa berriak ekintza plan bat ekarriko du. "Baita zonifikazio bat ere, lurzorua erabileraren arabera desberdinak direlako mugak. Alegia, ez

da berdina industrialde bat izatea, gune urbanizatua edo parke natural bat; izan ere, zarata mugak ez dira berdinak bat izan ala bestea izan", gaineratu du. Indikadore horien arabera, beraz, sortuko da ekintza-plan berria. Oraindik zehazteke dago zeintzuk izango diren datak; alegia, noiz hasi eta bukatuko dituzten azterketak eta ondorioen txostena noiz izango duen Udalak esku artean. Argi dagoena da urte bukaera baino lehen izango dela hori.

Tokian bertan

Zirkulazioak errepideetan sortzen duen zarata dagokionez, AAC Acustica + Luminica enpresako arduradunek adierazi dute neurketa kalkulu metodo baten bitartez egiten dela. "Gehieneko abiaduraren arabera izango da neurketa", adierazi du puntu honetan Hirigintza zinegotzi Etxeberriak. Hala, aztertuko den gune horietan, pasatzen den auto kopurua, ibilgailuen gehieneko abiadura eta pisu handiko ibilgailuen kopurua batez bestekoak hartuko dira kontuan zarata mailaren emaitzak ateratzeko.

Industriak sortzen duen zarata dagokionez, berriz, tokian bertan eta neurgailuen bitartez egingo dira neurketak. Hala, industrialde guztiak aztertuko dira. Horretarako, zarata-mapa egingo duen enpresako langileak etorriko dira eta gune bako-

tzean, *in-situ* egingo dituzte azterketak. Egunez eta gauez egingo dituzte neurketak.

Gaueko zaratak

Tabernek edo gaueko aisialdi-guneetan sortzen den zarata neurtu eta ondorio egokiak aterahal izateko, sonometroak ipiniko dira kalean, hainbat gunetan –oraindik zehazteke dago zenbat eta non–. Astebete izango dira horiek neurketa egingo den kaleetan jarrita –modu horretara asteburuko azterketa egitea bermatuko da– eta hamabost minutuan behin erregistratuko dute tokian tokiko zarata. "Tabernen inguruko azterketa honekin ikusiko da ea 2012ko dekretuak ezartzen dituen Kalitate Akustikoko Helburuak betetzen diren". Hala ez bada, ekintza-plan bat egingo da horiek beteko direla bermatzeko. Aurrekontuari dagokionez, esan behar da 12.900 euro bideratuko direla errepideen eta industrialdeen zarata-mapa osatzeko –BEZa kanpo–. Gaueko aisialdiak sortzen duen hots-kutsaduraren gaineko lanketa egiteko, berriz, 2.900 euro bideratuko ditu Udalak –BEZa kanpo–.

INDUSTRIALDEETAKO ZARATA ETA TRAFIKOAK SORTZEN DUENA ERE AZTERTUKO DITUZTE



NIRE USTEZ

AINHOA NEGERUELA

Baserria

Askorentzat ez da amaraun, lasto, oroitzapen eta trastez betetako eraikin zahar bat besterik.

Gustura eraitsiko lituzkete eta hormigoizko egituradun txaletak eraiki. Edo eraberritzekotan hormigoizko egiturarekin, modernoagoa egin.

Ezagutu dudan azkeneko baserriak aho laukia dauka, egurrezko balkoi-sudurra, begi lotsatiak eta masailak adreilu kolorez gorrituak. Adinaren zimurrak nabari zaizkio baina, batez ere, urte luzez bakarrik bizi izanaren zauriak.

Eraberritzeko eskatu zigun, hezurtzat zituen 500 urtetako egurrezko habe eta zutabeak sendatzeko, erreuma baino sortzen ez zion hezetasuna kentzeko eta mesedez, zauriak ixteko. Ebakuntza ohean etzan genuen orduan eta poliki sartu genion bisturia. Segituan agertu ziren egurrezko mamuak. Errenazimendu garaiko zutoin eta jabaloiak. XVII mendeko arotzen teknikak eta harlandu barroko dotoreetan harginek zizelkaturiko sinadurak. Andere jakintsuegia zen hiltzen uzteko. Baliotsuegia

desagertzen uzteko. Baina ez bera bakarrik, baserri guztiek baitute aurpegia eta barrura sartu orduko, errenazimendu garaia eramango gaituen egitura izan dezakete, gotikoa dela eta agerian uzteko eskatu nahi digun estalitako leihoren bat edo 300 urtez geldigeldi egon diren arku barrokoak.

Bisturia barrurago sartuz gero, XII menderainoko bidea ere erakutsi diezagukete, Besoitaormaetxea baserriak bezalaxe; harri eta egurrezko orriak dituzten historia liburu baliotsuak baitira baserriak.

4.500 kiloko bobina bat erori zitzaion hankara langile bati

Atzo, bi orduko lanuztea eta kontzentrazioa egin zituzten atzo Chinchurretan, enpresa-batzordeak deituta

M.A OÑATI

4.500 kilo inguruko altzairuzko bobina erori zitzaion hanka gainera hura lekuz mugitzen ari zenean Oñatiko Chinchurreta enpresan astelehenean istripua izan zuen 35 urteko langileari. Helikopteroz eraman behar izan zuten Donostiako ospitalera langilea, eta, istripuak eragindako zaurien ondorioz, hankaren zati bat moztu behar izan zioten. Hori salatze-ko, enpresa-batzordeak deituta, bi orduko lanuztea egin zuten atzo.

LABek "neurriak" eskatu ditu

Bestetik, LAB sindikatuak gogorarazi duenez, "honako hau ez da lehen istripua, dagoeneko bi hildako eta hainbat istripu larri izan dira Oñatiko Chinchurreta enpresan". Hori dela eta, "benetako neurriak" hartzea eskatu dute. Sindikatuak garbi utzi nahi izan du langile bat hiltzea edo zauritzea ez dela "lanaren ezaugarri bat", baizik eta "patronalak lan egiteko orduan ezartzen dituen baldintza eta lan egiteko moduen emaitza".



San Migel eta apostoluak herriko kaleetan, iaz. GOIENA

Prozesiorako prest da San Migel zaindaria

Corpus egunaren baitan, asteburu osoko egitaraua prestatu dute. Askotariko ekintzez gozatzeko aukera izango dute oñatiarrek. Ekintza nagusia –prozesioa– domekan izango da, meza ostean. Bisita gidatua ere antolatu dute egun horretarako

Iker Oñate OÑATI

Gero eta gutxiago gelditzen da San Migel eta konpainia herriko kaleetan ikusteko –eguraldi txarra egiten badu, San Migel elizan–. Domekan, meza ostean, egingo dute prozesioa. Bada, jada prest dituzte ekintza horretarako jantziak eta irudiak. "Ohiko atontzeak eginda, irte-teko moduan daude", berretsi du kofradiako kide Jesus Irizar Txutxin-ek.

Horrez gain, bestelako ekintzak ere izango dira asteburuan; gaurtik domekara arte iraungo duen egitaraua prestatu dute. Besteak beste, Oñatzeko kideen dantzak, musika bandaren kalejira, herri lasterketa eta Teresa Diazen pintura eta marrazki erakusketa –kultura etxean– izango dira.

Berrikuntzekin dator prozesioa

Urtero legez, prozesioan irtengo diren zenbait santu atondu dituzte; ohiko atontzeak izan dira, Aozaratzako San Migelena salbu.

Kasu horretan, santua eramateko oinarria aldatu dute. "Orain artekoak pisu larregi zuen; oraingoan, pisua murriztuta, errazago eraman ahal izango dute santua", dio Josu Amundarainek, kofradiako kideak.

Horrez gain, armadura azpiko txaleko barrubigun berria egin diote San Migeli. "Jantzia darman pertsonaren gorpuzkeraren arabera eginiko txalekoa izanik, San Migelek erosoago jardungo du domekan", Amundarainen esanetan. Ibai Gonzalezek eramango du San Migelen jantzia aurten.

Dantzarien garrantzia

Dantzariak esangura handiko jarduna dute Corpusetako aste-

AURTENGOAN, ARMADURA AZPIKO TXALEKO BARRUBIGUN BERRIA EGIN DIOTE SAN MIGELI

buruan. Ostiral goizean hasi, eta domeka arratsaldera arte ez da euren zeregina amaitzen. Tartean, ekintza nagusian –prozesioan– parte hartuko dute.

"Herriko dantzariok garrantzi handia ematen diogu Corpusetako asteburuari; besteak beste, Oñatiko dantzak erakutsi ahal izateko aukera paregabea baitugu. Hori horrela, denbora luzez jarduten dugu honako asteburu hau prestatzen"; dio Iñigo Murgiondok, Oñatzeko dantza taldeko kapitainak.

Bisita gidatuak

Corpus egunerako bisita gidatua antolatu du Oñatiko Turismo Bulegoak; 09:45erako, euren egoitzan. Ekintzan esku hartu nahi duenak aurrez eman beharko du izena, plazak mugatuak baitira. Turismo Bulegoko ardura-dunek azaldu dutenez, "prozesioaren aurreprestaketa ez ezik, ekintzaren bueltako historia ere ezagutuko dute parte hartzen dutenek".

Maider Zabalegik kontzertua eskainiko du gaztelekuan

Bakarka kaleratu duen lehen diskoa aurkeztuko du, gaur, 22:30ean. Sarrerak bertan eros daitezke

I.O. OÑATI

Zuei diskoa aurkeztuko du Maider Zabalegik Oñatiko gaztelekuan. Musikariak urteak daroatza musika munduan murgildurik –Alaitz eta Maider bikotean eginiko ibilbidea ezagunena–, baina bakarka kaleratu duen estreinako lana da aipaturikoa. Sarrerak gaztelekuan bertan egongo dira eskuragarri, 8 eurotan; Arrasateko Jai Zale tabernan ere eros daitezke.

Maider Zabalegik aurtengo udaberrian aurkeztu zuen lan berria; eta, ordutik, aurkezpen

kontzertuetan murgildurik dihardu. "Ilusio eta ametsen itsasoan nabigatzen duten hamar kantu gozo eta koloretsu" biltzen dituen disko bezala aurkeztu du Zabalegik lan berria.

Esan bezala, musikariak Alaitz Telletxearekin batera izandako ibilbidea atzean utzita berrekin die agertoki gaineko emanaldiei. Zehatz esanda, Alaitz eta Maider bikoteak 20 urteko historia daroa soinean. Tarte horretan hiru disko kaleratu zituzten; eta, ostean, hainbat kolaborazio dituzte eginak.



LANA

Hamar urte Txekiar Errepublikan

Hamarkada bat igaro da LANA enpresa oñatiarrak Txekiar Errepublikan egoitza ireki zuenetik. Hori horrela, aurreko astean ospakizun ekitaldia egin zuten herrialde hartan; hango egoitzako langileez –eta euren senideez– gain, Oñatiko errektore eta zuzendaritza kontseilu-tako kideak ere batu ziren ospakizunera.

Iker Martinez
bakarlari moduan
estreinatuko da

Gaur, egubakoitza, bakarkako lehen lana aurkeztuko du Iker Martinez musikari oñatiarrak; 19:30ean hasiko da kontzertua, Ona tabernan. *Itzalen mundua* bataiatu du diskoa; eta Onan, Bogan eta Elkar argitaletxearen dendetan dago salgai. "Bakarkako lana izan arren, hainbat lagun izan ditut aldamenean, laguntzen", dio abeslariak.

Badator Erretiratuen
Astea, Pake Lekuk
antolatuta

Erretiratuen Astea egingo du Pake Lekuk, astelehenean –hilak 19– hasita. Egitasmoaren baitan, ekintza ugari antolatu dituzte. Besteak beste, hitzaldia, ibilaldia, kontzertua eta bingo berezia antolatu dituzte. Amaitzeko, Erretiratuen Eguna egingo dute domekan –ekainaren 25ean–; meza, omenaldia, bazkaria eta dantzaldia antolatu dituzte.

"Debagoien osorako zerbitzua ematen dugu"

MIKEL LOITI CHAPIMEKO GERENTEA

Citroën etxearekin 30 urte baino gehiagoko esperientzia dute Chapime kontzesionario eta tailerrean. Gainera, KIA etxearen zerbitzu ofiziala eskaintzen dute

1978an sortu zen Chapime eta San Andresko egoitzan 1987a ezker dago. Mikel Loiti gerenteak (Arrasate, 1972) 19 urte baino gehiago daramatza sektorean. **Chapimek 30 urteko esperientzia du dagoeneko San Andresen. Zerbait urte daramatzazu zuk bertan?**

Hona duela 30 urte etorri ziren Citroën markarekin, zerbitzu ofizial eta kontzesionario bezala. Nik 20 urte egingo ditut azaroan, tailerrean hasi nintzenetik. 2004an enpresan aldaketa bat izan zen eta ordutik hona gerente lanetan nabil. Gerente, saltzaile eta denarako prest.

Debagoien osorako zerbitzua eskaintzen duzue?

Bai, hori da. Gure zerbitzuak Debagoien osora enfokatuta daude. Gure ideia eta helburua debagoiendar guztiei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzea da.

Arrasaten eta Bergaran badago zerbitzu ofiziala, baina Oñatin dagoeneko ez?

Bergaran Automobiles Ion dago eta gure eskutik doa salmentetan, nahiz eta tailerra eurek kudeatzen duten. Oñatin bere egunean zerbitzu ofizial bat egon zen, baina duela urte batzuk itxi zuten. Hala ere, nahiz eta Oñatin presente ez egon, erlazio hori mantendu nahi dugu Oñatirekin, beste bezeroei ematen diegun



Mikel Loiti, Chapimeko gerentea. JOSU BILBAO

aukera batzuen moduan, oñatiarrei ere zuzenduta. Erraztasunak ematea Arrasatek kanpo bizi direnentzat.

Ze zerbitzu eskaintzen diozue Arrasatek kanpo etor daitekeen bezero bati?

Bezeroen beharretara moldatzen gara. 08:30ean zabalitzen dugu, eta, gutxi gorabehera, autoari zer egin behar zaion jakiten dugu. Beraz, bezeroa bere lanlekura gerturatzen saiatzen gara, autobus geltokira edo etxera. Baditugu bezeroendako ordezkari auto batzuk ere. Batez ere, karrozerian dauden autoendako izaten dira, autoak denbora luzeagoan egoten direlako geldid. Izan ere, mekanika bakarrik badu, normalean, autoa egunean bertan uzten dugu prest.

Zerbitzu integrala eskaintzen du Chapimek?

Bai; hainbat zerbitzu eskaintzen ditugu. Mekanika eta karrozeriaz gain, beirak tindatzen eta aldatzen ditugu, ordezkari pieza originalekin, eta garbiketa zerbitzu berezi batzuk ditugu. Zerbitzu osoa eskuz egiten da, gainera. Garbiketa normala dugu, eta, autoaren egoeraren arabera edo bezeroaren beharren arabera, integrala ere eskaintzen dugu. Horrez gain, aseguru-etxe guztiendako egiten dugu lan, eta martxan jarri dugu urte honetan bezeroendako aholkularitza zerbitzu bat. Bere aseguru-poliza beste konpainia batzuekin berrikusteko aukera ematea da helburua. Ideia zerbitzu integrala ematea da. Autoa saltzen dugunetik edozein gauza sortzen bazaio bezeroari, dena lotuta edukitzea. Gainera, zerbitzua urte osoan zehar ematen dugu, baita abuztuan ere.

Zein da bezeroek gehien eskatzen duten autoa?

Citroën etxeko monobolumenak beti izan dira erreferentzia, eta, gaur egun, C4 Picasso eta C4 Grand Picasso dira salduenetakoak. Berlingo ere beti oso ondo saldu da. Iaz 20 urte egin zituen modeloak eta serie berezi bat atera zuten eta oso ondo saltzen ari da. Prezio-kalitate mailan oso puntako autoa da eta aurreikuspenak gainditu ditu. Orain, gainera, C3 berria eta SpaceTourer ondo saltzen ari dira, 36 konbinazio posiblerekin, eta beritasun batzuk ere badatoz. C3 Aircross ezagutarazi dute aste honetan; C3 Picasso izan dena ordezkari duen SUV motako autoa izango da, eta teknologia maila oso puntako autoa izango da. Datorren urtera begira ere beste SUV bat etorriko da, C5 Aircross.

Citroën etxeko autoak saltzeaz gain, KIA etxekoak ere saltzen dituzue...

Citroën etxearekin egin dugun moduan, zerbitzu ofiziala eskaintzen dugu. Duela urtebete baino gehiago sinatu genuen akordioa. Lankideak berdinak gara, eta nahiz eta KIA esperientzia laburra izan tailer eta kudeaketa mailan esperientziadun lantaldea dugu. KIAko autoak saltzen ari gara Eibarko Naia Car kontzesionarioaren bitartez, eta salmenta osteko zerbitzuaz gu gara arduradunak. Beraz, Chapimek eskaintzen dituen zerbitzu guztiak gozatu ahal ditu KIAko bezeroak.

"CITROËN ETXEAREKIN EGITEN DUGUN MODUAN, KIA ETXEKO ZERBITZU OFIZIALA ESKAINTZEN DUGU"



Lagunekin edonora.



**CITROËN
SPACETOURER BUSINESS**

THE WELCOME CAR



CITROËN ADVANCED
COMFORT-en abantailak ditu

9 PLAZA / ALBOKO ATEAK ESKU LIBREKO IREKITZEAREKIN
3 LUZERA AUKERAN / 1,90 M GARAI

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

CITROËN profiere **TOTAL**

KONTSUMO MISTOA (L/100 KM)

EMISIOA CO₂ (G/KM):

CITROËN SPACETOURER: 5,1-6,0 / 133-159



citroen.es

DEBAGOIENENKO CITROËN ZERBITZU OFIZIALA: TALLERES CHAPIME S.C.L. San Andres 5 Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE



Mondra, UDA eta Arizmendi futbol elkarteetako ordezkariak eta jokalariek Mojategiko futbol zelaian. ANE VITORIA

Xabier Urzelai ARRASATE

Debagoienean ahalegin bat baino gehiago egin da klub bat ondokoarekin batzeko, fusionatzeko. Xakean, esaterako, ez dira urte asko maila gorenean zebiltzan Arlutz talde aretxabaletarra eta Arrasateko San Andres xake taldea batu zirela. Batu egin ziren, indartsuen artean jarraitzeko. Baina inork gutxik aurreikusiko zukeen futbolearen ere antzeko zerbait gertatuko zenik. Eta gertatu da. Atzo, eguena, Mondrako, UDAko eta Arizmendiko futbol elkarteetako ordezkariak proiektu bateratua aurkeztu zuten Mojategin: emakumezkoen Leintz Arizmendi taldea.

Lehiakor izateko modu bakarra

Aurten Ibarrako eta Mojategiko berdeguneetan gertatu denak ez du erakutsi benetan bi talde horietako errealitatea. Arizmendi UDAko neskek Euskal Ligara igotzea lortu dute. Eta Mondrako neskek Gipuzkoako Kopa irabazi dute: "Baina bi taldeetan egoera berdintsua izan dute, jokalariek faltan ibili dira, nahiko justu denboraldiari aurre egiteko, eta, ikusten dugunez, datozen urteotan egoera ez da askorik aldatuko. Neska gutxi ditugu gure taldeetan, hori da egia, eta, aurrera egin gura badugu, klubak batzea da irtenbide onena", adierazi du Arizmendiko koordinatzaile Urtzi Amianok.

Fusio hori, baina, ez da lehenengo taldean bakarrik izango, emakumezko futbolearen egitura

Hirurak batuta, indartsuago

Mondra, UDA eta Arizmendi taldeak batu egingo dira proiektu berri bat sortu eta emakumezkoen futbolari bultzada emateko: Leintz Arizmendi. Euskal Ligan jokatu du talde nagusiak, eta kategoria txikietan beste bi talde izango dituzte

osoa batuko dute eta: "Senior mailan bi talde osatu gura genituen, lehenak Euskal Ligan joka zezan, eta bigarren taldeak beharago, baina ez da posible, ez ditugu horrenbeste jokalaririk". Hala, Euskal Ligan lehiakor izateko moduko taldea osatuko dute, 22 eta 25 jokalariek artean izango dituzte, eta ondoren kadete mailako taldea izango dute –22 jokalarirekin– eta infantil mailako taldean beste hamalau jokalaririk izango dira: "Asmoa da adin txikietan ere, hau da, alebin eta benjamin mailetan, neskek batera entrenatu daitezen

BI TALDEEK LORPEN HANDIAK EGIN DITUZTE AURTEN, BAINA JOKALARI GUTXIREKIN IBILI DIRA

taldea sortzea. Horretarako, baina, ikastetxeetan gutxieneko izen-emate kopuru bat egon behar da, hamabi inguru, eta hori da zaindu behar duguna, hori izango da eta goiko taldeen dako etorkizuneko harrobia".

Entrenatzaileak ere batuta

Leintz Arizmendi talde berria egituratzen dabilen lantaldearen asmoa da Euskal Ligan Esti Loiti *Titu* izatea entrenatzaile –Arizmendi UDAko entrenatzaile izan da aurten–, Mondra zuzentzen ibili diren Andoni Ezkurraren eta Rakel Modinoren laguntzarekin. Talde berri hori Mondrako, UDAko eta Arizmendiko ordezkariak kudeatuko dute, denek izango dute erabakitze gaitasun bera, eta, ekonomikoki ere apustu bat denez, klub bakoitzak bere gain hartuko du dagokion gastuaren zatia:

"Helburua da Euskal Ligan jokatu duten neskek kuotarik ez ordaintzea. Hau da, gizonezkoen futbolarekin parekatzea, Mondrako edo UDAko talde nagusietako jokalariek ez dituzte eta futbolearen jokatzearren kuotak ordaintzen. Goiko talderaino iritsi izana saritu egiten da gizonezkoen futbolearen, eta emakumezkoen kasuan gauza bera egin gura dugu".

Hala, Leintz Arizmendik Mojategin jokatu dituen partiduetan, eta aste barruan Ibarran eta Mojategin entrenatuko dira.

MOJATEGIN JOKATUKO DUTE; ENTRENATU, ORDEA, MOJATEGIN ETA IBARRAN

Hiru taldeak elkartzearrekin pozik daude



Ramon Azkarate. A.V.

Azkenean lortu da

"Oso pozgarria da notizia hau. Duela bizpahiru urte gabiltza talde hau sortzeko ahaleginetan eta, azkenean, lortu dugu. Etorkizun oparoa desio diogu", esan du Mondrako ordezkari Ramon Azkaratek.



Agurtzane Elkoru. A.V.

Historia egiten

"Emakumeek zerbait historikoa lortu dugu, futbolaren baitan talde ezberdinak batzea. Nork esango zuen Mondra eta UDA elkartu egingo zirela... Zoriontzekoa da", aitortu du UDAko ordezkariak.



Urtzi Amiano. A.V.

Eskerrak bi taldeei

"Mondra eta UDA futbol taldeei eskerrak eman nahi dizkiegu egindako lan eta esfortzu guztiagatik", azpimarratu du Arizmendi Futbol Elkartearen ordezkarietako bat den Urtzi Amianok.



2015eko edizioko irabazle Aingeru Gutierrez, helmugan; aurten ez da lasterketan izango. IMANOL SORIANO

Bueltan da goi mailako atletismoa Oñatin

ATLETISMOA lazko hutsunearen ostean, bueltan da puntako atletismoa Oñatin, Euskal Herriko atleta onentsuenak batuko dituzte-eta bihar, zapatua (19:00). Hamar kilometroko lasterketa izango dute, homologatutako zirkuituan barrena

X. Urzelai / M. Bikuña ARRASATE
Aurrekontu faltarengatik eta Antxintxiketan taldeak zuen lan-kargaren ondorioz, iaz ez zuten Herri Lasterketarik egin Corpus bezperan. Aurten, bai. "Gogotsu ekin diogu berriro, eta Udalak eta, bereziki, herriko dende eta enpresek emandako laguntzari esker maila handiko lasterketa osatu dugu", adierazi

du, aste barruan, Asier Osinagak, prentsaurrekoan.

Puntako atletak datoz

Gonbidapen bidez datoz korrikalariak Oñatira. "Euren jarre- eta prestutasuna azpimar- tu gura nituzke. Hasieratik gertu agertu dira Oñatira etor- tzeko. Ekainaren 17a euren agen- datan kokatzen saiatu dira, eta

askok lortu dute". Hala, berezi- ki azpimarratu dute Iratitz Arrospideren kasua. "2017ko Londres- ko maratoin 2.20.56ko denbora egin zuen eta Donostiako mara- toi erdia irabazi zuen. Gainera, Sheffield-en (Erresuma Batua) bizi da, eta esfortzu handia egin du zapatuan Oñatin egoteko. Guk asko baloratzen dugu haren ahalegina".

Tartean, Debagoienekoak

2015eko irabazle Aingeru Gutierrezek ezingo du garaipena berrets. Ez da Oñatin egongo. Huts egingo dute, era berean, azkeneko urteetan Oñatik izan dituen bi ordezkariak: Yeray Varela eta Sergio Gartzia. "Hutsune hori betetzeko, Xabier Luis oñatiarra gonbidatu dugu. Duatloietan eta triatloietan lehiatzen da, bereziki, baina gure erronka onartu zuen, eta bada- kigu buru-belarri diharduela entrenatzen". Eta Arrasateko Endika Donnay izango da beste ordezkaria.

Gonbidatutako atletak:

- Ander Sagartazu (Donostia)
- Imanol Cruz (Donostia)
- Iban Rodriguez (Gasteiz)
- Aitor Mimentza (Elorrio)
- Oier Ariznabarreta (Elorrio)
- Gontzal Bilbao (Bilbo)
- Unai Arroyo (Bilbo)
- Iratitz Arrospide (Billabona)
- Gustavo Sanchez (Gasteiz)
- Alberto Alba (Gasteiz)
- Alberto Arberas (Elgoibar)
- Xabier Lukin (Errenteria)
- Martin Amilibia (Zumaia)
- Iñigo Olano (Zornotza)
- Xabier Martinez (Ezpeleta)
- Petriarc Lionel (Baiona)
- Endika Donnay (Arrasate)
- Xabier Luis (Oñati)
- Ekaitz Kortazar (Durango)

Zaragozak fitxatu du Oiartzunen ibili den Oihana Aldai atezaina

FUTBOLA Aretxabaletakoak emakumezkoen maila gorenean jokatzen jarraituko du; urtebeterako sinatu du

X.U. ARRASATE

Azkeneko urteak Oiartzungo atea defendatzen egon ostean, Zaragozan jokatu du Oihana Aldaik (Aretxabaleta, 25 urte). Fitxaketari esker, Aldaik lehenengo mailan jarraitzeko aukera izango du; izan ere, Oiartzunek Zaragozaren kontra galdu zuen kategoria, ligako azken jardunaldian (0-2).

Urtebeterako, oraingoz

"Urtebeteko eskaintza izan dut, eta horrek animatu nau, ez naue- lako denbora luzerako lotzen eta etxetik kanpora izango den lehenengo esperientzia delako. Hala, kluba eta biok gustura baldin bagaude egongo da ja- rraitzeko aukera".

Zaragoza, talde serioa

Zaragoza ez da aurrealdeko pos- tuetan ibili aurten: "Baina talde



Oihana Aldai. GOIENA

serioa da, borrokalariak. Lan ondo egiten dute eta gaitza da euren kontra irabaztea. Daki- danez, hainbat jokalarik taldea utzi egin dute liga amaituta, eta hutsune horiek betetzen dabilta. Ilusio handiz ekingo diot kirol erronka berri honi".

TRIATLOIA Domekan gaztetxoendako proba Agorrosinen

Antxintxikaren 3. Triatloi Txiki egingo dute domekan Ago- rrosingo kirol instalazioetan. 09:00etan hasiko dituzte laster- ketak eta 10 eta 15 urte bitarte- ko gazteek hartuko dute bertan esku -izen-emate epea agortuta dago jada-. Adin bakoitzerako antolatzaileek distantzia ezber- dinak aurreikusi dituzte.

ZIKLISMOA Gipuzkoako erlojupekoan Xabier Murgiondo nagusi

Martitzenean jokatu zituzten Gipuzkoako Erlojupekoko Txapelketak, Gervais memoriala, eta Ampoko ziklista Xabier Murgiondo izan zen azkarrena 23 urtez azpikoen kategorian (27.29.66). Emakumezkoetan, berriz, gazte mailan Garazi Eros- tarbe txapeldunorde izan zen (24.35.00). Mikel Arregi antzuo- larra zortzigarren izan zen.

ATLETISMOA Realak hirugarren sailkatu da Ohorezko Mailan

Emaitza historikoa lortu dute Realeko atletak Castellon egin- dako txapelketan, eta 92 puntu batuta hirugarren sailkatu dira Ohorezko Mailan. Eta, lorpen horren atzean, Iñigo Uribarrenen (15,80) eta Istar Dapenaren (5,10) lanak balio handia izan zuen. Playas de Castellon eta Bartzelo- na izan ziren onenak.

ZIKLISMOA Lizarralde Gorlako istriputik errekuiperatzen dabil

"Kaka urte bat izaten nabil, eta horrexegatik nago amorratuta. Baina kamioiaren kontra kolpea hartu izan banu, egoera beste bat izango zen; horrenbestez...", adierazi zion Goienari Eneko Lizarralde, Santiagoko ospita- lean lau egun ingresatuta egon ostean. Astelehena ezkerotxean da, errekuiperatzen; lepaubata da du hautsita.

Bi urtetan egindako lana erakusteko irrikan

'Pinotxo, hariekin lotu gabe' musikala estreinatuko du Ganbara Txiki abesbatzak gaur, Zubikoako pilotalekuan; biharko 11:30eko emanaldirako bakarrik geratzen dira sarrerak. Musikalaren diskoa ere argitaratu dute eta hamar eurotan salduko dute

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Entseguak bukatuta, frontoiko sabaia estaltzen, Eltziako loka-lean zituzten dekoratuak desmuntatu, frontoira eraman eta han jarritako agertokian muntatzen... arropak eta bestelako osagarriak azken ukituak ematen... Lan horietan ibili da *Pinotxo, hariekin lotu gabe* musikala prestatzen ari den lantaldea aste honetan.

Aurretik badute horrelako ikuskizunetan esperientzia, baina honako honekin, pauso bat harago egin dute. Carlo Collodik idatzitako eta Mary Donellyk eta George L.O. Stridek musikal bilakatutako lana oinarri hartuta, euskarazko bertsio berri bat sortu dute. Iraupen luze-zeko lana eskaini gura zuten eta halaxe sortu dute bi ordu eta erdiko ikuskizun berria; horretarako, istorioa eta abestiak luzatu eta moldatu egin dituzte.

Mimoz eta gogoz egindako lana

75 lagunek osatutako lantaldea batu dute, eta, besteak beste, gurasoek lan handia egin dute. "Familia osoa gaude saltsan sartuta: bi semeak taularen gainean izango dira, Zuzendaritza Artistiko taldeko arduraduna naiz ni, eta bikotekideak, berriz, dekoratuak egiten eta muntatzen jar-



Ikuskizuneko protagonistak eta lantaldeko hainbat kide. NATXO SANTOS

dun du. Orain arteko lanak kontrolpean ditugula esango nuke. Ikuskizuneari erregidore lanetan ibili naiz. Urduritasun puntu batekin, bai, baina sekulako ilusioarekin gaude guztiak", azaldu du Bea Martinez de Albenizek.

Hiru lagun artean zazpi dekoratu egin dituzte. "Aurreko ikuskizunarekin alderatuz *Altxorraren uhartea*-, teknikoki konplikatuagoa da. Ordu asko sartu ditugu, baina oso pozik gaude", dio Sergio Maiztegik.

Sormen lan horiek egin ahal izateko beharrezkoa da gestio

eta produkzio taldea, eta horretan jardun du Oihana Diazek. "Puzzleko pieza guztiak txertatu ikusteko gogoz nago. Ikuskizuna kudeatzea izan da nire lana: paper eta diru kontuak".

Agertokira igotzeko desiratzen daudela kontatu dute Ainhoa eta Irene Urzelai ahizpek; *Iratxoa* eta *Pinotxo* dira hurrenez hurren. "Urduri gaude, baina oso pozik eta, era berean, penaz ere bai bukatzeko. Ea, ba, arrakasta dugun eta beste herri batzuetan eskaintzeko aukera dugun, abentura honek iraun dezan".

Hamargarren 'Errekan Gora' jaialdiak markak hautsiko ditu

Orain arteko edizioetan 96 musika talde batu ditu Atxorrotx Kultur Elkarteak herriko txoko askotan

A. A. ESKORIATZA

Adin eta zaletasun ezberdinen-dako kultura eskaintza egitea du helburu Atxorrotx Kultur Elkarteak Eskoriatzako Udaren laguntzarekin antolatzen duen *Errekan Gora* jaialdiak. "Hamargarrena izanik, hainbat berrikuntza sartu ditugu; esaterako: maiatzean abiatu genuen jaialdia Motxila 21 taldearen emanaldiarekin, eta irailean borobilduko dugu egitaraua balarako hainbat sortzailek egin duten proiektu baten estreinaldiarekin. Era berean, lehenengo aldiz, dantzari tokia egin diogu, eta, horrez gainera, bi agertoki

berri izango dira: Gorosarri plaza eta Villa Epifania etxeko lorategia", dio Iñaki Kortazarrek, Atxorrotxeko kideak.

Doan, bat izan ezik

Oraingoan ere askotariko musika estiloak izango dira: bole-roak, hard-rocka, ska-reggaea... Aurtengo apustua, baina, Depedro da. "Bi urte ibili gara atzetik eta, azkenean, lortu dugu. Uda honetan bi kontzertu bakarrik egingo ditu Euskal Herrian: Kuxa kultur jaialdian eta Eskoriatzan. Udaren laguntzarik barik, zaila litzateke horrelako kalitatezko jaialdi bat egitea".

'Errekan Gora': egitaraua

Uztailak 7

• **22:30** Aukeran Dantza Konpainia, Gorosarri plazan.

Uztailak 8

• **22:30** El Trio Medianoche musika taldea, Zaldibar plazan.

Uztailak 14

• **22:30** Niña Coyote & Chico Tornado musika taldea, Gernika plazan.

Uztailak 21

• **22:30** Depedro musikaria, Huheziko klaustroan (bost euro).

Uztailak 22

• **22:30** Akatz musika taldea, herriko plazan.

Uztailak 28

• **22:30** Dorleta Kortazarren eskutik, helduentzako ipuin kontaketa, Villa Epifanian.

EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA

GOIENA TELEBISTA,

EKAINAREN 22AN, EGUENEAN, 21:00ETAN

GONBIDATUA: MIXEL DUCAU

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK, GOIENAK, EUSKADI IRRATIAK ETA BILBAO HIRIA IRRATIAK ELKARLANEAN EGINDAKO SAIOA.

goiena
ZU HEMEN ZAUDE



Mixel Ducauren musika ibilbideari gainbegiratua

'EKT' (Euskal Kulturgintzaren Transmisioa) telebista saioaren bosgarren atalean, Baionan jaiotako eskarmentu handiko musikaria gertutik ezagutzeko aukera izango da; Ane Zabala kazetariak aurkeztuta, egunean 21:00etan izango da saioa ikusgai

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
70eko hamarkadan Errobi taldea sortu zuen Anje Duhalderekin batera. Harrezkero, askotariko musika talde eta ekimenetan jardun du Mixel Ducauk. Gaur egun, Caroline Phillips bikote-kidearekin batera Bidaia taldean ari da, baina bestelako egitasmo askotan ere jarduten du, Oreka TX taldearekin, adibidez.



Mixel Ducau musikaria. GOIENA

Errobi: rocka euskaraz

Urtarrilean izan zen Ducau MURen Aretxabaletako Ikus-entzunezko Fakultatean EKT graduondoa parte hartzen. Haurtzaroko bizipenetatik abiatuta, umiltasunez eta ikur duen umoreaz egin zuen bere bizitzaren kontakizuna. Guraso euskaldunak zituen arren, urteetan aurrera egin ahala ikasi zuen euskaraz; hala ere, euskal tradizioa eta euskalduntasuna oinarri izan du parte hartu duen egitasmoetan. "Bogan zeuden kantuak euskaraz abesten genituen Anje

Duhaldekin eta biok, aurrez sortu genuen El Fuego taldean. Gureta, naturala zen euskaraz rocka egitea. Baionako Zabal liburu dendan ezagutu genuen elkar eta 1973an sortu genuen Errobi; bost lan argitaratu genituen. Iaz

Japonian izan nintzen Oreka TX taldearekin eta harrituta geratu nintzen ikusle batek Errobiren disko bat sinatzeko eskata zidanean".

Orquesta Mondragon-en ere bai
Haurtzaroko laguna zuen Jean Mari Ecayren bitartez joan zen Madrilera, eta han lau urtez jardun zuen Javier Gurruchagak gidatzen zuen taldean. "Beste mundu bat ezagutu nuen han; garai oso zoroak ziren. Musika-ri askorekin egin nuen topo; Angel Celadarekin, esaterako".

Pariseran joan zen geroago eta ekoizle lanetan jardun zuen estudio batean. "Teknikoki asko ikasi nuen, baina bizitako garairik frustragarriena izan zen hura, beste batzuentzako kantuak egiten nituen. Garai hartako onena, Caroline ezagutu nuela. Kantatzeko beharragatik, Zaldibobo taldea etorri zen gero, Donostiako kontzertu batean ezagutu nuen Joseba Tapiarekin".

Bi debagoiendar Eskolarteko Bertso Txapelketaren finalean

Oihana Arana eskoriatzarra eta Aitor Ugarte aramaioarra gustura gelditu ziren finalean egindako lanarekin

Ane Vitoria ARRASATE

Zapatuan, Euskal Herriko Eskolarteko Bertso Txapelketako finala jokatu zen Saran. Zuberoa izan ezik –lurralde horrek ordezkari bakarra izan zuen–, txapelketa horretan, Euskal Herriko gainerako sei lurraldeetako bina ordezkari aritu ziren bertotan. Eta, horien artean, bi debagoiendar lehiatu ziren: batetik, Oihana Arana eskoriatzarra, Gipuzkoa txapelketan lehenengo sailkatua izandakoa, eta bestetik, Aitor Ugarte aramaioarra, Arabako bigarren sailkatua.

Irabazlea, arabarra

Binaka zortziko handian eta txikian aritu ziren; hiruko ofizioren bat ere izan zen, parte-hartzaile kopuru bakoitia zen eta. Ondoren, finalaren bigarren zatirako, sei bertsolari sailkatu ziren, eta tartean zen Oihana Arana debagoiendarra. Horiek guztiek gogor lehiatu ostean, Aroa Arrizubieta gasteiztarra izan zen 2017ko Euskal Herriko Eskolarteko Bertso Txapelketako irabazlea, eta Joanes Illarregi leiztarra bigarrena.

Oso pozik egindako lanarekin

Oihana Arana eskoriatzarra eta Aitor Ugarte aramaioarra gustura gelditu dira euren lehen finalean egindako lanarekin. "Txapelketa hasi genuenean, ez nuen espero finalera heltzea. Esperientzia berria izan da, eta, gainera, bertso-kide guztiak lagunak gara. Errepikatzeko moduko esperientzia da hau", esan du Aranak. Aramaioarra ere pozik dago lortutako emaitzekin: "Nire saria finalean abestea izan da, eta, nahiz eta urduri egon, dena oso ondo joan zen. Berriz ere joango nintzake; beraz, datorren urtean bueltatzeko lan egingo dut", azpimarratu du. Gainera, ofizioetako lehenengo ariketan elkarrekin aritu ziren: "Ariketa holaxe suertatu zen eta oso positiboa izan zen biontzat", aitortu du eskoriatzarra.

Goiena Klubaren txokoa

Dragoi-janerako 4 sarrera bikoitz ditugu!



EKAINAREN 24AN 21:00ETAN SAN JUAN JAIEN BAITAN IZANGO DEN DRAGOI-JANERAKO 4 SARRERA BIKOITZ DITUGU!

PARTE HARTZEKO: EKAINAREN 19RA ARTE

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "dragoi-jana" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuetan sartze, hain zuzentzeko edo ezaratzeko, helbide honetara idatziz: kluba@goiena.eus



arrasate
euskaldun
dezagun



Irabazi bi lagunendako otordua

SANTA ANA JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



